

**aurkibidea**

---

<i>Zenbaki honetan.....</i>	3
-----------------------------	---

**1968-1988: Ezkerraren historia: Euskadi-Europa**

BELTZA: 1968-1988: Ezkerra Europan.....	7
LETAMENDIA, P.: Ezkerra Euskadin .....	47
IBANEZ, J.: Intelektualen erantzukizuna demokraziarako trantsizioan ..	85

---

**Gaiak**

ZUAZO, K.: Diglosia dela eta .....	105
TOBAR-ARBULU, J.: Diruaz eta moneta-politikaz zenbait ohar.....	115

---

**... hainbat aburu**

ALTZIBAR, J.: Egunen gurpilean.....	127
-------------------------------------	-----

---

**Liburuak**

Jaso ditugu .....	143
-------------------	-----

---

© **JAKIN**

JAKINeko idazlanez  
inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria.

**JAKIN**

aldizkari irekia da eta  
ez dator nahitaez  
idazleen eritziekin bat.

**Zuzendaria**

joan mari torrealdei

**Idazkaritza eta administrazioa**

Ategorrieta hiribidea, 23, 1. esk.  
20013 Donostia. Tel. (943) 27 17 13

**1988ko prezioak**

barruan		kanpoan	
harpideduna	ez-harpideduna	harpideduna	ez-harpideduna
harpidetza ...2.500 pta.	—	2.700 pta. (130 FF)	—
ale arrunta .....625 pta. ....	750 pta.	675 pta. (32 FF) ....	800 pta. (40 FF)

# ZENBAKI HONETAN

---

*Eskuetan duzun hau, bigarren aldiko 47. zenbakia da eta 1988ko bigarrena.*

*1968: ezkerraren loraldia, maiatza. 1988: zertan da ezkerra gaur? Hogei urte pasa dira, eta ez-nolanahikoak ezkerrarentzat. Ezkerra, mugimendu iraultzailea, zer bilakatu den urte horietan ikertu nahi dugu: gurean eta Europan zertan den. Ezkerra bere osoan harturik: utopiak, proiektuak, tradizioak, balioak, organizazio-moduak, borroka-motak.*

*Hiru artikulutan banatu dugu azterketa. Emilio Lopez Adan "Bel-tza" k Europako Ezkerraren historia egiten du. Banan-banan eta puntuz puntu aipatzen ditu urte horietako pentsaera ezkertiar, erakunde eta mugimendu sozialak, argi eta garbi zertzelatuz bakoitza.*

*Pako Letamendia "Ortzi" k Euskal Herriko ezkerraren bilakaera aztertzen du: Ezkerrak Euskal Herrian (izan) dituen gai, gorabehera, gertakari eta taldeei errepasoa egiten die Ortzik.*

*Estatu mailan gertatuari ere begiratu bat ematen diogu, bestelako ikuspegiz bada ere. Diktaduraren ondoren intelektualaren egitekoa aztertu du Jesús Ibáñez-ek, intelektualen erantzukizuna demokraziarako transizioan, alegia.*

Gaiak sailean bi idazlan ditugu oraingoan: *Lehenean, diglosiaz ari da Koldo Zuazo: hitzaren jatorriaz eta euskararen teorizazioez zenbait kontsiderazio eginez. Bigarren artikuluan, zenbait ohar egiten ditu Joseba Tobar-Arbuluk diruaren historiaz eta moneta-politikaz.*

... hainbat aburu sailean, *Joan Altzibar-ek azken hilabeteetako zenbait pasadizo, gertakari eta esaldi biltzen ditu egunen gurpil azkarrean.*

Liburuak sailean, *azkenik, azken aldi honetan jasoriko liburuen fitxa bibliografikoa eskaintzen dugu.*





Beltza  
Pako Letamendia  
Jesus Ibañez

## 1968-1988: EZKERRAREN HISTORIA: EUSKADI-EUROPA

### 1968-1988: Ezkerra Europan

Utopia komunisten porrota: Komunismoa, Marxismo sobietarra, Terrorismoa, Sozialismo erreala, kontserbadurismo berria. Erakunde ezkertiarak eta mugimendu sozialak: Sozialismoa, Eurokomunismoa, Maoismoa, Psikoanalisia, Militantismoa, Borroka armatua, Berdeak, Erradikalak, Mugimendu sozialak. Perspektibak intelektualeriaren eskutik.

### Ezkerra Euskadin

Maoismoa eta hasierako ETA. Errepresioa eta utopia. Leninismoa eta Trotskismoa. Fronte militarra. ETA-m eta ETA-pm. Langileen asanblearismoa eta unitarismoa. Borroka antinuklearrak. Erreforma, Eurokomunismoa, Sozial-demokrazia eta Internazional Sozialista. Euskadiko PS eta espainiar nazionalismoa. Euskaldunen "Zaputz Handia". HASIren kongresua. Komando Autonomoak. Konstituzioa eta euskal errebindikazio nazionalak. Herri Batasuna. EIA. Euskal Herriko Batzarre Nazionala. KAS eta HB. KAS eta mugimendu asanblearioak. Euskadiko Ezkerra. ETA-pm: VII. eta VIII. Biltzarreak. Etorkizunear zer?

### Intelektualen erantzukizuna demokraziarako trantsizioan

Erantzukizuna. Intelektualak. Intelektualen erantzukizuna. Demokraziarako trantsizioa. Paisajea euskal orkatz eme batekin hondoan. Intelektualen iratzartzea.

## 1968-1988: Ezkerra European

Beltza

Hogei urte denboraldi polita da. Batez ere Europako mugimendu iraultzailearentzat hain esanahitsua izan den 1968ko maiatzetik abiatzen bagara. Garai hartan, esperantza guztiak zabalik eta zilegi ziren; gaur egun, berriz, berchalako batean irabazi nahi lukeen iraultza kinka larrian dagoela esan daiteke.

Gertatua ikertzeak ez digu Euskadiko mugimendu iraultzailea ulertzeko giltza osoa emango, gure egoera aski berezia bait da; baina, kanpotik datozen haize eta uhinak konprenitu gabe, nekez jabe gintezke hemen gerta daitekeenaz\*.

### Utopia komunisten porrota

«Le pacte avec le rêve s'est dénoué, les terres promises s'enfoncent dans une grise banalité» (Régis Debray, 1984).

### Komunismoaren alde

Iraultza hurbil dela esaterakoan, bi gauzaz mintzatzen da: utopiaz eta estrategiaz. Hau da, nahi dugun gizarte berria gauzatzeko

gai garela diogu, eta, une berean, gizarte honen edukina orainaren segida zuzenean ematen dugu, posiblea eta aktuala delako; bestalde, estrategikoki, indar-harremanen esparruan, hara heltzeko behar den errealarekiko haustura egingarritzat jotzen dugu.

Komunismoa dugu ezkeraren erreferentzia klasikoa; iturri desberdinak ditu, eta denak hartu behar ditugu kontutan. Marxismoa da lehena, nagusia, baina mugimendu anarkista-libertarioak kontrapundua eta emaitzak ekarri dizkigu; gure Euskal Herrian, Latin Amerikan bezala, kristianismoa, askapenaren teologiari lotua, ezin ahantzia dugu.

*Nahi* den gizartea, etorri *behar* duenarekin parekatzen da, biak, nahikunde subjektiboa eta beharkizun objektiboa, bat egiten; haren jite ekonomiko, politiko eta sozialak ongi definituak daude.

- *Ekonomian*, gizarte aberats eta joria da, lan gogorak baztertzen dituena, eta hau guztiau, automatizazio eta mekanizazioari esker.
- *Pertsonak*, langileak, errenazentistak ditugu nonbait: denerako prest eta *denetarako egokiak*, heziketak, solidaritateak eta berdintasunak ezabatu bait dute eskulanaren eta burulanaren arteko kontrajarpena.
- *Jabego pribaturik ezak*, klaseak desagerturik, pertsonak gobernatu behararen desagerpena ekarriko du, eta, berarekin batean, *Estatuaren abolizioa*.
- Nazio artean, nazionalismoak eta gerrak bukatuko dira, natura ahituezin baten gainean gizon-emakumeen erresuma *baketsu* eta zorionsua finkatzeko.

Irudi eta edukin hauek aurrez aurre egiten dute topo dagoen errealarekin; oraingo gizartea jabego pribatuz, hierarkiaz eta nazionalismoaz dago oratua. Are gehiago: esplotazioa eta bortizkeria osagai nahitaezkoak dituelarik, egitura juridiko eta militarrek sortzen eta erabiltzen ditu bere burua defendatzeko.

Beraz, utopia komunistan sinesteak bi ondorio dakartza: lehena, dagoenarekiko bestelakotasuna; bigarrena, haren kontrako borroka.

Komunismoaz pentsatzea eta sinestea ez da inozentea. Karl Marxek 1845ean idatzi zuenez:

«Orain arteko filosofoek mundua nola den era desberdinez *interpretatu* dute soilki; engoitik, mundua *aldatu* beharko da» (Feuerbach-i buruzko tesiak).

Eta guzti honek estrategiaren arazoa dakar, pentsaera bilaka dadin aldakuntza.

Gure denboran (esan nahi bait da, euskal nazionalismoan ideologia iraultzaileak eragin handia izan duen denboran), ideologia-estrategia honek bi osakin batzen zituen: langileen mugimendua eta nazio zapalduen askabidea, alegia. Langileen iraultza ziklo luze batean hedatzen zen, Errusian bere lehen garaipen historiko nagusia lortua zuela; mugimendu antikolonialista, berriz, gazteagoa zen, baina, Leninek adierazitako inperialismoaren teoriari esker, metropolietako langileriarekin bat egina ikusten ahal zen.

Hitz batez, historian gertatutako borroken esanahia eta batasuna ulertzeko, gorputz teoriko trinko batean finkatzen zen ideologia iraultzailea, bere edukin filosofiko propioarekin.

Azken finean, ekonomia politikoari buruzko teoria oso bat dugu. Humanitatearen etengabeko hedapen ekonomikoa baieztatzen da; gaur egun produkzio-indarrek duten edukin kolektiboa, dagoen jabego pribatuari kontrajartzen zaio; denbora berean, proletalga indartuz doa, kopuruz, heziketaz eta kontzientzia iraultzaileaz.

Kontradikzioen ondorioaz, klase guztiak abolituko dituen klasearen garaipenak ekarriko du komunismoa.

Kontradikzio hegeliano-dialektikoen barnean dago sistema filosofiko hau. Ideologia-estrategia gisa, aski zientifizista eta sobera determinista dela esan daiteke.

## Aurretikoak

Baina, ideologiaren egia praktikaren galbahez neurtzen delako teoria honek. Guri, egiaren erreferentziak, beren edukin afektibo-moralarekin, borroka batzuetan gertatuak zizkigun frogatu; esperientzia historiko nagusiak, nire ustez, hauek izan zitzaizkigun:

- Errusiako Iraultza; eta, gero, nazismoaren kontra Soviet Batasunak eramandako erresistentzia.

- Espainiako gerra zibila, eta batzuentzat han izandako esperientzia libertarioak.
- Deskolonizazioa, Irlandan eta Algerian hasirik, Kubatik pasa, Vietnam eta Palestinan gaindi, beharbada Nikaraguaraino hedatzeko.

Idea eta irudi horiek Euskadiko nazionalismoan sartzean, gure egoera bereziak emango die beste arintasun propio bat: gerra ondoko beldur eta pobreziatik jalgirik, gure gizarteak ezagutzen zuen hedapen ekonomikoak ekarri zigun optimismo soziala. Denbora berean, frankismoaren krisiak, bere iraupenarekin, zerbait berriren beharra erakusten zuen, eta haustura orokorraren posibilitatea posibletzat jo erazten zigun.

Ez gara haboro optimismo iraultzailearen garaian. European, oro har, porrot egin du doktrina-estrategia orokorretan sinestuta ibiltzeak. Ez, halere, gure Euskal Herrian, nahiz eta horretan diharduen giza talde zabalak ezintasun osoa ukan bere proiektua gizarte osora hedatzeko. Ez dago bakarrik, optimista bait da marxismo-leninismo bizia mantentzen duen mundua.

Krisia aipatu baino lehen, jarrera iraultzaile optimistak ikertu beharko dira, agian.

### **Marxismo sobietarra**

Marxismo-leninismoaren inguruan direnak aipatzeko, alde batera utziko ditut Albania eta Ipar Koreako kasu bereziak. Txina-k merezi duen lekua, gero diogu emango, Europako goxismoaz mintzatzerakoan. Esparru honetan, dudarik gabe, Soviet Batasunak du lehentasun osoa.

Estatu sobietarraren indarra kontutan hartu behar da; bere inguruan direnak ugari dira, nahiz eta lotura ideologikoak ez izan bakarrik, ekonomikoak eta militarrik handiak direlarik: Kuba, Angola, Namibia, Mozambike, Etiopia, Ekialde Hurbila, Vietnam eta bere influentzi cremua, Ekialdeko Europa... Guzti honek pisu eskerga du.

Are gehiago, borroka antiinperialista daramaten leku askotan nabaria da sobietarren eta lagun presentzia (Kubaz ari naiz bereziki): Hegoaldeko Afrika eta Nikaragua ditugu adibideak, besteak beste.

Taula ez litzateke osoa, beren buruak marxismo-leninismoari lotutzat dauzkaten hainbeste mugimenduren aipamena egin gabe. Borroka armatua hautatu dutenak exenplu bizitzat harturik, Salvador, Kolombia, Kurdistan eta Filipinak aipa genitzake; Europan bertan, borroka antiinperialistaren barneko lankidetzat daukate beren burua Action Directe, Brigatte Rosse edo Alemaniako RAFak.

Hau guztiau teorikoki bilbatzeko, Soviet Batasunaren munta goraitpatzen duen diskurtsu ofizial bat errepikatu da etengabeki. Hitz batez, diote, erresuma honen existentziak posibilitatzen eta garantizatzen ditu entsegu iraultzaileak eta, bereziki, nazio zanpatuen askabidea. 1980 inguruan, Soviet Batasunak irabazia zuen irudi-borroka hau: maismoak eta guevarismoak Hirugarren Munduari eman zioten lehentasun iraultzailea, Soviet Batasunaren kritika oso gogorra eginez; baina, gero, Txinaren eboluzioak eta castrismoaren erusofilia biziak jarrera horien deigarritasuna pikutara igorri zuten. Soviet Batasuna jaun eta jabe bakar gelditu zen.

Boris Ponomarev-ek 1979an idatzitako testu honek pentsaera estrategiko horren laburpena egiten digu:

«Soviet Batasunaren existentziarik gabe ez zatekeen posible munduko komunitate sozialistaren garapena; halaber, komunitate honen existentzia eta garapen aurrerakoia gabe, ezinezkoak ziratekeen inperialismoaren aurka herriek izandako garaipenak, hala nola Kuban, Vietnamen, Laosen, Angolan, Ethiopian, Mozambikenen, Hego Yemenen, Afghanistanen, eta beste asko lekutan».

Halere, eta nazio zanpatuen askabideari begira, kontutuan hartu behariko dugu Gorbachov-en erreformak nazioarteko politikan zer suposatuko duen. Dударik gabe, kapitalismoaren eta sozialismo errealararen arteko liskarrak bi borroka paralelo daramatza: bi estatu superpotentzien artekoa, eta borroka ideologikoa. Aspaldi esan zen, batak nekez jasango zuela besteak bere influentzi eremuan eskua sartzerik, liskar handiagoen beldurrez, inork ez zuela gogorik sobera bestearen barneko su iraultzaileak pizteko. Oreka hori politika errealarari zegokion, ez doktrinari. Orain, *doktrinaz ere* koexistentzia bakezkoaren alde ageri da Gorbachov. Jarrera honek ederki alda dezake Soviet Batasunaren babesaz baliatu nahi duten Mendebaldeko iraultzaileen egoera.

Gogora dezadan, komunismoaren eta kapitalismoaren arteko borroka internazionala nola duen ulertu marxismo sobietarrak.

Lenin-ek komunismoak laster irabaziko zuela pentsatzen zuen, eta Errusiako Iraultza Europan gertatuko zenaren aintzin-urratsa zela kontsideratzen.

Stalin-ek zioen, komunismoak indar hartzeko bakealdi bat onartu behar zuela, baina bi sistemen arteko gerra irekia ezinbestekotzat jotzen zuen.

Kruschev-ek, berriz, ez zuen gerrarik nahi, ez eta haren beharrik ikusten; halere, sozialismoaren garaipena ezinbestekotzat jotzen zuen, nahiz eta bi sistemen arteko etsaigoak forma baketsua hartu.

Brejnev-en garaia nahasiagoa izan da. 1973a arte, bi superpotentzien arteko kondominioa onartu zuen, Txekoslovakia inbadituz eta burujabetza mugatuaren teoria onduz. Gero, eskalada-ofentsibari eman zion hasiera, kapitalismoaren ahuleziaz eta krisiaz oinarriturik: euromisilak, Polonia, Afghanistan, politika honen ondorioak izan dira.

Ikertzaile askok galdetzen du ea Gorbachov-en erreformak iraultza mundialaren teoriaren akabera ekarriko duen. Deklaratu duenez (1987), mundua ezin daiteke haboro bi sistemen arteko borroka bezala ulertu; edota, zuzeko mihiaren metahizkuntzaz baliaturik, «koexistentzia bakezkoa klase-borrokaren forma berezia da».

### **Bortizkeria komunikagaitza**

Halere, azken urteotako fenomeno berri bereziena ez da noski, marxismo-leninismoaren iraupena, baizik eta borroka iraultzaile berri eta bitxi batzuen agerpena. Esan nahi bait da, Hirugarren Munduari lehentasun iraultzailea ematen zion marxismoaren desagertzea, alde batetik, eta Soviet Batasunak potentzia handi gisa sortutako mesfindantzak, bestetik, zanpatuen borrokkak ideologikoki janzteko hutsune bat utzi dutela. Tradizio iraultzailearekin hautsiko duten jazarkunde berriak dira ageri. *Islamismoa* eta *Komunitateen arteko bortizkeriak* ditut buruan, hain zuzen.

Mugimendu islamikoak edukin erlijioso nabaria du, eta, une berean, zanpatu eta pobreen jazartzea da; bere etsaiak, hain zuzen, barneko erregimen oligarkiko ustelak eta kanpoko inperialismoa ditu. Orain duela gutxiko historian, 1948an Israel sortuz gero,

arabeen mugimendua progresismo klasikoaren barnean ikusi izan da; Nasser-ek bultzatutako nazionalismo arabiarra dugu denboraldi bat, eta OLPk Palestinan eramandako borroka bestea. Erlijioaren berezitasunak ukatu gabe, bietan suspertzen zen helburua munduko iraultzaileek ongi ulertu eta laguntzen zuten (ez ditza-gun ahanztz Soviet Batasunaren politika eta, espeketroaren beste muturrean, palestinoei goxista japoniar eta alemanek emandako laguntza armatua). Baina jarrera transferigarri edo unibertsal honen indar asko galdu du. OLPren krisia gertatu da, politika eta politikakeriak eragina; Syrian, Anaia Musulmanen jazartze eta desegiteak, 1982ko otsailean, denboraldi baten amaiera erakutsi zuen; Egypton, 1981ean Sadat-en asesinatzearekin bururatua zela esan daiteke; eta islamismoak berak Arabiako Penintsulan sortutako beldurrak (bereziki 1979an Mekka-ko meskita handiaren inbasioarekin) hango erregimenen jarrera erreakzionarioak berpiztu ditu. Hitz batez, islamismoa ageri da nazionalismo arabiar aurrerakoiak utzitako zuloa betetzen. Islamismoaren helburua, koranaren araberako gizarte garbi-ideala sortzea da; horren egiteko, tirano fedegabeek mantentzen duten injustizia eta errepresioaren sistema ("Jahiliya") desegin behar da; bide estrategikoa, gerra sailduarekin dabil ("Al Jihâd"). Errebolta hau predikatzeke, Iran dugu nagusi; Kadafi-k Libian sortutako erregimen islamikoa ("Jamahiriyâ") eta kanpoan daraman politika antiinperialista (nahiz eta honetan SESBen eragina aldagai bezala nabaria izan), ez dabilkio oso urrun.

Europako iraultzaileentzat, islamismoak problema latzak aurkezten ditu. Edukin antiinperialista, eta oligarkien kontrako pobreen mugimendu izatea, begi onez ikusten dituzte; erlijiotasun bizi-bizia onartzea kosta egiten zaie, erlijioa «herrien opioa» dela ikasi bait dute. Baina gogorrena transferiezintasuna da. Esan nahi bait da, langileen eta herri zanpatuen borroka batzen zituen marxismo-leninismoan, fronte guztietan obratzen ziren ekintzak orokortasun baten barnean ziren ulergarri, eta liberazio osoaren bide bakarrean sartzen ziren. Orain, fede berezia dutenek dute iraultza egiten, eta infidelen kontra borrokatzen; nazio arteko liskarretan, bereziki, horrelako azalpenak ematen direnean (oraingo Tchad eta Libiaren artekoan, adibidez), unibertsala ezin izan daitekeen doktrina batek ezin gaindituzko bestelakotasuna dakarkie gainerakoei. Haustura handia, beraz, lehenagoko utopia mundialistekin.

Eta hau horrela izanik, askoz ilunagoak gertatzen dira komunitateen arteko gerra odoltsuak. Euskadin, duten edukin nazionala-



gatik, arduratzen gara haietaz. Europa osoan, komunikaezinezko liskar itsusi bezala ikusten dira. Komunitate bakoitzaren egoera lazgarria da; erreboltatzeko eta borrokatzeko hautatzen dituzten ideologiak eta bideak, berriz, guztiz transferiezintzat jotzen ditugu.

Beharbada, transferiezintasuna azalekoa da, eta arrazoiak edozeinek (edozein iraultzailek, esan nahi dut) beregana litzake, ongi enteratua balego. Halere, aitor dezagun transferigarritasun inmediateorik ez dela, eta gainera dezagun, kasu bakoitzaren motiboak eta bideak beragana litzakeen doktrina batek gehiago emango lukeela eraikuntza dialektiko abila, egiazko zerbaite baino. Aipa ditzadan Libano-ko komunitateak, Sri Lanka-n tamil hinduistek, eta Indian bertan Punjab-eko sikh-ek (347 hildako 1988ko lehen bi hilebeteetan!) edota Assam-eko nazionalistek planteatutako eskakizunak. Azken finean, beti jite berberak: egoera ikaragarriak, errebolta odoltsuak, eta norberarentzat ebidenteak diren zioak eta etsaigoak, besteei ia guztiz pasaezinak. Talde bakoitza hil ala biziko egoeran dago, bere obuan, doktrina eta estrategia unibertsaletatik urrun.

### **Terrorismoa**

Eskas dugu transmisio iraultzailea, eta ekintza armatuak (berezi) ulerterazteko eta onartzeko behar den akordio ideologikoa ere falta da. Horiek horrela, transmisio ideologikoak utzitako hutsunea komunikazio mediatikoak beteko du. Terrorismoarekin egin dugu topo, bekoz beko. Isolatuak direnentzat, beren komunitateko ez diren guztiek ez dute esanahi etiko edo politikorik merezi; egindako ekintzan neurtzen den gauza bakarra, komunikabide modernoek emango dioten sona da, sona honek arazoa dagoen zulo ulertezinetik aterako duelakoan. Terrorismoa, horrela, borroka armatuaren pornografia bihurtzen da. Eta komunikazioezaren zirkulu itxia tinkatzen du.

### **Sozialismo erreala historiaren frogaz**

Baina iraultza mundialaren inguruan gertatzen diren fenomenoek esparrua mugatzen badiote (eta mundu osorako balioa kentzen diotenean, esanahi utopiko orokorra ahultzen diotela aitortu

behar da), sozialismo errealearen barnean gertatzen denak ere kezkatzen gaitu.

Sozialismo erreala, praxi bat da; egiaren erizpidea praktika dela esana dugu: hau da doktrinak berak defendatzen duena. Soviet Batasuna dugu, orain eta lehen ere, ikergai nagusia. Haren alde direnek, beti, oro har positibotzat aurkeztu digute bere historia. NEPa, kolektibizazioak, itun germano-sobietarra, Afghanistan, dena onartu dute: ahuleziak eta injustiziak, kanpoko zerkoaren bidez edota huts pertsonal partzialez esplikatzen zituzten. Soviet Batasuna bere funtsean kritikatzeari, berriz, soilik inperialismoaren morroiek egin zezaketen.

Hala ere, beti egon da ezkerretik egindako kritika bat. Iraultza-  
ren denboretan, *anarkistek* egin (Voline gogora dezadan), boltxevikeen autoritarismoak suposatzen zuena azpimarratuz. Gero, *kritika troskista* izan dugu nagusi, gaur egun arte iraun duena: Errusian iraultza sozialista egin da, proletalgora dago boterean eta kapitalismoa suntsitu da, baina burokrazia batek (kasta edo den, baina klase ez den multzo batek) bahitu du proletalgoaren estatua. Bigarren iraultza bat behar da burokraziaren kasatzeko (Trotsky bera, Deutscher eta Mandel aipatuko nituzke horretaz idatzi dutenen artean). 1970 inguruan, *maoistek* egin zituzten kritika gogorrenak. Txinatarrak aipatu gabe, Mendebaldeko marxisten artean Bettelheim eta Chavance-ren lanak ditugu. Soviet Batasuna sistema kapitalista da, estatuko burgesiak (alderdiaren buruek, militarrek eta ekonomi espezialistek osatua) kontrolatua; estatu-kapitalismo monopolista da haren funts ekonomikoa, eta nazionalismo errusoa ematen dio zimendu ideologiko nagusia. Ikuspegi honen inguruan, beste finduago bat ezar nezake, Paul M. Sweezy-ren inguruan obratu zena, hain zuzen: ez kapitalista, ez sozialista, Soviet Batasuna kapitalismo osteko sistema berezi bat da, klasez erdibituta gizarte zapaltzaile bat, 1953tik aurrera egonkor eta aldagaitza.

Kritika ezkertiarrek, halere, galdu egin dute indarra oraingo Europan. Iraultza-  
ren nahikeriari dira lotuak, eta iraultza egiteko Soviet Batasunak suposatzen duen oztopoa mugitzera dira zuzenduak. Iraultzan gero eta gutxiago sinesten duen gure sistema demokratikoa, kritika gogorrenak giza eskubideen aldetik joan dira (Eurokomunismoa aipatzerakoan barnatuko dugu alderdi hau).

Baina, oro har, Errusia modelikoaren aldiarenak egin du, eta bere inguruan ziren mitoak (Stalin garai batez, esate baterako) ez dira gehiago gai gure hirietako proletariari amets eragiteko. Are

gehiago, goxismoarentzat hain garrantzitsua izan den nazioarteko esparruak problema handiak sortu dizkio iraultza internazionalistaren utopiari, sozialismo errealearen osakin bezala ageri direnean estatu sozialisten arteko gerra nazionalak (Txina, Vietnam eta Kanputxea aipa daitezke), inguruko estatuen inbasioak (Polonia, Txekoslovakia, Afghanistan) eta nazio-askapenerako mugimenduen kontrako ofentsibak (Eritrean).

Estatuen politika errealistak iraultza mundialaren kontzeptziolari lehentasuna kendu diola ematen du, eta, horrela, lehen aipatutako fenomeno bortitz berrien agerpenarekin, gero eta murriztagoia gertatzen da utopia iraultzailearen eremu orokorra.

### **Krisi ekonomikoa**

Europar bertan, krisiak kolpatu du barne-barnean. Honen ondorioz, beharbada, Soviet Batasunaz, Hirugarren Munduaz, Langile-mugimenduaz eta, oro har, Iraultzaren oraingotasunaz, ideiak arrunt aldatu dira, txarrerako aldatu.

Beti bezala, aldakuntzen eremua zabala da: ekonomia eta enpresetan, langileen mugimendu organizatuan, ideologian. Denen ikertzeak oso luze joko luke. Laburpen gisa, batzuk arakatuko ditugu.

Langileriaren gizarte-egitura bera aldatzen ari da, eta, harekin, bere organizazioaren gorputza eta esanahia. Oro har, masa trinkoa egiten zuen proletalgoak langile isolatu-sakabanatuei egin die leku; denbora berean, ofentsiboa zen mugimendu batua defentsiba-borroka barreiatuek dute ordezkatu.

Industria astun klasikoen krisiak langile-masa nola ahuldu duen esplikatu beharko genuke; honekin batean, teknologia berriek dakartzaten espezializazio-eza eta lanpostuen trukaketa, iraupenik gabekoa.

Langabeziaren hedapenak solidaritateari emandako jipioia, eta enplegua kontserbatzeko joera nagusia, borroken isolamenduarekin doaz. Hemen ere, nabaria da komunikazioaren ahulezia; borroka oso gogorrek egiten dira norberaren lanpostua mantentzearen, baina ondoan gertatzen denaz futitzen gara gero; atentzioa emateko, beste hiritarrak ere molestatzen dira: oro har, errepresio-

aren eginkizuna errazten da horrela, liskar bakoitzaren isolamenduak luzaroko ahulezia dakarrelarik.

Baina edukin teoriko-politiko handiena, beharbada, sindikalismoaren krisiak darama. Jarrera iraultzaile klasikoetan, eginkizun politiko oso handia zuten sindikatuek: libertarioentzat, langileak bilduz eta organizatuz burujabetza osoaz; leninistentzat, partiduari lotutako transmisio-hede gisa. Horrekin batean, eta batez ere anglosaxoien artean, egitura azkarrak ziren zerbitzu-hornitzaile bezala.

Gaur egun, arrunt aldatzen ari dira gauzak. Afiliazioa behera doa; negoziatzeko, gero eta leku urriagoa ematen zaie. Askok dabilen hipotesiak sindikatu marjinalak ulertzera garamatza, ehuneko bat edo bi izango delarik sindikalizazio-tasa, profesionalez ongi horniturik, liskar partzialetan, eta, deituko dituztenean, parte hartzeko prest!

Hots, honi alderdi langile edo langilezale klasikoen egoera gaineratzen badiogu, zerbait argi dela esan dezakegu. Gutxik sinesten duela iraultzarako bidean gaudenik.

### **Intelektualeriaren antitotalitarismo lausoa**

Barneko egoera honen aurrean, oso esanahitsua da intelektual ezkertiarren eboluzioa. Historia hurbilean, iraultzak predikamendu handia izan du multzo honen barnean: garai batean, Errusiarekin bat egitea beharrezkotzat jotzen zuten; duela gutxi, kolonialismoaren eta inperialismoren aurkako borroketan parte hartzea zen progresismoaren marka. Orain, berriz, salbuespenak salbuespen, gauzak beste modu batez ikusten ditu kolektibo honek. Europa eta Mendebaldeko demokraziak dira, hain zuzen, begiratu behar den libertatearen esparru nagusia; totalitarismoa dugu etsai nagusia, eta, diote, tiraniaren mehatxuak kanpotik datozkigu, batez ere inperialismo sobietarrak eta Hirugarren Munduko mesianismo erlijiosoek bultzaturik. Beraz, Europa eta bere balioen defentsa da jarrera progresista posible bakarra.

Euskal Herrian aski ezaguna zaigun Bernard Langlois-ek oso ongi laburtzen du pentsaera honen funtsa (eta karikatura):

«Zer? Inperialismo amerikanoa? Horrelakorik ez dago. Multinazionalak? Hirugarren Munduarentzat mesede handiena. CIA? Mito hutsa! Hirugarren Munduko errekurtsioen ustiatzea? Absur-

doa... Eta Mendebaldeak erregimenen ustelenak, talde bortitzenak sostengatzen dituenen? Arrisku gorriaren aurrean, gaitz demendrena dugu. Hona hemen —mila bederatzihun eta laurogeitan— modako gaiak...» (1987).

Halere, zerbait azpimarratu behar da. Jarrera honen bozera-maile asko ezkerretik dator; Alemanian, Berdeen inguruan kokatzen dira; Frantzian, filosofo berri deituen inguruan (Bruckner, Henri-Levy, besteak beste, ditugu ezkerretik etorritako intelektual reaganistak!); eta, noizbehinka, Kongresu Antifaxista izenekoak egiten dituzte, non faxismoaren lekua totalitarismo sobietarrak hartu bait du (hala nola Valencian 1987an, Octavio Paz, Vargas Llosa, Savater eta Castoriadis-en presentziarekin).

Eta ezkerretik datorrenak badaki zerbait iraultzaz. Totalitarismoaren kritika aspaldi egina zuten anarkistek; leninismo-stalinismoaren jokaerak salatzea, posible eta beharrezkoa da. Baina oraingo kritika ez da gehiago iraultzaren izenean egiten, indibidualismo berriaren esparruan baino.

Aisia duen intelektualarentzat, bistan da Mendebaldeko demokrazia dela leku hobereana, indibiduoaren balioa gure kulturaren, batez ere, goraipatua izan delako. Baina beharrezkoak diren libertate horiek defendatzeko, inperialismoaren politika agresiboa onartzen dute (Granada eta Nikaraguan, adibidez), Europaren armatzea (eta, askotan, armatze nuklearra) beharrezkotzat jotzen eta, bereziki, ezin uler eta onar dezaketen terrorismoari aurre egiteko borroka antiterroristaren ondorio latzak justifikatzen dituzte (hala nola fitxajea, ordenagailuen erabilpen gaitza, kontrolak, estermio-gartzelak, arrazismoa, eta abar).

(Idazten ari naizen bitartean, hemen, Ipar Euskal Herrian, nabariak dira poliziak daraman chiza basaren ondorioak. Jende anitz noiz etorriko diren zain, inongo errekurtsio legal edo politikorik gabe. Arbitrario hutsa nonnahi. Eta Frantzian isiltasun osoa. Due-la urte batzuk, sistema demokrazia faxista bihurtzen ari zela idatzi nuen: demokrazia, sistemarekin ados direnentzat; faxismoa eta errepresioa, marjinatu eta errebelatuentzat, gehiengoaren akordioarekin. Idatzitakoaz ez naiz damutzen).

Noski, oraindik badaude jarrera iraultzaileak dituzten intelektualak (Pierre Vidal-Naquet, Félix Guattari, Claude Bourdet ditut, besteak beste, gogoan). Baina hamar urte hauetan gertatu diren aldakuntzak laburtzeko, zera esan genezake: Jean Paul Sartre-ren garaian (sinbolo nagusi gisa darabilt haren izena), intelektualek

biolentzia instituzionala gogor salatzen zuten; zanpatuen borroka armatua sistemak sortutako injustiziaren ondorioa zen, eta sistema goitik behera iraultzeko posibilitate bakarra. Are gehiago, Hirugarren Munduko nazionalismoek rol askatzailea jokatzen zuten, ez soilki hango erresumak libratzeko, baita inperialismoa ahultzeko eta metropolietan borroka pizteko ere.

Or, in, Mendebaldeko sistema demokratikoa defendatzeko jarrerak hartu du lehentasuna. Borroka armatua totalitarismo itsuek edota kausa partzial fanatikoek pizten dutela pentsatzen da, eta irrazional edo apolitikoak direla azpimarratzen. *Deus ex machina* bilakatzeko Mosku-tik datorren hari gorria. Intelektual razionalaren lana, nolabait, mehatxu ideologiko, erlijioso edo totalitarioen kontrako defentsa justifikatzea da, nahiz eta defentsa honek errepresioa eta armamentismoa ekarri:

### **Kontserbadurismo berria pistan**

Beste osakin bat azpimarratu behar da intelektualen jarreraren. Herriaren eskubideen inguruan dabilzan doktrina iraultzaile orohartzaileek porrot egitean, indibiduoaren inguruan bilbatzen den *neoliberalismoa* ageri zaigu. Hitz batez, kontserbadurismo berria ari da ofentsiba ideologikoan, bistan daude egin dituen sarraskiak.

Lehen ofentsiba, krisi ekonomikoari buruz eman dute. Borroka herritarren ondorioz langileen eskubideak defendatzeko, onura herrian banatzeko, eta kapitalismoaren tendentzia berekoi-basatiak mugatzeko eraikiak ziren legeriak eta instituzioak, kapitala eta produkzioa hedatzeko oztopo bezala aurkezten dizkigute orain. Hots, kritikik ateratzeko, belaunaldiz belaunaldi lortutako segurantzaren sistemak hautsi behar direla dioskute. Eta horrela abiatu dira enpresak eta estatuak.

Teoria honen laburpena eskain dezadan. 1974-75etik aitzina garatu da, eta laster hegemoniko bihurtu. Krisiaren sorburua kapitalari inposatzen zaizkion zedarrak zurrinak dira: soldata indexatuak, sobera burokratiko eta garesti den segurantza sozialaren sistema, langileak kanporatzeko oztopo legalak, lanpostuak aldatzeko nahiz lan-iraupena erregulatzeko legeriak. Iraultza teknologikoak eta kapitalaren mundializazioak dakarten bihurtuak ongi hartzeko, oztopo guzti horiek altxatu beharra dago.

Neokontserbadurismoak goitik behera uzkaitez du, ongizateko gizarteetan, langileriaren eta kapitalaren artean lortutako oreka. XIX. mendeko darwinismo soziala berpiztuko du: gure gizarteetan, bakoitzak dauka merezi duena; txiroak pobre dira, alferrak edo ezgauzak direlako, eta gizarteak ez die laguntzarik zor; eta berean, aberatsek ez dute beren kalitateaz lotsarik izan behar, eta, enplegu-sortzaile gisa, kapitalistek egiten diote gizarte osoari mesederik handiena; beraz, gobernuek onura publikoarentzat lan egiten dutenak babestu behar dituzte, eta ez alfer txiroak edo suntsizaile iraultzaileak.

Jarrera honen ondorioak nabariak dira.

Langileriaren egoera, oro har, beste modu batez ulertzen da. "Exit" betirako ofizioa eta, harekin, betirako lanpostua eta segurantzaren sozialaren lasaitasun iraunkorra. Ahulena kaleratuak dira: emakumeak, bereziki, hori sufritzen hasiak ditugu. Alogeren indekazioa bukatu nahi dute: ongi lan egingo duenak gehiago irabaziko du, eta enpresetan juzgatu behar zaizkio merituenak. Enplegua oso malgua nahi dute, eta soldatak nahiz lan-orduak edo -kondizioak enpresetan konponduko dira. Hau da, sindikatuak desagertuko dira, eta haien ordez "kalitate-zirkulu"en sistema hedatuko da, enpresaren barne-komunikazioa eta enpresaren interesekin identifikatzea azkartuko direlarik.

Lege sozialak eta fiskalitatea "ororen onura"rentzat lan egiten duten enpresen alde ezarri behar dira. Aberastasun-sortzaile, enplegu-ekarle eta krisiaren irtenbidea diren kapitalistek zerbait merezi dute. Eta Estatuak onartu dute hau, berdin eskuineko gobernuekin edota sozialistak boterean direnean. Oro har, kapitalaren karga sozialak murrizten ari dira; Segurantzaren Sozialaren aurkako ofentsiba betean gaude; erretiroak ez dira gehiago segurtatu nahi; enpresetarako subentzio zuzenak eta zeharkakoak biderkatzen dira.

Eta komunikabide modernoek salbatzaile berrien argazkia erakusten eta gorensten dute: Tapie Frantzian, Agnelli Italian, Berlusconi nonahi, De Benedetti Belgikan, gizarte-fenomeno bihurtu dira.

Ondorio politiko ugari dakar ideologia honek. Reagan eta Thatcher ditugu ordezkari publiko handienak, baina ikaslerik anitz dute.

Nazioarteko politikan, "komunismoari gerra!" dute ozenki proklamatu; militarismoa goraiatzen dute, eta gerra txikietan bu-

ru-belarri sartzen dira, ohore eta akordio nazionalen bila. Granada eta Maldibak adibide.

Barne-politikan, lege sozialen aurkako ofentsibaz gain, borroka aski iraunkorrek egingo dituzte moralaren izenean (aborturako eskubidearen aurka, adibidez) edo nazionalismoaren alde (pazifisten aurka). Terrorismoaren kontrako borroka estakuru dela, eta miseriak eta hirigintza aldrebesak sortutako segurtasun-falta dela medio, errepresiorako botereak eta ahalak biderkatuko dituzte. Frantzia eta Britainia Haundian, 1982tik ederki emendatu dira botere poliziakoak; terrorismoaren aurka, 1987ko maiatzean Parisen izandako nazioarteko bilkurak uholde batek bezala eraman ditu giza eskubideek eta errefuxiatuen eskubide tradizionalak ezartzen zituzten azken oztopoak.

Eta, krisitik ateratzeko bide modernoek bila krisiari buruzko ikuspegi liberala onartua izan da intelektual ezkertiarren artean. Dena idazkietan geldituko balitz, Daniell Bell-en *Kapitalismoaren kontradikzio kulturalak* liburuaz izkiriatzera mugatuko balira, urrikalmenduz begira genitzake intelektual modernoak. Baina masa-komunikabideek ematen dieten jokoaz baliatuz, errepresioa dute justifikatzen, neokontserbadurismoaren alderdi errepresiboak osotasun baten parte erauzezinak direlako.

### Marxismoaren krisia

Badirudi, halere, jarrera intelektual moderno askoren oinarrian marxismoaren krisiak utzi duela liberalismoak bete nahi duen zuloa. Eta krisi hori aipatu gabe, ezin buka nezake lehen parte hau.

Marxismoa eremu askotan sartua dago, eta, gaur egun, dagoena interpretatzeko marxismoa erabiltzen dugu nonnahi, eta ez soilki ezkertiarrek, baita historian, ekonomian, politikan eta (zergatik ez?) soziologian lan egiten duten gehienek. Hemen, indartsu eta joria agertzen zaigu.

Beste gauza bat da, marxismoa iraultza egiteko proiektuari lotzen zaionean. Sozialismo errearen kritikak agerian utzi ditu marxismoaren alde autoritario-totalitarioak. Eta baietzapen batzuk kolokan ezarri ditu oraingo egoerak. Proletalgora, enplegua duenean, Hirugarren Munduaren zanpatzaile eta marjinetuen kontrako errepresioaren eskale agertzen da usu. Denbora berean, zibernetikaren eta ordenadoreen garaian, nekez esan daiteke pro-



dukzioa, proletalgoak kontrolatzen duela eta nagusiak parasito sozialak besterik ez direla.

Bestalde, krisiak eta ekologi politikak (elkarrekin eta bide desberdinetatik) zeharo aldatu dute XIX. mendeko ideologia progresistek (marxismoa barne) natura ahituezinaz zuten irudia. Nola-bait, humanitateak krisian eta urritasunean bizi beharko duela beraganatu du jende askok. Eta, laburki esan, humanitatearen garapenak nahitaez ekarri behar duen gizarte zoriontsuan inor gutxi du sinesten. Utopian ez sinesteak esplikatzan du ezkerren krisia; problema nagusia, iraultzaile askorentzat, ez da jadanik iraultzaren inmediateutasuna, baizik eta datorkigun teknofaxismoari aurre egitea. Baina ezkerren parte handienarentzat, dagoenarekin errealistikoki bizitzea da razionaltasunaren jomuga nagusia: tamalez.

## **Erakunde ezkertiarak ta mugimendu sozialak gaur**

### **Sozialistak**

Sozialistekin hasiate kontzesio bat da, tradizioari egiten zaion makurketa; baina ez du zentzu handirik. Alemanak hasi ziren Bad Godesberg-en; PSOEk abandonatu zuen marxismoa 1979ko XXVIII. Kongresuan: azken finean, sozialismoaren edukinak ez du zerikusi handirik utopia iraultzailearekin.

Baina sozialismoak boterean erakutsitako errealismoak harreman estuak ditu lehen partean aipatu dugu neoliberalismoarekin. Sozialismoak eskuinarekiko gorde nahi duen diferentzia oso mehea da: ezer gutxi makroekonomiaren gestioaz (adibidez, enpresei emandako laguntzak inbertsiora bideratzea azpimarratzen dute, beste zerbait handiagorik gabe); ia berdina dira ordenu publikoaz (Alemania, Frantzia, eta Espainia lekuko); eta, nonbait, gehiengo bakezalearen eskubide demokratikoen begiratzera eta miseria arintzeko laguntza publikoak banatzera mugatzen da eskuinarekiko berezitasuna.

Beharbada, PSOEn eboluzioa alde batera utzirik, sozialista frantsesena dugu esanahitsuena. 1981ean bere 110 proposamenak egin zituen Mitterrand lehendakariak, Frantziako marjinatu eta

erreboltatu guztiak promesa horien inguruan biltzeko borondatearekin; nolabait, desafioa egin zion eskuinari. Orain, 1988ko hauteskundeetarako PS-k onartutako programa, guztiz *soft* da, aipatu ditugun zedarrri errealisten artean mugatu-mugatua. Merkatu-ekonomia guztiz onartzen du, eta deus ez dutenentzat aloger minimo garantizatu baten sortzea du pundu "sozialista" nagusia.

Egia esan, sozial-demokrazia ez zegoen 1968an iraultzaileen erreferentzien artean. Ezta orain ere. Pasa gaitezen beste puntu batera.

### **Eurokomunismoa**

Partidu Komunistak besterik dira. Goxistentzat, era oso dialektiko batez, errebutlsibo eta erakargarri ziren: sozialismo errealtaren tradizioa eta historia zeukaten, eta, une berean, masetan eta gizartean zuten inplantazioa ez zutela iraultza egiteko erabiltzen leporatzen zitzairen. Goxista askok "entrismoa" egingo du, hau da, PCek zuzenduriko masa-erakundeetan sartu, bai militanteen bila, bai masak zeuden lekuetara egia eramateko. Geroztik, denbora pasa da. Alderdi komunistetan oso fenomeno esanahitsua gertatu da: Eurokomunismoa. Oraingo egoeran ondorio sakonak izan dituela pensatzen dut.

Eurokomunismoa Txekoslovakiaren inbasioarekin hasten da ontzen (1968); agerpen publikoa guztiz garbia da 1974ean. Espainian, Azcarate eta Carrillo ditugu eurokomunista nabarmenak; PC espainolaren krisia ezaguna da, eta, barnetik ikusita, errusoen Afghanistan-eko interbentzioak izan zuen munta azpimarra daiteke. Frantzian, Jean Kanapa izan da tendentzia honen aitzindaria; arrazoi aski berezi eta frantsesengatik (sozialistekiko haustura zela medio), 1978tik aurrera ahuldu egin da PCFren edukin eurokomunista; gaur egun, etengabeko indargaltzean amildua dago. Italian, berriz, PCIk garrantzi handia du (% 30a egiten du hauteskundeetan); Berlinguer-en inguruan hasitako mugimenduak bizkor dirau, eta *Euroezkerra* osatzeko deia du momentuko aportazio originalena ("Euroezkerra", hain zuzen, neoliberalismoaren ofentsibaren aurka Europako komunistak eta sozialistak biltzeko inizatiba da).

Eurokomunismoa, sozialismo erreala kritikatzuz garatzen da: kritika honek, nere ustez, ezkerrean orain nagusia egiten ari den sentsibilitate etiko-demokratikoari zabaltzen dizkio atek. Baina sentsibilitate honen ahulezia estrategikoak ere berarekin dakartza.

Sozialismo errearen kritika, Soviet Batasunari buruz egiten da bereziki. Tradizionalki, alderdi komunistentzat SESB izan da iraultzaren modelo historiko-estrategikoa eta, aldi berean, oraingo munduko mugimendu iraultzailearen zentrua. Eurokomunistek, eta italianoek bereziki, esperientzia historiko iragan gisa kontsideratzen dute Errusiako iraultza, orain aplikaezin gisa; gainera, iraultza egiteko bideak originalak, independenteak direla diote, inongo zentzuren esistentzia ukatuz.

Bestalde (eta hau da, nere ustez, gehien interesatzen zaigun alderdi teorikoa), libertate "formal" en goraipamena egiten dute. Kontzepzio sobietikoan, egiazko libertateak egunerokotasun ekonomiko-sozialaren esparruan dautza, lana, osasuna, egoitza eta aisia denei segurtatzeko; alderdi politikoak libreki lantzeko libertateak, espresio-libertateak, eta antzekoak oro, egiazko egoera zantpatzailea ezkatatzeko kapitalismoaren iruzurrak dira.

Eurokomunistek beste ikuspegi bat dute. Europan lortu diren libertate "formal" horiek ez dira batere kapitalismoaren engainuak; alderantziz, tradizio humanista eta askatasunzale baten ondorio joriak dira, eta, usu, odolez eta borroka lortuak. Libertate horiek gure ondore askatzailearen parte erauztezina dira eta horiek gabe ez da iraultzarik izanen.

Beraz, sozialista eta pluralista behar du izan nahi den gizarteak, eta, hara heltzeko, oraingo demokraziaren sakontze-prozesu bat eraman behar da.

Gainera, diote, oraingo neokontserbadurismoaren ofentsibaren aurrean, borroka-leku nagusia libertate horien defentsaren inguruan kokatuko da. Beren hitzak erabiliz,

"gaur egun, sozialismoaren aldeko borroka hartzen duen edukin nagusia da demokrazia eta libertate indibidual nahiz kolektiboaren defentsa".

Eta formulazio honek sortzen du problemarik. Sorburu desberdinak ditu marxismo iraultzaileak, baina historiak sortutako kondizio ekonomikoen gainean zekusan langileen iraultza; ekonomia zegoen oinarrian, eta jabegoaren problemaren inguruan zebilen gizarte-borroka. Ikuspegi eurokomunista, berriz, XVIII eta XIX. mendeetako iraultza burges-demokratikoaren segidan datzala esan daiteke. Dударik gabe, aktualitate handia du, libertateen tradizioak landutako balioen defentsa gai delako herrien parte zabal eta sanoak mugitzeko, (ikasleen 1987ko mugimendua dugu

adibide bat); baina utopia komunistak irudikaturiko etorkizunarekin nekez ikusten zaio harreman zuzenik. Hori da, azken finean, eurokomunismoaren ahulezia nabariarena: proposatzen dituen jarrekerik eta borroka-moduak nola ekar dezaketen oraindik inbokatzen den gizarte komunista berria. Baina, benturaz, errepliegeko denboretan ez da sobera eskatu behar...

Komunistei buruz, beti Mosku-rekin ados direnak aipatu behar dira; gure ondoan, portugesak ditugu. Ez dakit gure etxean bertan horrelako partidu bat ez den laster ageriko. Gisa guztiz, lehen partean Soviet Batasunaren inguruko mugimendu zabalak ikertu dugunez, ez gara hara itzuliko.

### Adio Txinari

Goxisten azterketan sartu aitzin, Txinaz dugu mintzatu beharra. Europako goxismoak ez zuen mugimendu marjinal izan nahi; are gutxiago komunismo ortodoxoaren kontzientzia iraultzaile soil. Bere eginkizuna kontestu orokor batean zekusan, munduan hedatzen ari zen iraultzaren barnean, hain zuzen. PC ortodoxoak, eurokomunismoa eta Soviet Batasuna bera erreformistatzat salatuko zituzten erreferentzia doktrinal eta estrategikoak behar zituen, mugimendu iraultzailearen borondate unibertsalaren esparruan mantentzeko. Bi izan dira erreferentzia nagusiak: Txina eta maismoa, alde batetik, eta bestetik, iraultza komunistarako "hirugarren bidea", Kubak, Vietnam-ek eta Ipar Koreak osatzen zutena.

Azken erreferentzia honek gutxi iraun zuen, batez ere Soviet Batasunak Kuban eta Vietnam-en izan zuen eragin guztiz handiaren ondorioz. Ez gara horretaz tematuko. Che Guevararen figura handia gelditu zaigu, eta Régis Debray-k idatzitako *Révolution dans la révolution* liburuaren munta azpimarragarria. Baina Fidel Castrok bere etorri sutsuaz Txekosloveniaren inbasioa goraiatu zuenetik (Kubako esperientziak dituen nabardurak ahaztu gabe), komunismo sobietarraren eraginpean kontsideratu behar da jokaera hau.

Hala eta guztiz ere, askoz handiago eta iraunkorrago izan da Europan maismoaren eragina; Jean Paul Sartre, kalean *La Cause du Peuple* saltzen ari, belaunaldi baten sinbolo ikusgarritzat gelditu zaigu. Gogora dezagun maismoak ekarri nahi zuena.

1963-1964ean hasten da zisma. Txina Soviet Batasunaren erre-bisionismoa kritikatzten hasten da, eta 1969an borroka armatua pizten da bi erraldoi komunisten arteko mugetan. Txinatarrak oso gogorrek dira; haientzat, gauza bera dira Tito, Krushev eta Togliatti: gehien kondenatzen dutena, edozein koexistentzia edo trantsizio bakezkoren ideia da. Nazioartean Soviet Batasunak duen jarrera, hala nola Mendebaldeko demokrazietan ortodoxoek (eta eurokomunistek gero) defendatuko duten bortizkeriarik gabeko estrategia, traiziotzat salatzen dute. Gerran gara, eta, iraultza bortitzik gabe, borroka armaturik gabe, ez da garaipenik lortuko, diote. Laster, bi ondorio doktrinal nagusi aterako dituzte. Bata, Soviet Batasuna ez dela gehiago estatu sozialista, superpotentzia erasotzaile eta arriskutsua baizik. Bigarrena, gehien hunkitu gintuena, iraultza Hirugarren Munduko herri zapalduetan ari dela egiten (Asian, Afrikan eta Latin Amerikan) nazio-askapenerako borrokek Mendebaldeko erresuma aberatsetakoak baino askoz garrantzitsuagoak zirela zioskuten.

Maoismoak denetarako erantzuna zuen, erantzun alternatiboa nahi bada. Goxista asko ibili zen horretaz liluraturik, eta Txinak bere aldakuntza handia egin duenean, erreferentzia orokorra zeharo galdu da. Ez da hau izan goxismoaren krisiaren arrazoi nagusia, horrelako mugimenduak ez bait dira inoiz Pekin-ek telegidaturik egon. Baina erreferentzia galtze hau krisi orokorraren parte bat da.

1978an abiatzen da prozesua, Deng-Xiao-Ping eta Hua-Guo-feng-en gidaritzapean. 1980an gertatuko da "Lauren Banda"ren prozesua eta 1981ean Iraultza Kulturalaren kritika zorrotza.

Txinak Lau Modernizazioen politika onartuko du (Nekazaritza, Industrian, Defentsan eta Zientzietan); mendebaldeko teknologia eta bizimoduetara irekiko da, eta "perestroika" baino lehenagoko esperientzia sozialista erreformistez interesatuko (Jugoslavia eta Hungaria, adibidez).

Nazioarteko politikan ere, nabariak izango dira aldakuntzak. Iraultza ideologiko mundiala baztertu, eta Pekin-ek garai batean eredu iraultzaile alternatiboaren erreferentzia izateko aurkeztu zuen gutizia, esplizituki kondenatuko da, Lin-Piao-ren desmasia bezala.

Azkenean, Txinak politika nazional hutsa eramango du: Errusiarekin dituen problemak (Ussuri-ko mugan, hala nola Vietnam

eta Kambodia-ren arteko auzia) ez dira gehiago iraultza mundialen esparruan aurkeztuko, eta, oro har, Pekin oso diskretu egingo da talde gerrilariak eta iraultzaileak laguntzeko.

Noski, honek ez du esan nahi maoismo iraultzailea leku guztietatik desagertu denik: Peru-ko egoera bizi-bizia dugu orain. Baina Europan, nabaria da maoisten desagertzea edo noraeza.

Albania gelditu da itsas argi bakar eta apur. 1978tik landa, gogor kritikatu du txinatarren desbiderapena; mundua, orain, bi superpotentzien eta «oportunista berri»en artean banatzen da (oportunista horiek, txinatarrak dira), eta denen kontrako borrokan segitu nahi du.

Horiek horrela, 1977an bildu ziren Tirana-n Alemania, Grezia, Italia, Espainia eta Portugal-eko marxista-leninista batzuk, denen artean jarrerak eta estrategia iraultzailea ontzeko. Biharamunik ez dute izan.

### Goxismoa maldan behera

Halere goxismoaren krisia bere barnetik begiratu eta ulertu behar dela pentsatzen dut. 1968ko hogeigarren urteurrenarekin, testigantzak eta liburuak biderkatzen ari dira; Dany Cohn-Bendit-en liburuaren berri (*Nous l'avons tant aimée, la Révolution*) eman nuen Larrun aldizkariaren laugarren zenbakian; orain, goxismoaren historia egin nahi duten Hervé Hamon eta Patrick Rotman-ek beren sagaren bigarren tomoa argitara dute, 1975ean bururaten delarik (lehena, *Les années de rêve*; oraingoa, *Les années de poudre*). Fenomenoaren ikerketa osoa oraindik egiteke dago, eta egile hauek inportantzia sobera ematen diote, nere ustez, "Gauche prolétarienne" maoistari. Egia esan, ezker muturrak badirau; Frantziar troskistak ditugu orain eta beti presente (Alain Krivine eta Arlette Laguiller, beren taldeekin, "Ligue Communiste" eta "Lutte Ouvrière", marjinalak bai, baina nekaezinak); Italian ere mugimendua ez da eten. Baina fenomeno guztiz iragana da 1968ko goxismoak egunerokotasunean, kulturen eta eritzi publikoan izan duen eragina. Ez dira haboro gizarte-alternatiba orokor, egikor eta berehalako gisa aurkezten ahal.

Krisiaz mintzatu beharra dago. Eta krisi honetan, hiru maila bereiziko nituzke.

## Psikoanalisi?

Protagonista askorentzat, orain antitotalitarismora konbertiturik, eta komunikabideetan beti presente, urte haietako militantzia arazo guztiz indibidualekin nahasten da. Lacan eta modako psikologiak aipatuz, ezetz esateko sentimenduan aurkitzen dute portaearen giltzarria; ondorioz, funtzionatzen zuen guztia gorrotatzen zuten (eskola, enpresa, gizartea), eta kontragizarte alternatiboa sortzeko ahaleginak heldutasun- eta errealismo-falta gisa konprenitzen dituzte gaur egun.

Baina herria ez zegoen prest leherterazi nahi zuten gerra zibilean sartzeko. Desioak eta errealtatea oso urrun zeuden. Eta, hutesgitearen aurrean, beren buruak erruduntzat jo zituzten lehen une batez: ezetza eta gorrotoa norberaren kontra itzuli ziren, "jarrera burgesak" alderdien barnean bilatzeko sektarismo itsuean eroriz.

Orain, adinari esker agian, helduak dira eta badute lasaitasun, demokraziaren eta indibiduoaren eskubideak era arrazionalerik defendatzeko. Hoberenak, sozialistak dira...

Baina azalpen honek ez gaitu oso urrun eramango. Beharbada, sistemarekin kolaboratzea hautatu duten protagonistentzat, psikologiak esplikazio-eremu neutroa eskaintzen du, amoremate politikoaren zurtzaile... Bego horretan.

## Militantismoaren kritika

Bigarren ikerlerro bat saiatu behar dugu, mesianismo iraultzaileak dakarren militantismo-motaren analisisa ginez.

Militantismoaren kritika alde askotatik egin da. Dudarik gabe, organizazioetan aurkezten da *boterearen arazoa*; botereak dakarren autoritarismoaren beldurrez, beti izan da iraultzaren esparruan jarrera antiautoritario bat; baina Estatuaren botere errepresiboa kontutan harturik, erakunde gogor, zentralizatu eta ongi diziplinatuen egitea izan da jarrera nagusia. Gerra zibilerako antolatzen ari zirentzat, berez zetorren bigarren jarrera hau. Baina 1968tik sortutako mugimenduak norberaren libertatea eta egunerokotasunaren garrantzia azpimarratzen zituen. Kontradikzioak laster ageriko dira.

Ideologia handien izenean eratzen ziren alderdi edo talde diziplinatuetan, oinarrizko militanteei gauza aski gogorak eskatzen zitzaizkien. Helburu eta azalpen handienekiko konfidantza itsua, fede batekin uztartzen zen; zekitenei eta zihardutenei, obediencia zor zitzaien; militanteen sakrifizioak autozentsura handia zekarren, sentitzen zena edo konprenitzen ez zena isiltzeko, beti linearen segidan mantentzeko; militantismoarekin liskarrean ageri ziren arazo pertsonalen desbalarizazio sistematikoraino heldu behar zen. Hitz batez, helburu handien aurrean egunerokotasuna sakrifikatu egiten zen, eta ahaztu arazo pertsonal edo partzialak.

Boterean zeudenek ezin iraun eraz ziezaioketen horretarako beharrezkoa den mistikari. Iraultzaren garaipenaren zain egon gabe, jarrerak orain aldatu behar direla pentsatzen zutenekin, liskarretan hasi ziren, biharamunaren izenean arestiko zanpaketak zirauela salatzen zutenean; feministekin, Italian partikulariki, gogorak izan ziren istiluak.

Lehen esan dudanez, hau guztiau gertatzen ari zen goxismoaren ondoan gizarte-mugimenduak hedatzen ari zirenean. Mugimendu horien balioak militarismo-militantismoaren kontrakoak ziren: antiautoritarismo zuzena, burokratismoaren kritika, zorion konbibialaren bilaketa, pertsonak ideologiaren aldarean sakrifika-tzearen ukapena, baloratzen zituzten bereziki. Mugimendu hauen ikerketa zuzenagoa egingo dugu gero; baina esan dezadan bertotik, organizazio leninisten eta mugimendu horien arteko muga amankomunetan hasi zela, hain zuen, militantismoaren kritika.

Frantzian, adibidez, 1973an hasi zen desegiten "Gauche Prolétarienne", feminismoaren inguruko liskarrek gogor ukiturik, besteak beste. 1975eko urrian, askoren biblia izan zen *Actuel* aldizkaria hil egin zen. Epoka bat bukatzen hasia zen.

Egia esan herriarengan lortutako oihartzun eskasarekin biltzen zen ondotik etorritako eraso antiautoritarioa. Oro har, nekez mantent daiteke konfidantza garaipenik lortzen ez denean; zanpatauk oro talde militanteekin lotu ezinak desmoralizatu zuen jende asko.

### **Gizartea eskuinera**

Eta, dagoeneko 1973an hasia zen eta 1980a arte irauten duen militantziaren krisi honetan, gizartearen egoeran datza, ziur aski,



azalpen nagusia. Aburu psikologikoak, hala nola boterearen logikarekin kontrajartzen diren egunerokotasunaren errebindikazioak, kontestu ekonomiko-sozialean behar dira ulertu.

Ez da hau krisiaren historia egiteko lekua, edota Europako Mendebaldean iraultza egiteko ikusten den ezgaitasun historikoaz mintzatzeko (1945etik landakoaz ari naiz). Baina goxistek egindako analisisen ahuleziak ikertu behar ditugu.

Gizartearen faxistizazioa gaizki interpretatu zuten. Egia da gobernuak eskuinera jotzen dutela, oinarrizko libertateen ukatzera doazela; poliziaren basakeria instalatzen da, lege bereziak biderkatzen eta egiazko demokraziaren esparrua murrizten. Baina eboluzio hau gehiengo isilaren oneritzi pasiboarekin ari da egiten, eta alderdi errepresentatibo gehienen bedeinkazio aktiboarekin. Kriminalizazioa, hitz batez, militante, marjinatu eta etsaiei dagokie, 1981ean Londres-en prozesu honi buruz egindako nazioarteko batzarrean Padova-ko militanteek salatzen zuten bez:

“indarreko araudien edozein ukapen, indibidual nahiz kolektibo, hala nola etsaigoaren edozein azalpen, subertsibotzat inkulpatzera doaz”.

Eta hau egia izanik, lege eta errepresio berezien praktika ederki ari da koexistitzen leialentzako demokrazia bigunarekin. Subertsioaren kontrako harresi gisa ari da faxismo demokratiko hau.

Herria suspertzeko, zerbitzeko eta enkuadratzeko minorien gaitasuna hiperbaloratu zuten. Egia da egoera historikoak gauzak aldatzen dituela; Kubako esperientzia oso hurbila zen oraindik, eta leninismoa fedezko egiazat onartzen zuen askok; are gehiago, Hirugarren Munduko esperientzia gotor eta irabazleen aurrean, optimismo estrategiko mundial batek markatu zuen Vietnam-eko belaunaldia. Genuen optimismoa denborak apaldu digu, eta, perspektiba historikoaz ikusirik, analisiak sobera ideologiko eta mimetikoak zirela esan daiteke, lekuan lekuko egiazko egoera kalteko ikusten bait zen.

### **Borroka armatua**

Masak mobilizatzeko esperantza ahultzen ari zenean, borroka armatuaren arazoa bizi-bizia aurkeztu zitzaion goxismoari. Praktika honetan ziharduten jadanik Alemanian eta Italian, bereziki; arazoa (politiko eta, une berean, etikoa) hauxe zen: kaleak ez badu

iraultza egiten, gelditu egin behar da, ala klandestinitatea eta biolentzia hutsa hautatu? Arazo latza, erantzun asko ukan duena.

Haren ikertzeko, nazio zapalduen (Irlanda, Korsika eta Euskadi) borroka alde batera utziko dut. Zerikusi handia dute, halere, gure herri hautetako esperientziek borroka "sozial" hutsean dihardutenen problemekin, eta guztiz faltsutzak jotzen dut batzuek bien artean zulatu nahi izan duten iraganezinezko arroila; baina esposizioaren hariari jarraituz, borroka sozial "huts"ean ibiliko gara.

Mugimendu armatuen historia eta eboluzioa ezberdina da estatutik estatura. Laburtuz, zera esan genezake:

Alemanian eta inguruan garatua, oso internazionalista izan dugu. Esparru honetan, sar ditzakegu, diferentziak ahaztu gabe, RAF alemana, goxismo japoniarra, CCC Belgikan eta Action Directe Frantzian. USA eta Israel-en aurka gogor kolpatu dute, inperialismoa ahuldu nahirik. Nolabait ere, gerra antiinperialistaren barnean sartzen ziren, Hirugarren Munduaren lehentasun iraultzailearen zerbitzutan. Ikuspegi eta estrategia hauen leku historikoa aipatu dugu dagoeneko. Belgikan, Alemanian eta Frantzian oso isolatuak gelditu dira, herriarekin lotu gabe. Ekialde Ertaineko estatu eta mugimenduekiko lotura estakurutzat harturik, estrategia antiterrorista gogor bat bultzatu dute Europako Estatuak eta USAk, talde armatu hauen eginkizuna terrorismo internazionalak telegidatua zela baieztatuz.

Guztiz bestelakoa da Italiako kasua. Faxismo armatu eta militanteak bizirik dirau Penintsulan, estatuaren aparatuan konplizitate handia izanik. Honek motibatzen zituen militanteak armatzera. Hein batean, faxismoaren eta nazien kontrako erresistentziaren izpirituak eman die jarraipen historikoaren esanahia 1971n hasi ziren Brigatte Rosse-ek. Honez gain, 1968tik landa izandako "maiatz luzatu"an, oso esperientzia gogor eta herrikoiak burutu zituzten langileek, ikasleek eta beste askok, kapitalaren eta estatuaren aurka mugimendu zabal eta aktibista bat suspertuz. Oro har, borroken esparru popularrarekin oso lotua egon da Italiako borroka armatua; momentu bizienetan, 10.000 aktibista ukan duela baieztatzen da. Haien artean, bi lerro nagusi. Batek *Brigada Gorrak* taldeak hain zuzen, Estatuaren kontrako borroka zuzena azpimarratu zuen, talde hierarkizatu eta guztiz sekretu batek eramana; Aldo Moro garbitzeraino heldu ziren; horien artean, Rena-

to Curcio eta Mario Moretti. Bigarren jarrera bat, *Autonomia*-rena dugu: borroka armatuaren eginkizuna gatazka sozialak erradikal-tzea zen, herriaren protagonismoa nolabait indartzeko. Taldeak eta izenak ezagunak dira: Prima Linea, Oreste Scalzone, Franco Piperno, eta boterea kriminalizatu duten intelektualen artean Toni Negri. Esan gabe doa, bi jarrera horien kontrajarrerak Euskadin ETA eta Autonomoen artean izandako eztabaida gogoratzen digula.

*Frantzian*, "Action Directe" aparte, eta 1970ean "Nouvelle Résistance Populaire" egiteko biharamunik gabeko saioa memoriara-ko soilki aipatuz, ez da borroka armaturik garatu.

Baina artikulua honetan ikertu behar dena mugimendu horien krisia da, hau baita da orain aktuala... Eta Frantziatik hasi beharko.

### Errefus etikoa

Frantzian, hain zuzen, mugimendu goxista zabala zegoen, eta ondorio armaturik gabe gelditu da. Jende anitzek eman du honen azalpena; Alain Geismar-ek oso hurbilik ezagutu zuen momentua, eta, beste askok bezala, esplikazio etikoari ematen dio lehentasuna. Dagoeneko 1969an, porrot egin zuen Japonian goxismo armatuak; mendietan militanteen artean izandako masakre sektarioek kalte handia egin zioten borrokaren irudiari. Israel-en kontrako lehen atentatu indiskriminatuek biktima errugabeen arazoa aurkeztu zuten. Frantzian, dioskutenez, nagusia izan zen intelektual iraultzaileen eragina: borroka armatu klandestinoak terrorismoa, indiskriminazioa eta sektarismoa ekarriko zituzkeen; iraultzari mesederik egin gabe, estatuaren errepresio-legitimitatea azkartuko zukeen; hobe zela ez hastea. Halere, Europan, mugimendu armatuen krisia, 1980 inguruan trenkatuko da. Dudarik gabe herriarekin lotu ezina da arazo nagusia: ingurune internazionalaren bilakabidea, gerrarako deiak bide-bazterrean uzten zituena, kontrako faktorea izan da. Baina, nere ustez, estatuen gogorkeria eta militanteen krisi etiko propioa barnatu behar ditugu.

### Errepresio basa

Errepresioaren aldetik, *kriminalizazioa* da giltzarria. Hasieran, borroka armatuen edukin politikoa ukatu dute, hura terrorismo

itsuaren esparruan sartzeko. Gero, haien giza eskubideak ez direla gehiago errespetatu behar onarterazi dute. Bukatzeko, borroka hauen aldeko edozein jarrera solidario, praktiko nahiz intelektual, kriminalizatu dute.

Hiru heinetan sailkatzen da jarrera hau. Lehena, militanteen kontrakoa da: preso politikoen estatutua ukatuz, prozesu bereziak sufrieraziz, tortura justifikatuz eta esterminio-gartzelak eraikiz.

Bigarrena, militanteei laguntza humanitario edo profesionala ematen dietenen kontrakoa: Croissant abogatuaren estradizioarekin hasi zenak jarraitu du, emendatuz jarraitu ere (Action Directe-ren kontrako auzian ikusi den espektakulu lotsagarria bera gertatu da Ipar Euskadin, errefuxiatuak etxean gordetzen zituztenen kontrako errepresio basatia lehertu denean).

Azkena, biolentzia iraultzailea justifikatzen edo kondenatu gabe esplikatzeko duten intelektualak gupida gabe pertsegitzea: eskandalagarria izan zen Toni Negri-ren kasua. (Eta gauzak ez dira horretan gelditu; idazten ari naizenean, Action Directe-ko militanteek 80. eguna daramate gose-greban. Inor gutxiq esan du ezer haien alde; eta esaten dutenek, humanismoaren izenean mintzo, metodoak eta ideologia kondenatzen dituztela azpimarratzen dute, badaezpada ere. Horregatik, Heri Lefebvre-k idatzi duena erreplikatu nahi dut, filosofo ausart honi omenaldi gisa:

“Les protestations contre les traitements infligés aux membres d’Action Directe ne sont pas à la hauteur des circonstances. En tant qu’intellectuels marxistes et révolutionnaires, nous ne pouvons pas nous empêcher d’entrer en sympathie avec l’idéologie et les actes des militants aujourd’hui torturés par l’institution judiciaire et l’Etat français. Nous jugeons moins abject d’avoir attenté à la vie de grands trafiquants comme le général Audran, ou des briseurs de grève comme Georges Besse, que d’infliger à des citoyens français la désormais fameuse “torture blanche” (...) Nous ajoutons, afin de prendre toutes nos responsabilités, que les membres d’Action Directe et leur mouvance font partie, qu’on le veuille ou non, d’un courant d’opinion qui agit au nom d’une société communiste future et que nous appartenons à ce courant, même s’il n’a rien d’homogène. C’est pourquoi nous préférons être considérés comme les complices objectifs des terroristes d’Action Directe plutôt que nous retrouver, par notre silence, du côté des oppresseurs”.

Jarrera hau oso minoritarioa da ezkerreko intelektualen artean. Gero ikusiko dugunez, intelektual “moderno”ek Action Directe kondenatzen dutenean, *démodée* delako egiten dute, modaz kan-

poko, itxuraz itsusi... Bonben esparru ilunetik ordenadoreen pantaila distiratsura eraman nahi dute borroka, doktrinek komunikazioari uzten diotelarik lehentasuna.

Bistan da errepresioak kontsentsu sozial zabala lortu duela, ezkerraren parte handienaren oneritziarekin. Baina konprenitu beharra dago militanteen baitan izandako kritika, nekea, gauzak beste modu batez ikusi nahia. Italian gertatu dira fenomeno esanahitsuenak.

### Damutuak eta apartatuak

Borroka armatuaz aski izan dutenen artean, batzuek salaketa eta traizioaren bidea hautatu zuten, lagunak salduz, estatuak tratu berezia eman diezaien. Beste asko, berriz, ez dira "damutu", baizik "disoziatu": esan nahi bait da, damutu eta salatzen hasi gabe, talde eta praktika armatuetatik bereizi nahi izan dute, kritika politiko baten ondorioz.

Damutze salagarriaren fenomenoan bi parte daude: mugimenduaren krisia eta estatuaren maniobrak. Bereiztearen funtsean, berriz, krisiaren edukin politikoak hartzen du lehentasuna. Bigarren atal hau barnatuko dugu.

Fenomenoa 1977tik aurrera arintzen da. Errepresioa eta klandestinitatea zirela medio, borrokak itxura berezia hartzen du: lehen, herriaren eta zapaltzaileen arteko liskarraren ispilu izan nahi zuen; gero eta gehiago, talde armatuaren eta aparatu errepresiboaren arteko gatazka hertsia eta pribatu bilakatzen da.

"Prima Linea"n kritika gogorak agertzen dira. Militarismoak hartu du militantismoaren lekua; edozein armada zapaltzailetan baloratzen diren astakeriak (hala nola, diziplina itsua, desertoreak fusilatzeko exigentzia, armen kultura, ...), balio iraultzaile gisa irensterazi nahi dira. Azken finean, arma eskuratzeko logika totalitarioa dakar, bizitzaren gainean ematen duen botere hordigarriari lotua.

1980an agertzen da "Komunismoaren alde" deitu manifestua. Borroka armatua uzteko deia hedatzen dute;

"Borroka armatua utz dezagun baldintza politiko eta juridikoak sortu behar dira; horretarako prest direnek pauso hori eman behar-

ko dute betiko klandestinitatean, heriotzean, gartzelan edo salaketan erori gaberik”.

Lehen kasu sonatuak hasten dira. Salaketen lotsa zabaltzen da, baina Valerio Morucci edo Adriana Faranda bezalako disoziatuen arazoa egiten da ezaguna.

1987an, hain zuzen, Curcio eta Moretti-k testu bat argitaratu dute. Egindakoaz ez dira damutzen, ez dituzte garai haietako ekin-tzak kondenatzen; baina oraingo Italaian borroka armatu iraultzailea aurrera eramateko girorik edo baldintza sozio-politikorik ez dagoela, diote. Estatuari ez diote barkamenik eskatzen, baina odolaren garai bururatzeko erabaki politiko batek errepresioaren zikloa itxi behar duela azpimarratzen dute.

Denetariko erantzunak jaso ditu jarrera honek. Haiekin “Manifesto” inguruko militante batzuk (hala nola, Rossana ROSAN-DA), eta ezker muturreko azken intelektualak daude; gartzeletan, irreduktibleek (Prospero Gallinari bezalakoek) traizio berria dute salatzen; politika instituzionalean diharduten gehienek, borroka armatua hasieratik eta betiko ukatu eta kritikatu gabeko errendizioa baizik ez dute nahi.

Gisa guztiz, borroka armatuari *barrutik* egindako kritikek praktika honen oraingo ahulezia erakusten digute.

### **Borroka armatua ingurune militanteari begira**

Beste kritika bat, bereziki Alemanian egin, hartu behar dugu orain kontutan. Ez dagokio barne-militanteari, baizik ingurueta mugimenduari. Labur esan, borroka armatuak disidentzia iraultzaile osoari egindako kalteez ari da ikuspegi hau: denen gainera ekarritako errepresioak libertate-esparruak mugatzen ditu, ekintza indiskriminatuek herriaren sinpatia aldentzen dute, eta, militante asko talde armatuaren zerbitzuan ezarritik, beste eginkizunak ahultzen dira.

Dany Cohn-Bendit-ek sona eman dio kritikari; 1981ean H.J. Boock, RAFeko militante ohiak *Spiegelen* egindako deklarazioek eman zioten abiada ikuspegi honi. Gainera dezadan, talde armatu klandestino itxiei egindako kritika hau bereganatu egin duela Europako Autonomo askok.

Polemika hau da, seguraski, ezker iraultzailearen jarraipenerako gehien interesatzen zaiguna. Esandako guztia aipatzeak luze

joko luke. Edukin politiko-teorikoaren barnean, unidimentsionalitate politikoaren arazoa arakatuko dugu.

Kritika honen arabera, talde klandestinoaren estrategiak estatuaren eta beraren arteko indar-erlazioa hartzen du kontutan bereziki; gainerako borroka guztien esanahia estrategia honen argitan ulertzen da, oinarri logistiko gisa edo ekintzen oihartzungileak bailiran. Hasieran, langileriaren edo masen ekintza autonomoak laguntzen saiatu ziren Europako talde armatu gehienak; emeki-emeki, gero eta gehiago desaxolatu ziren libertate-guneetan beren ekintzek izandako ondorioez, eta beren indar propioen arabera eta etsai poliziako-estatalaren puntu ahulenak hautatuz segitu zuten borroka osoa. Jarrera honek badu bere logika, taldearen iraupena eta sinesgarritasun militarari so; baina erakundeak sortu eta hedatu zituen oinarri sozialari dagokionean, isolamendura ziren abiatu.

Azken finean, disidentzia osoari begira, jarrera guztiz unilaterala hartu zuten. Laguntza eta solidaritatea eskatu ondoren, ez ziren axolatzen klandestinitatean bizi ez zirenen gaineko ekintza armatuen ondorioez.

Eta hau onargarria litzateke, minoria klandestinoen efikazia konparatiboa nabaria balitz. Oraingo European, ez dago batere argi mugimendu armatuék besteek baino gehiago lor ote dezaketen.

### **Berdeak eta erradikalak**

Kritika hau egiterakoan, Alemaniako Berdeek edo Italiako Erradikalek herri-libertateak eta askatasun-esparruak (kontragizarte organizatu gisa, hain zuzen) zabalduko dituen jarrera bakezko-sinpatikoa zuten aldarrikatzen. Bi mugimenduok diferentek dira, baina batera ematen ditut, instituzioen barnean hartu nahi izan duten lekuagatik. Hauteskundeak eta baliabide administratiiboak erabiltzen dituzte; gizarteak faxismoa eta autoritarismoa onartzeko duen joera erasotzen dute biek; alemanek, bereziki, urrats handiak egin dituzte kontragizarte organizatua eratzeke.

Baina biok gelditu dira ondorioen heinean, kapitalismoa eta estatua suntsitzeko borroka zuzenetik aparte. Ezkerraren perspektibei begira, Italiako eurokomunismoaren eboluzioaren ondoan daudela uste dut, eta azken partean itzuliko gara honen aipatzera.

## Mugimendu sozialak eta beren zilborra

Autonomoen kritikak gizarte-mugimenduetan ezartzen zuen esperantza handiena. Feministak, ekologistak, pazifistak garai batean, ikasleak, antirrazismoa gero; herri-asanbladak, langileen autoeraketa, minoria nazional eta kulturalak beren gain hartzeko nahikundeak,... Esparru nahasia eta, une berean, zabala. Askoren ustez, burokratismoaren kontra eta modu konbibialez eratu nahi ziren mugimendu horien indar elkartuak ekarriko zuen iraultza.

Egun ez gara hain optimista. Mugimenduek irauten dute, baina ez dute gizarte osoa bereganatzeko eta aldatzeko indarrik erakusten; bakoitza bere txokoa eratuz doala dirudi, eta lehen aipatutako berdeen esperientziarekin parekatu beharko genituzke. Hitz batez, errepliege bat.

Eta honek badu bere zergatia. Mugimendu horien indarra eta ahulezia, beren originaltasunean datza; esan nahi bait da, taldearen barneko komunikazioa eta koherentzia indartuz, kanporako komunikazioa ahultzen dela denbora berean. Kategoría sozial baten berezitasunen gainean eraikitzen den mugimendua ezin daiteke (Anteo berpiztua), besteengana jotzeko, indar ematen dion lurretik bereiz. Edukin aurrerakoia duten mugimenduek kontra egiten diote gizartea berdindu nahi duen teknofaxismoari, baina ez dira gauza sistema osoari alternatiba eskaintzeko. Oro har, asko mugatu da iraultzarako berpiztu zuten esperantza, erresistentziaren mailara pasa delarik.

Banan-banan aipatuko ditugu esanahitsuenak, estrategia iraultzailearekin dituzten harremanak agerian ezarriz (ahal den heinean, bederen).

### Ekologia politikoa

Gaur, ingurugiroan dabil, batez ere; 1977an ehun mila pertsona bildu ziren, Malville-n, gizartea aldatzeko borondatearekin. Momentu batez, alternatiba osoa eskatzeko gauza zen. Etengabeko hedapen ekonomikoa mantentzeko politika salatzen zuen, politika honek, naturari erasoz, giza harreman zapaltzaileak sortzen dituelako; espeziearen heriotza luzaroko ekarriz, autoritarismoa eta bosterea mantentzen ditu orain.

Ekologistek beste bizimodu bat planteatzen zuten (autogestioa, energi iturri egokiak, teknologia garden eta ez-autoritarioa,



federalismoa), aitzineko jarrera libertarioekin lotuz; horren gauzatzeko estrategia bat proposatzen zuten (kontzientziatzea, pazifismoa, bizimodu paraleloak): eta, oro har, emakumeen, herri zapalduen eta langileen borrokekin bat egiteko gaitasuna erakusten zuten.

Tamalez, sistemak inguratu du errebindikazio partzial anitz; kutsaduraren kontrako borroka soilak ihesbide bat eskaintzen dio krisian dagoen sistemari, batez ere oraingo joera kontutan harturik: industria itsusiak Hirugarren Mundura igorri, eta teknologia *soft*-ak metropolietan ezartzekoa, alegia. Intelektual moderno askok, hemen sor daitekeen bizitza sano-demokratikoaren banean, ekologiaren azaleko balioak barnatuko ditu, eta individualismoaren erasoak irentsiko dio azken edukin subertsiboa.

Afera ez da erraza.

#### Feminismoa

Feminismoak ere kritika orokorra planteatu zuen: patriarkalismoaren salaketa, prezeski. Gure gizarte zapaltzailean gainbalioztatzen diren iharduera anitzen iturburua, gizonak emakumeen gain egindako esplotazioan zekusan: boterea, adibidez, beti gizonezkoen eskuetan; militarismoa eta armada, esentziaz hain arrak; ideologia zapaltzaileak, juduen eta helenoen tradizio matxisten ondorioetan, natura mesprezatzen dutenak, razionalitate estu eta errepresiboaren sortzaileak, moral hierarkikoaren gordailuak.

Emaztekien proiektuak gizarte-aldakuntza sakona eskatzen zuen, naturaren erritmoen ondoan, hierarkia eta bortizkeria baztertuz. Oro har, lehen aipatutako helburu ekologiko-libertarioaren inguruan.

Goxistekin izandako polemika aipatu dut: gizonezkoen balioak eta gizonak berak bereiztea erraza ez delarik, nekez zabal zitekeen denetara ikuspegi orokor antipatriarkal hura. Baina puntu batzuk onarterazi zituzten: a) Giza talde zanpatu bakoitzak bere teoria eta jomugak definitu behar ditu, bere esperientzia propioaren arabera; b) Gizarte konplexu batean, inolako taldek ezin izan dezake "misio historiko salbatzailea"ren gordailu nagusia edo bakarra (eta hau lotzen da marxismoaren kritikarekin, proletalgoaren lehentasuna astinduz); c) Inor ez bada aitzindaria izango, denen arteko koordinazio librea behar da. Puntu hauek, lorpenak direla iruditzen zait. Baina zerbait gauzatzeko momentuan, goxismoa eta feminismo militantea, biak, ahuldu egin ziren.

Feminista batzuen tendentzia errepliegerakoa izan zen, emakumeen arteko talde ez-nahasiak sortzeko, eta haietan ahizpatasun afektibo sakon eta komunikagaitza lortzeko. Feminismoak sortutako sentsibilitateak matxismoa du desprestigiatu eta emakumeen egoera soziala hobetu. Baina krisi ekonomikoaren lehen ondorioekin, emakumeak izan dira lehen kaleratuak, segitzen duen erreprezio sexistaren ondorioz. Zapalkuntza bereziak erantzuna du eskatzen, eta agian izanen. Baina ezin daiteke gehiago esan, feminismoak, gizartea aldatzeko mugimendu sakon bezala, ezker osoa inarrosten duenik, nahiz eta sortutako sentsibilitatea itzulezina izan.

#### Pazifismoa eta antimilitarismoa

Pazifisten mugimendua 1980tik aurrera azeleratu da; oso zabala da Belgikan, Holandan, Britainia Haundian eta Alemanian, eta orain jende gehien higitzen duen gizarte-mugimendua da. Girstinoak, ekologistak, feministak, erradikalak, komunistak eta (bartzuetan) sozialistak biltzen ditu. Besteak behera amiltzen direnean, gora doa.

Honen funtsa konprenitzeko, bi atal azpimarratu behar dira: lehena, elizen eragina eta nazioarteko politikaren munta, batez ere Soviet Batasunaren jarrera bakezalearen ondorioz; bigarrena, pazifismoaren eta antimilitarismoaren arteko diferentzia. Pazifismoa oso zabala da, interklasista, suntsipen nuklearraren beldurra eragina, baina armadaren existentzia eta estatuen eraketa dudatan jartzen ez dituena. Antimilitarismoak askoz kontzientzia erradikala goa du, armada zeharo ukatuz, eta, armadarekin batean estatuek oratzen duten nazionalismoaren mistika itsugarria.

Eta pazifismoa aurrera doan bitartean, antimilitarismoak jasotzen duena marjinazioa eta erreprezioa da. Horregatik, ezin uka daiteke, pazifismoaren edukin positiboa, antiinperialismoaren kontra eta barneko faxistizazioa galgatzeko; baina ezin ezar genezake mugimendu iraultzaileen barnean.

#### Ikasleak eta antirrazismoa

Bukatzeko, duela gutxi izandako ikasleen mugimendua eta antirrazismoaren indartze mediatikoa aipatuko ditut. Haien edukinaz ariko naiz. 1968an, ikasleek teoria-estrategia orokorra nahi zuten, historia ulertzeko eta gizartea aldatzeko; garaiko ideologiaren arabera, langileen xerka joan ziren, altxatzeko. Jarrera desegokia,

oraingo momentutik ikusita (honela erraza da, han egon behar zen, ordea!), baina iraultza egiteko tradizio europarrarekin oso ongi doana. Orain, berriz, ikasleak eskandalizatu egin dira, sistemak aldarrikatzen duen "berdintasuna" aplikatzen ez delako; errealitateak ikasle, gazte eta kolorezkoak diskriminatzen ditu. Injustizia gorrienak salatu dituzte; baina sistemaren funtsa ez dute dudatan jarri, ez dute ikuspegi historikoaz analizatu: bere promesak ez dituela betetzen leporatu diote etikaren eta moralaren izenean, politika egin nahi izan gabe.

Horiek horrela, gazteengan ikusitako jarrera honek agerian ematen du ideologiaren krisia; eta modernitateari lotzen zaion ikuspegi historikoaren falta erakusten digu, presentean bizitzeko jarrera erdi-ziniko, erdi-errealista, indibiduoaren problemak herrien mugimendu handietatik aparte kontsideratzeko joera.

Hitz batez, ezin dezakegu ezkerraren perspektiba ongi ulertu, modernitatearen fenomeno arakatu gabe. Aipatutako beste osakinek, hirugarren partean egingo dugu.

## Perspektibak intelektualeriaren eskutik

*Galdera:* «Gauzak datozen bezala onartu behar dira; gisa guztiz ezin dezakegu ezer kontra» diozularik, ez al zara pasibitatea gorai-patzen ari?

*Erantzuna:* Ez, inola ere. Aldakuntzak onartu behar dira, beren bilakabidea kontrolatzeko eta gure alde ezartzeko. Ordenagailuen beldur direnak minusbalidoak dira. Engoitik hemen direla eta haiez baliatzen ongi ikasi behar dela dakitenek, berriz, abantaila handia erdietsiko dute. Jende honi esker, teknologia berriekin bizitzen jakinen dugu. Eta, azken finean, sistema nola zuzendu eta nola irauli ikasiko dutenek bonba-jartzaileek baino eragin askoz handiagoa ukanen dute (George Lukas, 1988).

Elkarrizketa hau *Rolling Stones* aldizkarian agertu da. Ondoan, Timothy Leary mintzo da, eta duela hogei urte Kalifornian profeta iraultzaile zebilena ildo beretik doa. Gure begien aurrean agertzen ari den gizarte berria komunikazioarena izango omen da: ordenagailuek eraturako ziberespazio mundiala izango da giza harremanen esparrua, kreatibitateari irekia, indibiduoaren eta gainerakoen arteko erdimailako afilizazioak eta kideetasunak ezabatuz. Erli-

jiok, nazioek, ideologiek porrot egingo dute, eta libertatearen eremua komunikazioarekin erkidetuko da.

Modernitatearen (edo posmodernitatearen) izenean, teoria-es-  
trategia guztiz berria egiteko gutizia dago. Honek, ordea, ez du  
oraindik esanahi definitiborik; iraultzaren historian, erreplege-  
-momentu guztiek "berritasuna" dute ekarri, gaindituak edo efika-  
ziarik gabeko ziduriten printzipioak ordezkatzeko. Eta, usu, egoe-  
ra objektiboen aldakuntzak modak barreiatu ditu, aski konstan-  
teak diren balioetara itzultzeko.

Halēre, mendebaldeko gizarteetan edo nazioarteko politikan  
izandako aldakuntzak kontutan harturik, nekez onar daiteke krisi  
honen bukaeran modelo iraultzaile klasikoan araberako irtenbide  
bat ageriko denik: modelo sobietarraz egindako kontsiderazioek  
fase historiko bat bururatu dela ulerterazten digute. Krisiaren  
irtenbidea bilatzeko, osakin desberdinak hartu behar dira  
kontutan.

Batzuk zanpatuen egoera ekonomiko-politikoei dagozkie, eta  
etengabeki auskultatu behar dira erreboltarako premia eta jazar-  
pen espontaneoak. Kontzientziā iraultzailea hartzeko errepresioa  
aski ez delako, organizazioaren lana eta teoriaren premia azpima-  
rratu behar dira. Azken urteotan izandako borroken zerrenda eta  
analisia egiteko ez dugu hemen lekurik, baina ezkertiarrek leku  
guzti hauetan egon behar dute, presente eta irekirik, esperientziak  
eta saioak bilduz, zerbait lehertzean, harekin obratzeko.

Gu, bereziki, teoriaren ildotik ibiliko gara, intelektuakeriak  
azken denbora hauetan azpimarratzen dituen ideia-indarrak bar-  
natzeko.

Eta, hari honetan, nabariak dira krisian dagoen intelektualeria  
iraultzaileak errealitatea osotasunean ulertzeko dituen ahuleziak.  
Azken finean, koadro orokorra eskaini ordez, jarrera partzialak  
agertzen ditu. Halere, ideia horiek ezagutu gabe, nekez jo daiteke  
aitzina.

Bizimoduaren aldaketan *indibidualismoa* dugu. 1968tik dato-  
rren diferentziarako deiarekin doa, eta modernitateak areagotu  
egin du. Haren edukina ez da soilki negatiboa. Solidaritatea uka-  
tzen duena, elkarren aurkako lehiaketari lotua, ez da indibidualis-  
mo-mota bat baizik. Bestea, berriz, etika bati atxekia dago, sakrifi-  
zioaren ukapenaren izenean menperakuntzaren salaketa galdatzen  
duela. Zentzu honetan dabil Michel Feher-en testu hau:

“Indibidualismo berria datorkigu. Bere jatorrian, belaunaldi baten desliluramendua daukagu, *baby-boom*-etik datorrena, hain zuzen: 1968a ezaguturik, ez du gehiago sinesten etorri handiko katastrofe iraultzaileetan edo irtenbide orokorretan; «yupismo»tik, bere haur-eritasunetik, sendatu da, eta, orain, indibidualismo berriaren jite nagusia XVIII. mendean Ilustrazioak utzitako moralean be-rraurkitzen du” (1988).

Beraz, indibidualismoarekin, ezkerak lotu nahi du Europar oratutako *libertateak* defendatzen dituen moral bat, *etika* bat. Lehen, eurokomunismoaz hitz egitean, norberaren eskubideez eta hiritarren libertatearen defentsaz mintzatu gara. Dударik gabe, osakin hau gure gain hartu behar dugu, iraultzaren edukinak ho-rrera exigitzen duelako.

Beraz, jarrera morala eta tradizio europarreko libertatearen de- fentsa aurre-aurrean ditugu. Esan gabe doa, bi osakin horiek, hala nola indibidualismoak, ez badute estatuaren eta esplotazioaren aurkako gorrotoa era praktikoa batez giharterazten, galtzera utziko dutela tradizio iraultzaile osoa. Eta iraultzaren esparrutik aterako direla.

Baina ideia hauen esposizioa maingua litzateke, moralaz edo etikaz zerbait gaineratu gabe; nolabait, buelta datorkigu.

Gure zibilizazioan gehien onartu den jarrera, “kantiano” dei genezake; Kant-en arabera, lege morala unibertetsala da, eta manda- mendu kategoriko gisa inposatzen da; egileari ekintza batek ema- ten dion ondorioa ez da balio moralaren erizpidea: alderantziz, balio morala humanitateari dagokio, berdina da edozein gizaku- merentzat, humanitatea helburua, eta ez soilki bitarteko bat dela- ko; ekintza baten edukin moralak balio unibertetsala du, eta haren aitzinean makurtu egin du norberaren libertateak.

Iraultzaileen artean, askotan salatu izan da guztientzat berdin balio duen morala. Marxistek, bereziki, lege moral eternoa arbuia- tu dute; dagoeneko Engels-ek idatzi zuenez, “azken finean, edo- zein teoria moral arestiko egoera ekonomikoaren ondorioa da” (*Anti-Dühring*). Trostky-k zioen (1938), urrunago joanez, morala bilakabide sozialaren ondorioa dela, eta ez dela betere aldaezina; gizartean interes kontrajarriak daudenez, moralak, ideologia osoak bezala, klase-edukin argia duela; moral idealistak iraultza eta ho- nen biolentzia kondenatzen dituenean, bere natura kontrairaul- tzailea duela erakusten; azken finean, ezin dakiekeela norma bera aplikatu zapaltzaileari eta zapalduari: gizonak oro libratzeko beha-

rezkoa dena zilegi da, eta benetan justifikatu behar dena helburu estrategikoa da.

Ideologia eta moral ofizialaren eginkizun kontrairaultzailea (eta askotan hipokrita eta krudela, tortura eta estermioa usu justifikatzen dituelako) salatu beharra dago. Baina ideologia iraultzailearen izenean bortizkeriak, masakreak eta errugabeen heriotza merkeak ezagutu dituztenei, oso gogor egiten zaie edukin etikoaren erizpidea estrategia iraultzailearen garaipena dela onartzea. Dagoeneko 1939an, Victor Serge-k oso era fin eta ironikoz aurkezten zuen Trostky-ren liburua:

“Proletalgoak errepresentatzen duen humanitatearen interesak defendatu behar ditu zinezko moralak. Trostky-k, atzo boterean eta gaur oposizioan, sortu duen partiduak errepresentatzen du proletalگو zinezkoa eta, ondorioz, benetako moralak bere alderdiak ordezkatzeko duela pentsatzen du. Beraz, bahituen fusilatzeak ez du esanahi bera Trostky-k, Stalin-ek edo burgesiak manatzen duenean. Klase langilearen garaipena ekar dezakeen heinean izango da moralki on edo txar delako manu hori”

Estrategia iraultzailetik kanpo egongo den printzipio moral autonomoa bilatzen saiatu ziren aspaldian Berdiaeff edo Bernstein bezalako pentsalariak. Errebisionismoa desprestigiatu zuen iraultza sobietarraren garaipenak barreiatu egin zituen saio guzti horiek.

Gaur egun, ezkerrek kritikatu du sozialismo errearen bortizkeria, eta talde armatuen inguruko askok salatu dituzte biolentziak dakartzan zentzu moralaren galera eta utilitarismo taktikoaren jarrera mugatuitsuak.

Egoera historiko honetan, indibiduoaren errespetua eta libertateen defentsa bereganatzeko gauza izango den etika baten gainean eraikiko ez den jarrera iraultzaileak itxura monstruosoak hartuko luke, efikazia politikotik at eta ezkerrean nagusi diren sentimenduekin lotzeke.

Baina moral dominantearen defentsa soilan ariko dena errepresioaren konplize izango da, eta zapalkuntza mantenduko du. Sistema zanpatzailea legitimatzera daraman kritikari traizio deritza.

B.

\* Lan honen parte batzuk dagoeneko emanak ditut: Oposizioen kriminalizazioa eta Autonomiak borroka armatuari egindako kritika, Ipes-ek 1982an antolatua.

riko hitzaldi-sorta batean; Utopia klasikoaren porrota eta kontserbadurismo berria, 1987ko UEUren Soziologia Sailaren barnean. Marxismoaren krisia, *Jakin* aldizkarian barnatu nuen zerbait gehiago, 1984ean. Modernitatea, egun premiazko gaia, *Larrun*-en 2. zk.ko (1985) artikulua luze baten edukina zen.

Aipamen hauetaz baliatu nahi dut idaztera edo mintzatzera animatu nautenei nere esker on amultsuenak igortzeko.

---

### LA IZQUIERDA EN EUROPA (1968-1988)

### LA GAUCHE EN EUROPE (1968-1988)

*El artículo recoge en síntesis las principales claves interpretativas que faciliten una mejor comprensión global de las vicisitudes vividas por la izquierda europea en las dos últimas décadas. Y lo hace en dos extensos capítulos: uno referido al fracaso de los movimientos comunistas, y el segundo a la vida actual de las organizaciones de izquierda y los movimientos sociales.*

*De entrada, pues, se alude a los vaivenes ideológico-políticos de las formulaciones teóricas y prácticas de las utopías comunistas: las esperanzas expresadas en aquellas, las decepciones generadas por estas, la aparición de nuevas formas de lucha revolucionaria en el Tercer Mundo, la crisis económica, las insuficiencias de las nuevas expresiones de la izquierda, la ofensiva ideológica del neoliberalismo y la crisis del marxismo son los puntos principales abordados en esta primera parte.*

*El segundo apartado atiende a aspectos más fácticos de la reciente historia socio-política, con un subrayado particular a los partidos socialistas; el eurocomunismo, el abandono del maoísmo y la crisis del gauchismo, el rebrote psicoanalista lacaniano, la crítica al militanismo, la derechización de la sociedad europea, el fenómeno de las luchas armadas, y el problema ético de las mismas y la represión de que han ido acompañadas aquéllas, las nuevas opciones políticas de los verdes, etc. son algunos de los extremos contemplados.*

*El trabajo concluye con una breve consideración acerca del presente y futuro inmediato de la izquierda europea.*

---

L'article recueille en synthèse les principales clefs d'interprétation qui facilitent une meilleure compréhension globale des vicissitudes vécues par la gauche européenne ces 2 dernières décades. On les retrouve dans 2 vastes chapitres: l'un

se référant à l'échec des mouvements communistes et l'autre à la vie actuelle des organisations de gauche et des mouvements sociaux.

Tout d'abord, on fait allusion aux va et vient idéologico-politiques des formulations théoriques et pratiques des utopies communistes: les espoirs exprimés dans celles-ci, les déceptions engendrées par celles-ci, l'apparition de nouvelles formes de lutte révolutionnaire dans le tiers monde, la crise économique, les insuffisances des nouvelles expressions de la gauche, l'offensive idéologique du néolibéralisme et la crise du marxisme sont les points principaux, abordés dans cette première partie.

La deuxième partie s'occupe des aspects les plus factices de l'histoire récente socio-politique avec une attention spéciale aux partis socialistes; l'eurocommunisme, l'abandon du maoïsme et la crise du gauchisme, la repousse psychoanalyste lacanienne, la critique au militantisme de la société européenne, le phénomène des luttes armées et leur problème étique, ainsi que la répression dont celles-ci ont été le prétexte ou la cause, les nouvelles options politiques des verts, etc... sont quelques-uns des sujets traités.

Le travail s'achève avec une brève considération sur le présent et futur immédiat de la gauche européenne.



## Ezkerra Euskadin

Pako Letamendia

### Atariko ohar metodologikoak

Bidezko iruditzen zait lan honen izaerari edo, hobeto esateko, bere mugapenei buruzko ohar-pare bat egin beharra. Euskadin diharduten ezkerreko gizarte-mugimenduak baino areago, Euskal ezkerreko formazio politikoak deskribatzen dira bertan, eta ez da, horrexegatik, euskal langile-mugimendua bezalako fenomeno hain seinalatu baten eboluzio eta ezaugarriei buruzko deskribapen xehe bat. Edukina, bestalde, frankismo-garaian sortutako «ezker aber-tzalea» delakoa zatitu izan den hiru korronteetan zentratzen da: gaur egun bere eremu ideologikoan ETA eta Herri Batasuna besarkatzen dituen korrontean, gaur egungo Euskadiko Ezkerrak protagonizatzen duenean eta mugimendu autonomo-asanblearioa eratzen duenean. Ohiki ezkerreko deitu izan diren indarrak (hala nola, sozialismo eta komunismo espainiarrak, eta orobat korronte estatal horien Euskal Herriko adarrak), korronte espezifiko bezala baino areago, gorago aipatu ditugun hiru korrontekin duten harreman dialektikoan aztertzen dira (tratamendu metodologiko honetik, noski, ezkerrean izaerari buruzko nolabaiteko kontzeptzio bat suposatzen du).

Badago, lan honetan hutsune bat, eta hutsune garrantzitsua, gainera: gaurko Euskadin bere adierazpidea LKI eta EMK bezalako indarretan aurkitzen duen ezker iraultzailearena. Hutsune hori ez da ezein aurrepostu ideologikorengatik, horien dokumentuak behar bezala estudiatu ez izanagatik baizik. Horregatik, bada, ez zait geratzen barkamena eskatu beste erremediorik, eta agindu, aurki jarriko dudala konponbidean ezagupen-eskasia hori.

Nolanahi ere, lehen aipatu hiru korronteen garrantziak eta eraginak justifikatzen duela esango genuke horiei dedikatutako lanari izenburu bezala «Ezkerra Euskadin» eman izana.

Azkenik, esan behar dut, nola lan hau batipat indar horien izaera ideologikoari buruz den, 1973tik 1982ra doan epealdira mugatzen dela azterketa bera, zeren eta, autorearen eritziz, 1981-82ko urteetatik aurrera kristalizatzen bait da korronte horien izaera eta ideologia, gaur egun duten itxuran.

## Maoismoaren eragina hasierako ETAn

Ezker abertzalearen ideologiaren azterketa, 1974-76 arte, ETAn ideologiarena da. Hirurogeiko urteetan maoismoaren birtatez sartzen da ETAn ideologia ezkertiarra. ETA, urte horietan, komunitate sozio-politiko berri baten nortasun-ezaugarriak sortzen ari da euskal nazionalismoaren barnean, eta komunitate-ezaugarri horien adierazleak jadanik emanak aurkitzen ditu 62-64az geroztik Hirugarren Munduak kolonialismoaren aurka daramatzan askapen-gerrei buruzko testu eta esperientzietan. Adierazle horien bilaketa eta hautapenean, hain zuzen, aurkitzen du bete-beteko zentzua Maoren pentsamenduak, askapen-mugimendu horien teoriko eta buruzagi praktikorik inportanteenarenak. Maoren «gerra iraultzailea»ri buruzko teoria izango zen lehenik, eta «demokrazi mota berria»n burgesia nazionalak jokatzeko duen papera-ri buruzko bere gogoetak, geroago, ETAk ezker abertzalearen nortasun-ezaugarriak birsortzeko erabiliko zituen oinarritzko bi kontzeptuak. Maok, Txinan egiten den gerra zibil sobera luzea, «gerra iraultzaile» bezala deskribatzen du, non herriaren borontatea irabaztera zuzenduriko metodo «psiko-politiko»ek izan behar bait dute lehentasuna.

Bai Krutwig-ek (bere *Vasconia* liburuaren seigarren partean, «La Bellica»n, «gerra iraultzailea» «gerraren izpiritualizazio» be-

zala kalifikatuz, eta jendearen izpiritua konkistatzeko modua «ofendituei mendekua eskaintzea» dela esanez deskribatzerakoan), bai ETAREN «Insurrección en Euskadi» koaderno ofizialak (non gerra iraultzailea herrialde bateko botere ezarria eratsi eta beste erregimen batez ordeztzeko erabakia hartzen dutenen «era guztietako ekintzen politiko, sozial, ekonomiko, psikologiko, armatu, etab.en multzoa» bezala deskribatzen bait da), mimetismoz bada ere, modu erreal batean baino gehiago ilusorio batean ekartzen dute «gerra iraultzailea»ren kontzeptu hau euskal borrokara.

Maoren beste bi kontzeptu aurkitzen dira ETA V. Biltzarrearen eta Bulego Politikoaren —handik berehala ETA-berri bihurtuko zenaren— joerak egindako planteamenduaren arteko hausturaren oinarrian, han 1966-67ko urteak aldera: abertzaletasuna eta komunismoa bat egiten dituen, eta herrialde kolonial edo erdi-kolonial bateko burgesia nazionalari buruz bere «Demokrazia Berria»z egiten duen gogoeta. Planteamendu horien arabera, honek izaera iraultzailea hartzen du, inperialismo atzerritarrei jarkitzen zaien une beretik, eta horregatik elkar daiteke proletalgoarekin; ildo beretik, Eusko Alderdi Jeltzalea izango litzateke burgesiaren ordezkaria, eta borrokatu behar dena.

Euskal Herri Langilearen kontzeptua, bestalde, VI. Biltzarrearen bigarren parteak 1967an sortu zuena, Maok bere «Demokrazia Berria»n azaltzen dituen burueren egokitzapen mekanikoa da. Euskaldunak, langile bezala, bere askapen soziala asumitzen du; eta herri bezala, berriz, askapen nazionala. Euskal Herria «proletalgo euskaldunak eta beste klase sozialetako elementu zapaldu desberdinak» (jabe txikiak, baserritarrek, burgesia intelektual txikiak) osatua dago. Burgesia txiki eta ertainaz esaten da, nola «Herri Langilearekin gure askapen nazionalaren alde diharduten, gaur egun iraultzaileak direla eta horregatik herriaren parte egiten dutela».

## **Izaera antirrepresiboa eta utopia ezker abertzalean**

ETAk «gerra iraultzailea»ren eskemak praktikara eramateko egindako saioen erantzun bezala erregimen frankistak martxan jarritako errepresioak, batez ere ETAk Manzanas inspektorean 1968ko abuztuan egindako heriotzazko lehen atentatuaren ondorengoak —atxiloketa indiskriminatuak, torturak, salbuespen-

-egoerak— modelatzen ditu ezker abertzaleari gaur egun arte lagunduko dioten beste bi zirkunstantzia: bere izaera antirrepresiboa eta komunitate-utopiak —bere zentzu noblean— ETArekin baitan jokatzeko duen rola.

Urte horietatik (1968-1970etik) aurrera, atxilotua edo beste zeinnahi errepresio-motaren biktima izatea, desonra bezala ez, baina ohore-motibo eta prestigio sozialeko kapital bezala ikusten da. Eta edukin familiar bortitzeko solidaritate-mekanismo bat sortzen du: ez bakarrik ETArekin inguruko gizarte (edo komunitate) zibil berri baten jaiotza —horixe zen hain zuzen 1964eko saioaz geroztik imajinaziozko «hierarkia paralelo» batzuk eraikitzeke antolamendu-amets zaharra—, identitate-egoera bat ere sortuko dute, batetik, ezker abertzalearen eta, bestetik, solidaritate antirrepresiboa eta Estatuaren Seguritate-Indarren kontrako jarkipenaren artean.

Gainera, gisa honetako komunitate ezkertiar antirrepresibo bati berezko zaion erradikalizazioak jokabide utopikoak sustatzen ditu; hau da, beren ustetan arazo guztiak konponduko dituen etorkizun baten berreraikuntza komunitarioa. Ezker abertzalea, 60ko urte-hondarretatik eta 70eko lehenengoetatik aurrera, mila haustura eta eztabaidak osatutako askatasun-egarri batean bizi da, eta euskal gizarte klandestinoak alderik alde korritzen duten azpikorronteen kanalizatzaile eta gero eta errebindikazio nazional erradikalagoen katalizatzaile bihurtzen. Errepresioak joran horiek adierazteko sortzen duen ezintasunak berak, gero eta borroka sozial erradikalagoen bozeramaile izatera darama euskal ezker berri hau, eta etorkizun gero eta utopikoago bateko salbazio komunitarioa programatzera.

## **Leninismoa eta troskismoa hirurogeiko urteen hondarretan**

Lehenago aipatu urte horietatik beretatik aurrera, zeinu desberdineko beste eragin batek kontrakartua gertatzen da maoismoaren hasiera bateko eragina: leninismo organizatiboarenak, alegia (Eragin hau, bestalde, Mendebal Europa osoan gertatzen da, Frantziako 1968ko Maiatzaz geroztik berpiztutako korronte anarkista eta kontsejisten balantze frustragarriaren ondoren). Leninismo organizatibo horretara biltzen dira korronte troskistak ere, eta

ETAren 1970eko VI. Biltzarretik aurrera gero eta gehiago kritika-tu ondoren nazionalismoa oro har, eta euskal nazionalismoa partikulariki, fenomeno burges txiki bezala, aldendu egingo dira ETAren enbor komunetik.

Leninismoa, ordea, abangoardiako alderdi baten teoria bezala, berriro bereganatuko du 70eko ETAk, eta bere zerbitzuko jarriko du teoria horrek abangoardiako talde armatu bati eman diezaiokeen oin erri ideologikoa. ETAren aldetik kontzepzio hori asimilatzeke zubi teoriko gisa, Zunbeltz-en *Iraultza* eta *Complementos del Iraultza* izeneko bi lanak aipatu behar dira, 1969ko lehen erdialdera idatziak bi-biak; ETAren orduko talde gidariaren —Burgosko Judizioan kondenatua izango den beraren— kontzepzioak argiro kritikatu, masen borrokan nukleo armatuaren beharretara meneratua egon behar duela diote lan hauek (eta ez alderbes, ETAren zuzendaritzak sasoi horretan defendatzen zuen bezala).

### **Fronte militarra talde/Estatu bezala: «berezko leninismoa»**

Kontzepzio guzti horiek, bada, ETAren Fronte Militarreko kideen «berezko leninismo»rako bidea erraztu zuten 1971-73ko urteetan, hauen talde/Estatuako bilakaera-prozesuan. Fronte Militarreko kide horiek, izan ere, ezker abertzaleak 60ko urteen hondarretatik hona sortu duen komunitate sozio-politikoaren «talde-ideal» bihurtzen bait dira, frankismoak identitate negatibo bezala estigmatizatzen, ezker abertzaleak identitate positibo bezala kontsideratzen doan metamorfosiak sortutako prozesu batean.

Talde/Estatu honen nukleoa, nekazal jatorriko euskaldun langileez osatua egongo da gehienbat: oraindik berriki industrializatutako zonaldeetan jaioetakoz, Gipuzkoako Goierri bezalako zonaldearekin gertatzen den bezala, adibidez. Gizarte-talde honen ezaugarriak, frankismoak Euskadin proiektaturiko irudi negatibo guztien multzoa izango dira: bertako bizilagunak euskaldunak dira, eta, beraz, probintzia «traidore»etatik datozenak; hauen sorlekua ere, orobat euskaldun diren lurralde mugakidez inguratua dago; euskaraz —hizkuntza debekatuan— hitz egiten dute eta nekez mintzatzen dira gaztelaniaz; horrexegatik egon ziren, hain zuzen, txikitari gutxiago izatera, umiliatuak izatera eta, sarri askotan, isilik

egotera kondenatuak; eta azkenik, frankismo-garaian gizarte-klase super-ustiatu eta eskubide oinarrizkoenik ere gabeko langileak direla esan behar. 70eko urteetan ez dute jadanik Che Guevara edo Maoren testuak buruz erreztatzen dituzten intelektualak edo estudianteen beharrik, Estatu espainiarraren aurkako «gerra iraultzaile»ko egoera batean aurkitzen direla konbentzituta egoteko; begien bistako ebidentzia soziala da hori Euskadin 68-70eko urteez geroztik, eta ETAko militanteentzat batipat.

Erbestean aurkitzen den Fronte Militarreko kideen taldeak, zcinak egun batean bera pertsegitu zuen Estatu baten —espainolaren— eta gaur egun bera umiliatzen duen beste baten —frantsesaren— aurka borrokatuz jarraitzen bait du, bere talde/Estatu bilakatzeko auto-transformazioko prozesua umotzen du 1972-1974eko urteetan. Prozesu hori 1974-76 aldera iritsiko da bere heldutasunera, Francoren heriotzaren ondoren sortutako komunitate nazionalista berriak talde/Estatu bezala bere errekonozimendua ematen dionean, alegia.

### **Asaldakuntza, eta teoria eta praktika politiko-militarra**

Behin 1972-73tik aurrera, ezker abertzalearen utopiak asaldakuntzaren leman konkretatzen dira. ETAREN historian behin berri gertatuko den bezala, asaldakuntzako eskemek —zeinetatik eratorriko bait da antolamendu-eredu politiko-militarra— komunitate-mailako egia bati erantzuten diote: iharduera armatua sendotu eta jadanik hiltzear dagoen Erregimenaren errepresioa areagotu izanak, militarizatu egin dituzte Burgosko Prozesuaren ondoren jaiotako euskal nazionalismoaren belaunaldi berriak, hauengan, armen indarrez mantentzen den frankismoa armen indarrez eroriko delako konbentzimendua sortuz. Komunitate-utopia horixe da «asaldakuntza»ren imajineria elikatzen duena.

Izan ere, ETA politiko-militarraren —eta bere antolamendu-egituraren— pentsamoldeari bizia emango dioten eragin ideologikoak (zeinen benetako oinordekoak Bereziak izango bait dira, eta ez Pertur-en «Otsagi»tarrak) 1973an sortzen dira, gerrilerismo hiritarra eta asaldakuntza leninistarekin egindako konbinazio bate-tik. Lehen joeran gehien eragiten duten autoreak «fokista»k dira: «Che» Guevara, *Armen kritika* baino lehenagoko Regis Debray, Abraham Guillén eta Marighela brasildarra; eta Leninen eragina,

berriz, asaldakuntza armatuaren aldeko testu nahikoa isolatu batera mugatzen da. Debray, bere antolamendu praktikoaren adibiderik argiena «foku iraultzailea»n isladatzen duen borroka armatuaren kontzeptzio politiko-militar baten teorizatzailea da, eta errealtatean bizia emango dion aita fundatzailea, berriz, «Che» Guevara. Debray-k dioenez, gerra baten zuzendaritza efektibo teknikoki kapaz izango den talde exekutibo zentralizatu eta klase-interes beretan oinarritutako batek bakarrik asumi dezake, hau da, Estatu Nagusi Iraultzaile batek. Debray-k azpimarratzen du, «aldi berean politikoa eta militarra izango den antolamendu batean mamitu behar dela» gerra iraultzaile hau, aurrera eraman ahal izateko.

Guevara eta Debray-ren «foku iraultzailea»ri buruzko teoria, ordea, landa-gerrilaren praktikari buruz bakarrik mintzo zen. Hiri-gerrilaren baldintzetara moldatuko duen lehena Abraham Guillén izango da, bere *Estrategia de la guerrilla urbana* obran, Uruguay-n 1966an argitaratuan. Honen deskribapena inolako arazorik gabe moldatzen zaio ETAk daraman ekintza-motari: «Estrategikoki, biztanleriaren portzentaia handi bat hiritarra duen herrialdean, gerra iraultzailearen grabitate-zentruak hirian egon behar du, baina borroka ustekabeko, mugikor, bizkor eta armen gehiagotasunean oinarrituta». Guillén-entzat, gerrilak atzegoardia hiritarrean garatu beharreko ekintzek jendearen konfidantza irabaztera jo behar dute.

Guillén-en teoriak azken ondorioetaraino eramango ditu Carlos Marighela gerrilariak, 1969an Brasilgo poliziarekin izandako enfrentamendu batean hilko zenak (Angel Amigok dioenez, honen testuak «ETAko militante askoren oinarrizko liburu izan ziren denboraldi luzean»). Marighelaren *Gerrilari hiritarraren eskuliburusk*a, bakarra da gure egunetako literatura subertsiboan, gerrila hiritarraren mekanika eta forma desberdinei buruzko benetako errezeta-liburu bat delako. Bertan, gerrilari-mota honen ekintza-modu desberdinak deskribatzen dira, hala nola: «asalto, erasoaldiak edo inbasioak, okupazioak, enboskadak, kaleko taktikak; trafiko-mozketak, desertzioak eta arma-desbidazioak, arma, munizio eta lehergailuen harrapaketak eta desjabetzapenak, presoerreskateak, exekuzioak, bahiketak, sabotajeak, terrorismoa, propaganda armatua, nerbio-gerra»; bere garapen teoriko askok indartu egingo dute ETA V.eko (militar)en belaunaldi zaharraren mesfidantza Bulego Politikoko edota ETA VI.eko troskista «idazle»ekiko: «Hiri-gerrilako eta landa-gerrilako gizonik entrenatuenak, esperimentatu eta entregatuenak dira gerra iraultzailearen

bizkarrezurra (...) horiek osatzen bait dute ardatzaren muina, eta ez aparatuetan ezkutaturiko burokrata eta oportunistek, ezta edukinik gabeko hizlariek ere, paperean geratzen diren konponbideak idazten dituzten literatotoxoek; baizik borroka-gizonek». «Fartsa parlamentarioa»z mintzo den *Eskuliburutxoa*-ren parteak (non «parlamentuaren irekitzea eta Gobernuko eta oposizio alderdi toleratuen berrantolamendua, txotxongilo eta zakur jakintsuen benetako ikuskizun» bezala kalifikatzen bait da) xehetasun guztiarekin deskribatzen du bai Bereziak eta bai ETA militarreko gizonek 1977ko ekainaren 15eko hauteskunde-bezperan hartu zuten jarrera.

(Asaldakuntzari dagokionez, 1973ko udan egindako ETaren (ETA militarren) VI. Biltzarrearen lehen partean aurkeztu bai baina eztabaidatu gabe geratu zen ponentzietako bat, Leninek idatzitako testu bat da, hain zuzen ere: *Gerrilazko gerra*, Errusian 1905 eta 1906ko urteetan gertatu ziren inoizkako asaldakuntza militar eta nekazarienez hitz egiten duena).

## Demokrazia burgesa: ETA-m eta ETA-pm

Fronte Militarren protagonismo honek Langile-Frontearen zatiketa erakarriko du, eta azken honen kideak LAIA alderdira pasako dira 1974aren hondarretan. Aldiz, 1974eko urtearen azkenaldera «militar»en eta «politiko-militar»en artean ematen den zatiketan ez da nabari, lehen momentu batean, funtsezko diferentzia ideologikorik, erregimen frankistaren agonia nabariaren ondorioz sortutako egoerari buruzko erizpide desberdinak baizik; ETA militarrek une horretan defendatzen duenez, demokrazia burgesaren etorrera kontrakar ezinezko zerbait da eta, horregatik, ETaren iharduerak soilik borroka militarreko jo beharko du berriro, sektore zibilei beren buruak antolatzerako dei eginez; eta, jakina, guzti hori bateraezinezko gertatzen da antolamendu-egitura politiko-militarren mantentimenduarekin.

ETA politiko-militarrak, bere aldetik, aurki ganean den demokrazia burgesaren faseari dagokion haustura demokratikoko programa bat elaboratuz erreakzionatuko du, 1974eko urtearen hondarretan; eta programa hori, LAIAREN inguruko sektoreek burges txiki bezala errefusatu izan eta behin ETA militarren babesa jaso ondoren, 1976tik aurrera «KAS alternatiba» bezala ezagutuko dena bilakatuko da.



## Otsagabia taldea: gramscismoa eta herri-boterea

Ordurarte ezezaguna zen ideologia baten, gramscismoaren, 1976ko ETA politiko-militarrerako ekarpena izango da (eragin honen pean idatziko dira Pertur-ek zuzendutako «Otsagabia Taldea»ren lanak) ETA politiko-militarraren baitan Berezien eta zuzendaritzaren arteko zatiketaren oinarrian egongo dena, eta ondorengo ETA-pm eta ETA militarren arteko ezadostasun konponezina sortuko duena.

Iraultzaile handia da Gramsci italiar komunista, bere pentsamendua desitxuratu egin badu ere 60ko urteetatik hona interpretazio eskuindar batek; gizarte zibilaren eta gizarte politikoaren arteko diferentziazioari buruzko bere kontzepzioek eta gizarte-taldeen —edo gizarte-klaseen— nagusigoaren kontzeptuari buruzko saiakuntzek (gizarte zibila, Gramsci-rentzat, klaseen ideologia elaboratu eta hedatzen duten organismo barneko eta pribatuen multzoa da, eta horrek nagusigora iristeko gizarte-klaseen borroka gizarte zibilaren barnean planteatu behar dela ondorioztatzen eramaten du), lehengaia emango diote Otsagabia taldeari «herri-boterea»ri buruzko lanetarako. Burgosko Prozesuaren garaietako ETAREN talde gidariaren tesiek masa-borrokaaren protagonismoaz formulazio berria hartzen dute: Otsagabia taldearen aipatu lanaren arabera, «iraultzaren zuzeneko protagonismoa gizarte-masetan datza (...). Eta gizarte mendebaldar batean (...) protagonismo hori ezin muga daiteke asaldakuntzaren azken momentuan soilik parte hartzera, baizik eta lehiatsu parte hartu behar da borrokaren fase guztietan». Eta horrek, jakina, masa-borrokak borroka armatuak baino garrantzi handiagoa duela esatera daramatza, eta hauteskunde-mekanismoak erabili behar direla onartzera, horien emaitzetan herriaren nagusitasun-kotek egin dutela islada dadin klase dominatzaileen aldean aurrera.

(1976ko urte osoan zehar, gero eta handitzena joango da Berezien —benetako politiko-militarren— deskontentua, borroka armatuaren likidazionismozko salaketak eragingo ditu zuzendaritzaren aurka, eta 1977ko ekainaren 15eko hauteskunde-aurreko fasean mamituko da, zatiketa berri bat sortuz: Bereziak, abangoardiako foku armatu iraultzailearen protagonismoaren aldekoak, ETA militarrekin batzen dira 1977ko udazkenean, inflexio bat eraginez honen jatorrizko teorian —Argalak elaboratuan—, zeinak bi sektoreen, hau da zibilaren eta militarren, autonomia defendatzen bait zuen.

## Enfoke politiko-militar berria: Gramsci-rena

Gramsci-ren pentsamenduak, ordea, badakar borroka armatuaren teorizazio berri bat ere, ETA politiko-militarrak 70eko urteen hondarretan eta 80koen hasieran beretuko duena, *de facto* desagertu arte. Gramscik dio, Mendebaldeko proletalgoaren estrategiak, Ekialdean ez bezala, asaldakuntzan oinarritutako mugimendu-gerra batean ez, baina posizio-gerra batean oinarritu behar duela, non burgesiari gizarte zibileko aparatu ideologikoetan eta gizarte politikoaren ordezkari-tza parlamentarioko organoetan boterea kentzen joango bait zaio pixkana-pixkana.

Hiru momentu bereizten ditu Gramscik posizio-gerra honetan. Lehenengoa ekonomikoa da, produkzio-indarren garapena ezagutzetik pasatzen dena, gizartearen eraldakuntzarako benetako ahalbideak aurrikusi ahal izateko. Bigarren momentua politikoa da: fase honetan, sektore politiko herritarrek nagusitasuna lortzen duten klase dominatzaileen gain. Eta hirugarren momentua militarra da. Bi arazo-mota planteatzen dira momentu honetan: arazo tekniko-militarrak (antolamendu militarri dagozkionak), alde batetik, eta arazo politikoak, bestetik; hala nola, herri-masak gidatu eta horiekin ejertzito bat eraiki, klase dominatzaileak menperatzeko.

ETA politiko-militarrak, 1977 eta 1982 artean, behin momentu politikoko helburuak lortu ondoren, momentu militarrean behar-ko den organizazio politiko-militar bihurtzeko misioa ematen dio bere buruari; eta horrek, 1979tik aurrera, atzerazinezko urrutze batera eramango du ETA-pm-ren 1976ko desdoblamentuaren fruitutik, hau da, bere alderdi politiko zuzendari EIAtik.

Izan ere, «herri-boterea»ren eta borroka armatuak jokatu behar duen atzegoardiako paperaren teoriak, bere desdoblamentuaren printzipioa onartzera eramaten dute ETA-pm, abangoardiako alderdi politiko —EIA— bilakatuz, nahiz eta organizazio militar-rrak (pm-ak) ere bizirik irauten duen. 1976ko udan egindako ETAREN VII. Biltzarrean erabaki zen prozesu honek, ETA militar-rraren onespina du, berak garai hartan mantentzen zuen printzipioari (zuzendaritza iraultzaile bikoitza —militarra eta zibila— behar zelakoari) leial, eta foku armatu zuzendari bakar bihurtzeko desiran. Gauzak horrela, 1976ko udazkeneko Zutik-en, ETA militar-rrak oso-osorik eta bere oneritzia eman ez erreproduzitzen ditu ETA politiko-militar-rraren VII. Biltzarrearen ebazpenak; eta ho-

nek ebazpen horietan borroka armatuaren paperari buruz garatzen dituen ideietan, ofentsibaren ardura esleitzen dio berari, harik eta haustura demokratikoko programa —KAS alternatiba, alegia— lortu arte. Kontzeptzio horiek, ordea, erremedioren gabeko ezadostasunean erortzen dira borroka armatua atzegoardiako borroka bezala ikusten duen buruerarekin, herriaren konkisten garantia eta klase dominatzaileek indarkeria beren zerbitzuen erabil ez dezaten indar disuaditzaile bezala ikusten duenarekin.

## Langileen asanblearismoa eta unitarismoa

Tenore honetan —1976 eta 1977ko lehen erdian—, ezker aberzaleak metaturiko utopiaren kapitalak oso bestelako ideologi mota batzuetarako eta, zentzu batean, kontrakoetarako, atek zabalitzen ditu, ETAK 60ko urteetan zehar eta 70ekoen hasieran ezagutu zituen teoriaren aldean: asanblearismoa eta ekologismoa, alegia, batez ere jokabide antinuklear bezala azken hau. Langile-mugimenduak frankismo-ondoaren aurka indarririk gehien egingo duen aldia, Estatuan eta Euskadin, 1976ko urtarrilaren eta 1977ko maiatzaren artean emango da. Mugimendu baterakoi honek zuzeneko ordezkartzako moduak, asanbleazkoak, garatzen ditu, eta denborekin bat egingo du errepresioaren aurkako eta amnistiaren aldeko euskal gizartearen mobilizazioekin.

Ez dira faltako tira-birak sindikatuetan ere, nahiz eta epealdi honetan, eta honetan bakarrik, Sindikatu Bateratu bakar baten eraikuntza aldarrikatzen duten sindikatu guztiak.

Asanblearismoaren sustraiak, ordea, lehenagokoak dira Euskadin. Jadanik 1974eko udazken beroaz geroztik, asko ugaritu ziren hemen batzarre bidez izendatutako ordezkari-batzordeak: langileek berek zuzenean egituratuak, batzarre edo asanblea, komite ordezkari, delegatuen koordinadora, etab. etan antolatutako sistemen bidez. Talde hauek, etorkizuneko gizarte sozialista, autoburokratiko eta autogestionatu bat eratu nahi lukeen auto-antolamenduko pentsamolde batean oinarritzen dira, komunismo kontsejistaren printzipioetan inspiratuz eta CNTren praktika libertarioetatik hurbil, nahiz eta benetako CNT bera ez den mugimendu horretan integratuko. 1976ko martxoaren hiruko Gasteizko sarraskiaren ondoren, errepresioaren aurkako euskal mugimenduan bateratzen dira korronte horiek, eta Euskadiko batzarre-erakunde baterakoiak finkatzen dira.

Errepresioaren aurkako borrokekin bat egite honek, bere alde-tik, ezker abertzalean eragina izateko eta ETA politiko-militar-  
raren kontzepzioetan influatzeko bidea ematen dio langile-asaan-  
blearismoari, LAB sindikatuaren bidez. Sindikatu hau 1975ean  
ernaldu zen, Langile-Frontea zatitzean, azken honek soilik euskal  
langile abertzaleen sindikatu bezala eratzeko tentazioak izan bait  
zitu. LAB, berriz, mugimendu asanblearioak bereganatuko du,  
eta honek bere egingo Euskal Sindikatu Baterakoi bat sortu eta  
eraikitzeke lema, langile-batzarren oinarritik antolatuta. ETA po-  
litiko-militarrak asumitu egiten du ofizialki jarrera hori 1976ko  
bigarren erdialdean.

Estatuko sindikatu ofizialak joera baterakoitik urruntzen has-  
ten dira 1976an —beti ere nabarmenago UGT, Comisiones Obre-  
ras baino—, eta bederatzi aukera sindikalen legalizazioan gauzatu-  
ko, Euskadiri dagokionez; horixe izango da, hain zuzen, ezker  
abertzalearen eta Espainiako ezkerren arteko urruntzearen arra-  
zoietako bat, ezkerreko alderdi espainolek «Itundutako Errefor-  
ma»ren linearekin batera. Urruntze hori atzerazinezko bihurtuko  
da 1977ko udazkeneko Moncloako Itunak sinatzean, eta jadanik  
zerutik lurrerrainokoa izango, Konstituzioa onartzen denean,  
1978ko urtearen hondarretan.

Nolanahi ere, LABek ere bide hertsiki asanbleariorik aldenduz  
amaitu duenarren, asanblearismo hau izango da, bere errepresioa-  
ren aurkako izpirituarekin, trantsizio-garaiko ezker abertzalearen  
nortasun-ezaugarrietako bat (gero eta erritualagoa izango bada  
ere).

## **Gizarte postindustrialia eta borroka antinuklearrak**

Azter dezagun orain ekologismoak eta korronte antinuklearrek  
zer-nolako eragina izan zuten Euskadiko sektore sozio-politiko  
honetan. Ekologismoa, berez, 50eko urteetan sortzen da Mendebal  
Europan eta Amerikan, ikerketa teorikoko bide bezala; baina,  
70eko urteak arte ez da iritsiko gizarte mendebaldarretan kontutan  
hartzeko moduko mugimendu sozial aktibo izatera. Urte horietatik  
aurrera, postura ekologistak Lurraren kapital biologikoari  
eusteko borrokan gehien erasoko duen eta galerazten saiatuko den  
alderdia, zentral nuklearren erabilera izango da.

Motibazio bikoitza dute korronte hauek Europan: ohizko gizarteari eutsi nahia, alde batetik, eta, bestetik, energia asko kontsumitzen duen gizarte teknokratikoaren aurkako eta bestelako garapen modernoago batean oinarritutako gizartearen aldeko borroka. Frantzian, esate baterako, gero eta defentsa-komite gehiago ari dira azaltzen 1975az geroztik, eta ekologisten indarrek ere biziki gorantz egiten dute hauteskundeetan. Mugimendu hau Europako Mendebaldean beharantz egiten hasten den urteetan (1977-78an), justu orduan joko du Euskadin bere gailurra.

Fenomeno hori, Euskadin garrantzitsuen izatera iritsi den eta aurreko bietatik oso desberdina den hirugarren motibazio batekin lotu behar da: Estatuko industria nuklearren oligarkia jaun eta jabearen aurka, jatorriz batez ere bizkaitarra denaren aurka, izaera militarreko aparatatu armatu batek egiten duen borroka militarra (eta horrekin, paradoxaren paradoxaz, gizarte autogestionatu eta deszentralizatu baten aldeko borrokaren protagonismoa, berez pinaburu bat bezala zentralizatu dagoen talde baten eskuetan geratzen da).

### **Erreforma, indar antifrankisten eta Estatuko aparatuen arteko itun bezala**

Nolanahi ere, denboraldi honetako (1975eko azaroko Franco-ren heriotzatik Estatu espainoleko 1977ko uztaileko hauteskunde demokratikoak arteko) esangurarik handieneko egitate politikoa, espainiar ezkerreko indar antifrankistek «Erreforma» izenarekin ezagutuko zen demokrazia formaleranzko trantsizio-era onartu izana da. Erreforma, funtsean, indar demokratiko horien eta aurreko erregimeneko Estatu-aparatuaren arteko Estatu-itun batean datza. Aparatu hori, noski, «garbitu» gabe dago eta, indarkerian espezializatutako aparatuen bitartez, ezker abertzaleak elaboratutako haustura demokratikoko programaren onarpenik txikiena ere gaitzesten duten baldintzak ezarriko ditu.

Euskadirentzat pentsaezin ahalako ondorioak ekarriko dituen egitate horixe da, hain zuzen, euskal ezker abertzalearen eboluzioak azaltzen duen berezitasuna esplikatzeko duena Estatuko panorama politikoa barnean: alegia, iharduketa politikoa klandestino eta are indarkeriazkoekin jarraitu izatea eta gorago aipatu itunetik sortutako Estatu-nazionalismo berriaren barne-etsai bihurtu izana.

## Eurokomunismoa

Inoiz ere ez da jakingo hori zen ala ez Espainiako komunistei eta sozialistei eskaintzen zitzaien aukera bakarra, beren bizirik ateratzeko ikuspuntu soiletik. Dena dela, bai sozial-demokraziaren eta eurokomunismoaren nazioarteko korronteen eboluzioak eta bai Espainiako alderdi komunistaren eta sozialistaren barne-egoe-rak lagundu egiten dute ulertzen zein erraz onartzen duten indar hauek Estatu espainolean erabakitako trantsizio-forma berezia.

Espainiako komunismoa, 70eko urteen erdialdera, nazioarteko «eurokomunismoa»ren koordenadetan kokatzen da, eta korronte horren sustatzaile suharrenetako bat bezala ageri da, gainera, bere alderdiaren Idazkari nagusi Santiago Carrillo.

Egia esateko, korronte honen aurrekin historikoak 1935eko Fronte Herritarretan aurkitu behar badira ere, eta jadanik 1964etik Togliatti italiarrak egin zuen harako alderdi komunisten «desberdintasunean batasuna»ren aldeko aldarrikapen hura bezalakoak egiten diren arren, «eurokomunismo» hitza ez da agertzen kontsa-gratua 1975erarte. Bide horren formulazioa Erromako deklarazio-an agertzen da, Frantzia eta Italiako alderdi komunistek urte horretako azaroan egindakoan. Bertan, sozialismoa, demokraziaren eta askatasunaren goren maila bezala definitzen da; sozialismorako bidea, berriz, bizitza ekonomiko, sozial eta politikoaren etengabe-ko demokratizazio baten markoan kokatzen da; iraganean herri-borrokek konkistatutako askatasun guztien garapenaren garrantia defendatzen da, eta sozialismoa masa-borroken emaitza izango dela iragartzen, behin herriaren gehiengoa langile-klasearen inguruan biltzen denean. Horregatik, gehiengo horren apoioa duten erakun-de parlamentarioak kontserbatu egin behar dira, baina klase burgesaren edukin orotatik hustuta noski, zeren eta «indar progresisten batasuna»k «monopolio»en aurka borroka egin behar dueneko leku bihurtzen bait ditu Estatuak bizitza ekonomikoan duen gero eta eskuharmen handiagoak. Arrazoi horrexegatik, ihes egin behar zaio burgesiaren eta proletalgoaren arteko enfrentamenduari, azken horrek galdu egingo luke eta; gainera, deseginda geratuko bait lirateke erakunde parlamentarioak. Parlamentuetan gehiengo esanguratsuak konkistatuz, langile-munduak konkista ditzake

erregimen kapitalistaren izaera eta, horrekin, erregimena bera eralda ditzaketen egiturazko erreformak.

Bide honetan funtsezko etapa bat, aliantza anti-monopolista izango da edo «demokrazia aurreratua»rena —Frantziako Alderdi Komunistak izendatzen zuen bezala— nahiz «demokrazia politiko»rena, Espainiako Alderdi Komunistaren definizioz: monopolioen boterea ahulduko duen etapa iragankor bat, alegia. Eta horrek klase-arteke lankidetzako politika galdatzen du, eta baita austeritatekoa ere, krisialdi ekonomikoaren aurrean, besteren artean Berlinguer italiarrak 1976az gero defendatzen zuen bezala.

Aldi berean, komunistek aldarazi egiten dute langile-klaseak Estatuarekiko duen jarrera. European, azken hamarkadetan, hegomendebaldoko langile-klaseko militanteak arerioa ikusten zuen «bere» Estatu burgesean, «bere» ejertzitoan eta «bere» poliziarekin. Mandelen kritiziz, konpromisu historikoak badu zentzu bat, eta da, aipatu etsaigoa ezabatzea. Ondorioz, gizarte-borroka politikaren menean jartzen da, hauteskunde-uncari lehentasuna ematen zaio, klase-borroka frenatzen da burgesia «ez-monopolista»rekiko aliantzak ez behaztopatzeko, eta izoztu egiten dira langile-mugimendu eta herritarraren joera autonomikoak.

### Espainiako PC eta bere Erreformaren onarpena

Komunistek Estatuari buruz emandako jarrera-aldaketa horrek eta «burgesia ez-monopolista»rekin egindako aliantzak, Estatuaren aparatu zaharra ez garbitzetik etorritako lastra guztiak ezezik, ejertzitoaren eta poliziaren ezarpena ere onartzera eramaten dute espainol komunismoa trantsizio-garaian, zeren eta ejertzitoak eta poliziak, PCren arabera, demokratizatuak izan behar bait dute eta langileriak «bere» bezala ikusi behar bait ditu, Estatu espainoleko nazionalista periferikoen errebindikazioei buruz. Horrela, benetako osina egiten da bide «eurokomunista» espainolaren eta euskal ezker abertzalea bezalako errebindikazioen artean: azken honen ezaugarrietako bat, Estatu espainolaren aparatu hertsatzailearen kontrako erabateko etsaigoa bait da.

Espainol eurokomunismoaren jarrera horiek Santiago Carrillok teorizatzen ditu 1976ko *Eurocomunismo y Estado* obran. Carrillorentzat, monopolioek duten Estatuaren kontrolaren kontrako borrokak, aparatu ideologikoei buelta ematek pasa behar du,

botere monopolistaren aurka erabiliz; hortik, hain zuzen, lan-indarren eta kulturaren arteko aliantza. Estatu-indarkeria organitzaren aparatuei dagokienez, horienganako eginbeharra, Carrilloren arabera, «pixkana-pixkana Estatuko indar-aparatuen ulerpena eta apoioa irabaztekoa da, beren antolamendua demokratizatuz». Ejertzitoak, konkretuki, «independentzia eta subiranotasun nazionala garantizatu eta lurralde-osotasunaren defentsa bere gain hartuko duen tresna» bihurtu behar du. «Ejertzitoak nazioarekin bat egina egon behar du», dio Carrillok; eta hortik hain zuzen, PCren Idazkariak azaltzen duen nazionalismo independentista ez-estatalerikiko erabateko gaitzespena, hauen lehen oztopoa nazio-Estatuarekin bat egindako ejertzitoak direnean, demokratikoak izan ala ez.

## Sozial-demokrazia eta Internazional Sozialista

Nazioarteko sozial-demokrazian, hemen aurkitzen da sozialismo espainiarra. Nahiz eta hura marxismoaren interpretazio-modu jakin batetik abiatu (Engels-ek 1895az gero esaten zuen, sufragio unibertsala katalizadore eta arma zela klase-borrokan), eta XX. mendeko lehen hamarkadetako sozial-demokraziaren —batipat alemanaren— ezaugarrietatik (hauen oinarriak bait ziren, langile-klasean horrek zuen sustraitzapena, alderdiaren eta sindikatuaren arteko artikulazio estua, burokrazia efikaz baten sorrera, alderdiaren parlamentarismoa eta zatiketa ideologikoen aurrean ageri zuen tolerantzia), korronte honek marxismotik aldentzen diren eragin ideologikoak jasotzen ditu bere baitan 30. urteetatik aurrera.

Horietako bat planismoarena da, zeinak, 1933tik hara, plangintza defendatzen bait du sozialismoaren oinarritzko xedetzat; beste bat keynesianismoa da, honen arabera sozial-demokraziak, 40. urteetatik hara, kontsumoa zabaldu nahi bait du, ekonomi krisia borrokatzeko. II. Mundu-Gerraren azkenetik hara, partidu sozial-demokratek gero eta gehiago ahazten dute sozializazioa eta plangintza, eta, eskandinaviarrei jarraiki, «ongitasuneko Estatuaren printzipioak onartzen dituzte. Baina erregimen hau, onura sozialak herri xeheari zabaltzea denez, ez da sozial-demokraziarena bakarrik, eta mendebaldeko herrialde guztiek bilatzen duten gauza da. Aldi berean, eta urte hauetatik hara, atlantismoa da sozial-demokrazia karakterizatzen duen egitate berria: Estatu Batuek Soviet Batasunaren aurka zuten jarreran hartu zuen postura erabakiorra.



Honela, burgesiarekin konpromiso bat bilatu nahi duen teoria sozial-demokrata bat ari da Europan mamitzen, ezinbestekotzat jotzen dena pluralismoa eta ordezkapenezko demokrazia gortetzeko.

Bestalde, berriz, sozial-demokraziak bereizi egiten ditu gizarte zibila eta Estatu; eta horrek bide ematen dio, herrialde kapitalistetan boterea eskuratzeko, zeren, bere pentsatzeko moduan, nahiz eta teorian klaseen aurkatasuna onartu, Estatuak beti ere interes jeneralaren leku unibertuala bezala agertu behar bait du, eta, beraz, klaseen aurkatasunezko interesak baino gorago dagoen zerbait bezala; eta horrelaxe da Alderdi sozial-demokratik agintzen duenean ere.

Sozial-demokraziaren klase-izaera moteltze hau areagotu egiten da oraindik Internazional Sozialistaren errelantzamendurakin, zeina biziberritu egiten bait da 70eko urteetan sozial-demokrazia alemanaren eraginez, eta, zehatzago, horren zuzendari Willy Brandt-en eraginez. Internazional Sozialistak homogenotu egiten ditu bere buruerak nazioarteko politikan, eta, horrela, mendealdeko kapitalismoaren peoien laguntzaile erabakior egiten da, munduaren enparatuari buruz bere «Komunismoaren alternatiba Hirugarren Munduan» izeneko programaren bitartez; berebat batu egiten ditu bere erizpide eta iharduerak, korronte «eurokomunista» Europako komunismoaren indarrak sakabanatzen ari den une-unean. Joera honen hegemonia Europako sozial-demokrazian 1976ko urtean kristalizatzen da, Brandt ISren buru izendatzen dutenean. Honek berritaldi bati ekiten dio, zeina bait da «afiliatutako partiduen arteko harremanak indartzea eta guztien adostasunez horien posturak koordinatzea».

Inflexio internazional hau gertatzen da justu-justu Partido Socialista Obrero Español-a, hondatua eta frankismoaren garaian aktibitatearik ere ia ageri ez zuena, Felipe Gonzálezek gidaturik, bere buruerak eta egiturak eraberritzen hasten denean, zentzu erdieuropar eta modernotzaile batean, eta horrela trantsizio espainiarreko partidu hegemonikoa izateko prestatzen denean.

### **PCEren krisialdi handia**

Estatu espainiarrean agintzen duten taldeek, trantsizioko lehen urteetan (1975-1977), mesfidantzarik handiena dioten indarra, eta

beraz gehien galdatzen diotena, komunismo espainiarra da; baina hauxe da Erreformaren logika gartsuenik beretzen duen indarra.

Lehen urte hauetan egiazki, trantsizioaren protagonismoa bi pertsonaren eskutan gelditzen da: Mugimenduaren aparatu zaharra parlamentuzko demokraziara eraldatzen duen Adolfo Suárezen eskutan, eta Partidu Komunistako Idazkari Santiago Carrillorenetan. Honek baldintzagabeki adosten du 1977ko apirilean, eta bere legeztapenerako ukanbehar ezinbesteko bezala, PCk apoio osoa ematea, aginteango blokearen burueran Erreformaren oinarri izan behar duten hiru printzipioei: Monarkiaren defentsa, Armadarekiko atxekimendua eta batasun nazionalaren ukiezintasuna. Halaber, PC bera izango da Moncloako Itunei bere apoiarik gartsuena emango diena, demokrazia espainiarrak behar duen «konpromiso historikoa»ren fruitutzat bururatuz ingenuoki.

Baina bistaratzen denean, ezen Moncloako Itunak ez zirela kapitalismo espainiarraren interesek galdatzen zuten austeritatezko politikaren apoio huts eta soila besterik, eta talde hauek ezabatu egiten dutela Adolfo Suárez, honen partidua eta honen proiektu politikoa, esleitu zaion egitekoa betetzen duenean, paraleloan sortzen du horrek espainiar komunismoaren behin-betiko hondamena: joera desberdinetan zatikatzen da —«soviet-zalea», «euro-komunista», «eraberritzailea»—, baina horietako ezeinek ez du lortuko berriro eraginik izatea espainiar gizarte zibilean (halako eran, non Comisiones Obreras-en jarraitasun sindikala izango bait da Espainiako komunismoa desagertzetik salbatuko duena).

Gainera, buruera eurokomunista (hots, Estatuaren iharduera ekonomikoen handitzeak indar aurrerazaleen eta monopolioen arteko gerra-leku bihurtuko lukeela Estatua eta nolabaiteko neutraltasunez jantziko) esanguratsuki hurbiltzen da tesi sozial-demokratetara, hauen arabera «interes orokorra»ren leku neutrala eta klase sozialen protagonismoaren gainetik kokatzen den puntua bait da Estatua. Borroka terreno horretan jarriz gero, berriz, Europako sozial-demokraziak, mendebaldeko kapitalismoaren eboluzioa gestionatzeko bokazioarekin —eta ahalbidearekin ere bai—, partidu eurokomunistei irabazteko itxura guztiak dauzka. Joera orokorra da hori Europa osoan, eta Espainiako Estatuan indartu egingo da: hemengo PCE ez bait dago legitimitate historikoz jantzirik, Europako PCak bezala, hauek Mundu-Gerran faxismoaren kontra garaile atera zirelako; PCEk, aitzitik, Espainiako gerra zibila irabazi zuten indar faxistekin nazionalki berradiskidetu beharra hots egiten du joan deneko 20 urteotan.

## Euskadiko PK eta EIAren salbabidea

Lehen ere esan den bezala, erradikalismoa eta ezker abertzalearen joera bortxazaleak, 1977ko Udazkenean Moncloako Ituna izenpetu zenetik biziro ugaldu direnak, ez dira sortzen desberdin pentsatzetik, eta bai beren planteamenduen eta Espainiako ezker parlamentarioaren korrante desberdinen artean ezta alfabeto ezkertiar komun bat ere ez edukitzetik. Dena den, oso diferentea izango da Espainiako komunismoaren eta sozialismoaren euskal adarrek eramango duten eboluzioa.

Fronte Popularraren politikak Euskadiko PK sortu zuen, bere I. Kongresua 1935ean egin zuena. Euskal gidari komunista Astigarriak Gerra Zibila bitartean bultzatu nahi zuen autonomia erlatiboazko lineak porrot egin ondoren, nahasmen bat sortzen da Espainiako Partidu Komunistaren eta Euskadiko Partidu Komunistaren artean. Francoren heriotzak biziberritu egiten du indar hau, eta 1975ean egiten du bere II. Kongresua. EIAren zatiketetako batek, Euskadiko PKren kontrola lortzen du, Roberto Lertxundiren gidaritzapean.

Hiru urtean, ez da diferentziarik nabaritzen horien eta Espainiako Partidu Komunistako zuzendaritza carrillistaren posturen artean. Baina 1979tik hara partiduan krisia erretzen eta bertako joera desberdinak hezur-mamitzen hasten direnean, Roberto Lertxundi argi eta garbi «berritzaile»ekin lerrokatzen da; xedetat zuten hauek, eurokomunismoa bere antolamenduzko ondorio logikoetaraino eramatea eta PSOeri gero eta gehiago hurbiltzea. Egun horietan, adar hauek huskeria baino ez dira Euskadin, hauteskundeetan eta politikan.

Nolanahi ere, joera «berritzaile» hau izango da 1981ean EIArenkin bat egingo dena, partidu bakar bat, Euskadiko Ezkerra, sortze-ko (izan ere, hauxe bait zuen politikoki bizirik irauteko bide bakarra).

## Euskadiko PS espainiar nazionalismoaren bloke bezala

Oso bestelakoa da Euskadiko Partidu Sozialistaren eboluzioa. Beharbada, Estatu guztian sozialismo espainiarrak ez du inon

Euskadin hainbat pertsonalitate historiko izan: ezker aldeko ibaiertzean nukleo sendoa dago, Rubial eta Nicolas Redondoren inguruan mamitua; eta Gipuzkoan ere bada beste nukleo txikiago bat, militante komunista ohi batek, Enrique Mugikak, animaturik bizi dena; horri, 1970eko lehen urteetan, abokatu gazte multzo bat bilduko zaio, tartean Txiki Benegas eta Ramon Jauregui dituela.

Euskal taldearen eta Sevillako taldearen —Felipe González, Alfonso Guerra eta Galeote-renaren— arteko elkar-hartzea izango da madrildarrak espainiar sozialismoaren gidaritzatik kenduko dituen; gero bi taldeok sortuko dute, trantsizioko lehen urteetan, 100 urtekoa izan arren, «partidu berri» bezala agertu zenaren ernamaina (frankismoaren garaian izan zuen pasibitateagatik sortu zen batipat inpresio hori). 1974ean egin zen Suresnes-ko Kongresuak jarri zuen Sevillako taldea «partidu berria»ren gidari. Erradikaltasun antifrankistak, 1974ean artean bizirik ageri zenak, puntu asko galduko ditu jada 1976ko abenduan PSOEk egin zuen XXVII. Kongresuan, zeinak begiesten bait du Partidu hau Internazional Sozialistarekin alineatzea; alineazio hau, aurreko epealdiko karga doktrinala bere gainetik botatzen duen eran, geroxeago erakutsiko duen marxismoarekiko urruntasun ofizialean adieraziko da, eta, horrela, instrumentu egoki egingo da, Erreformako Espainian bo-terea eskuratu ahal izateko.

1977ko Ekainaren 15eko hauteskundeetan PSOEk erakutsi zuen hauteskunde-indarrak biztanleriaren portzentaia handia bilduko du Euskadin, modernizazioa lortzeaz aparte, «euskal komunitate abertzalea»ren hegemonia eztabaidan jarriko duen bloke «espainiarra» ere izan nahi duena: zuzendaritza sozialistak berak adoretuko du gai honetan. Euskal komunitate abertzaleko adar ezberdinak, multzoan, hauteskundeetan gehiago gainartzaile egi-ten direnean, eta batipat, ezker abertzaleak bere posturak maila guztietan erradikaltzen dituen neurrian, bigarren xede hau izango da Euskadin argi eta garbi nagusituko dena; hots, «euskal komu-nitate abertzalea»ri Estatu espainiarra legitimatuko duen pertsona-bloke bat (espainiar bloke nazionalista bat, alegia, nahiz eta sozia-listek honelako deiturarik onartu ez) kontrajartzearen xedea; eta nagusitu ere, halako eran, non ezker-fronte bat eratzeko asmoari eta euskal gizartearen modernizatzeko aspirazioari berari ere ez bait zaio horri adinako garrantzirik ematen.

## Euskaldunen «Zaputz Handia»

Azter dezagun orain euskal ezkerari buruz 1978an gertatzen den «Zaputz Handia»k duen intzidentzia. Gaur egungo iker-linea batek harremanean jartzen ditu elkarrekin, batetik, gizarte industrialak beste gizarte-modu postindustrial batera (hau da, zerbitzu-gizartera, enplegatu lepezuriak kopuruz langile espezializatuak baino gehiago direnekora, eta neurri handi batean emakume-lanean apoiatzen denekora) aldatzerakoan gertatzen diren fenomenoak, eta, bestetik, «Zaputz Handia» izenez deitu izan den fenomenoaren agerrera.

Teori joera honen arabera, gizarte industrialaren berariazko mugimendu sozialek —funtsean langile-klasearen mugimendu ziren— izaera autogestionarioa duen beste mugimendu-suerte bati ematen diote bide. Hauen agerpenak bilduko lituzkeen koadro sozialak, honako ezaugarri hauek besarkatuko lituzke: Gizarte-mota zaharretik, industrialetik, datozen gatazkak erakundeturik aurkitzen dira orain, Sindikatuek enpresarien eta Estatuaren boterearekin egiten dituzten negoziazioen itxuran. Krisian sartzen da gizarte industrialak berariazkoa duen ezagutzeko modua, optimismo historikoan oinarritzen dena. Intelektual-kutsuko liberalismo berria sortzen da; eta indartu egiten dira feminismoaren korrante ezberdinak. Teknokraten kontrako borrokak agertzen dira, boterearen salaketa ekonomi eremua baino haratago eramaten dutenak: horien eredu aproposa, borroka antinuklearrena izango litzateke. Azkenik, «Zaputz Handia»ren ezaugarriak sortzen dira. Forma ezberdinak izango lituzke honek, hasi galzorian dauden komunitateek beren iragana defendatzeko egiten dituzten mugimendu herrikoï mesianismo-itxuran agertzen diren etatik eta etorkizunera proiektatzen eta ordena ezarria ezesten duten anarkista-posturetan kristalizatzen diren mugimenduetaraino (teoriko batzuek, «autonomo» deitu mugimenduak inskribatzen dituzte marko honetan, hauek marxismotik datozen sektore sozialen laguntza jasoko bait lukete).

Baina Estatu espainiarreko gizarte zibilak, bere multzoan, eta trantsizioko urteetan, ez dio utzi gizarte industrial izateari zerbitzu-gizarte bihurtzeko; eta hori Euskadiren kasuan ikusten da nabari. Emakumeak gero eta kopuru handiagoan lan-merkatura joatea 60ko lehen urteetan hasi zen fenomeno da, eta nolahi ere arrapaladan etorri zen langabeziak afektaturik gelditu zena, zeina iritsi bait zen Euskadira Mendebalde guztian 1974ean hasi ondoren

eta euskal ehun industrial espezifikoa krisialdian sartu ondoren. Ehun industrial hori, izan ere, siderurgia, itsasuntzigintza eta ekipamendugintzan, bezalako produkzio-sektoreetan oinarritzen da, eta horiexek izango dira krisi ekonomikoak bereziki joko dituenak; eta horren ondorioak larriagotu egingo dira oraindik, berant-frankismoko proiektu espansionista zoroak direla medio.

Eta, hala ere, gizarte postindustrialaren ezaugarritzat deskribatzen diren fenomenoak eman egingo dira Euskadin denboraldi honetan (1974-1980), eta eman ere mendebaldeko «gizarte aurreratu»etan ematen diren intentsitate berean ez, baizik handiagoan. Horren arrazoia, Moncloako Itunak eta Amnisti Legeak, konbinaturik, izan zituzten ondorioetan bilatu behar da. Frankismoaren garaiko sindikalismoak bazituen, Espainiako Estatuan eta bereziki Euskadin, nahitaez klandestinitatean bizi beharrak eraginda, batasun asanbleariozko eta autoorganizaziozko ezaugarri «komunitario» batzuk, mendebaldeko esperientzia sindikaletatik bereizten zutenak; mobilizazioak eta utopia politikoen rola —hauek hitzaren zentzu noblean hartuz— leku berezia zuten haren baitan, eta negoziazioaren zeregina bigarren maila baterako uzten zuten. Moncloako Itunak egundoko saltoa da mendebaldar-tipoko sindikalismo baterantz, honetan gailur profesionalizatuak bait dira uga-zaberiarekin eta Estatuarekin negoziatzen dutenak; horrela berebat besagertzen da, eta trantsiziorik gabe, aurreko sindikalismoaren izaera utopiko-komunitarioa. Areago: Moncloako Itunaren onespena Estatu mailan diharduten sindikatuek ematen dute, eta ez euskal sindikalismoak; ondorioz, Euskadin inposizio politikoa eta antinazionaltzat jotzen da neurri hau. Hori dela eta, konnotazio erradikalak mundu sindikaletik era berriko mugimendu sozialerara desplazatuko dira Euskadin; horien hazikinak agertuak ziren Estatuan ere 70eko urteetan, Europari mimetikoki jarraituz; baina erne baino ez zuten egin artean; nolahi ere, edukin nazionala izango dute hasiera-hasieratik.

Amnisti Legea, 1977ko urrikoa, hori indartzera etorriko da bera ere: aurrena, diktadurazko erregimenarekin «zaharrak ahaztu eta kontu berri» egitera datorrena bezala agertuz, korronte libertarioak faboratuko dituelako: eta bigarren, legearen hutsuneetatik sortutako ondorioek, preso sozialei buruzkoek batipat, eta euskal adiskidetze nazionalari eskaintzen dizkion bide arrunt eskasek, indartu egingo dituzte euskaldunen «Zapuz Handia»n bat egingo duten korronteak. Erradikalitasun berri honek bainatuko ditu orokorki ezker abertzalearen izaera eta manifestazioak, eta berau

izango da elementuetako bat —bestea igurikapen nazionalen frustrazioa izango da—, urtebete eskas geroago Herri Batasunaren mugimendu politikoan kristalizatuko dena.

## Gizarte postindustrialia eta biolentzia iraultzailea

Era berean, gizarte industrialaren manifestazioetatik gizarte postindustrialaren manifestazioetara doan pauso hau —bestalde, heterodoxoa ere baden haxe— izango da Euskadin borroka armatu iraultzailearen iraupena esplikatuko duten zirkunstanzietako bat. Amerikako linea teoriko batek erlazio idarokarria ezartzen du gizarte postindustrialaren eta biolentzia politikoaren artean, Euskadin egia bihurtzen dela dirudiena. Interpretazio horren arabera, biolentzia iraultzailea ez da mugimendu sozial iraultzailearen sinonimo, baizik eta horren inportantzia alderantziz da proportzionala espezifikoki langileenak diren mugimenduen potentzial iraultzaileekin. Horregatik, biolentziazko egintzak sarriago gertatzen dira gizarte preindustrialetan eta postindustrialetan industrialetan baino, zeren azkeneko hauek lekua bait dute masen mugimendu erreformazale edo iraultzaileentzako, eta beste gizarte-modu haiek ez. Beraz, borroka armatua agertuko litzateke gizarte industrialak berariazkoak dituen mugimendu sozialak makaltzen direnean.

Euskal langile-sindikalismo iraultzaile bat, benetan masazko bat, ez izateak —edo ozta-oztako bat baino ez izateak—, eta ezker abertzalearen espresio sindikalak borroka «marginal»ekin batera joateak, badirudi egiaztatu egiten dutela hipotesi hau, ezaugarri postindustrialak langabezia arrapaladan gehituzetik sortzen diren gizarte batean.

### **Borroka armatuaren protagonismoa: ETA-m-ren Zutik 69.a**

Berant-frankismoko ETAtik sortutako ezker abertzaleko korronteetarik baten barnean, EIAk protagonizatutakoan hain zuzen, 1977ko azkenetatik hara borroka armatua hartzen ari den protagonismoaren kontrako erreakzioak berretsi egiten du zerako

teoria: «masen borrokak» behar duela prozesu iraultzailea gidatu eta ez «borroka armatuak»; honek, berriz, Erreformako Estatuak sortu duen marko sozio-politiko gero eta neurri handiagoan onartzera bultzatzen du, haren ustez, marko hau delako gizartea eraldatzeko alternatiba bideragarriak eskaini ditzakeen aukera bakarra. 1978ko urtarrilaz geroztik, EIAko zuzendaritzak esaten du, bi alternatiba besterik ez daudela ezker abertzalearen baitan: berea eta ETA militarrena; eta lehenengoa dela «gizarte burgesa kritikatzeko, baina paraleloki baliozko alternatiba bideragarriak masei eskainiz, hauek beren buruak antolatu eta aldaketa ezberdinetan protagonista izateko modua izan dezaten».

Garai berean, ETA militarrek dokumentu bat ezaguterazten du, *Zutik* 69, eta bertan, ondorioak ateratzen ditu egoera berritik. *Zutik* honek —garaikidea bait da 1977ko urrian dagoeneko hasia zen atentatu-kanpaina biziarekin, Bereziak ETA militarreko zuzendaritza zaharrarekin bat egin zirenean— euskal askatasun nazionalaren prozesuaren abangoardia bezala aurkezten du bere burua; deslegitimatatu egiten ditu, ez bakarrik Estatu espainiarra (Diktadura Militarren jarraipentzat emanetz), baita erakunde zko marko berria bultzatzen duten euskal indar parlamentarioak ere (hots, Euskal Kontseilu Orokorra); eta esplikatzen du, bideragarri —eta beharrezko— dela negoziazio politikoa, eta aldatzen hasten da KAS alternatiba, hasieran programa zibil bat izana, bere bost puntuetan, eta ezinbestekotzat joko ziren hauek, su-eten militarrik izango bazen. *Zutik* honetan subjektu iraultzaile berri bat definitzen da, KAS blokearena: bloke gidari bezala agertzen da, eta organizazio armatuak, alderdi politikoez eta masa-organizazioek osatua dago; eta lehen Partidu Gidariari ematen zitzaion autonomia zibila, orain —EIAren eboluzioarekin ETAk eraman zuen dezeptzioaren ondoren—, «oinarri asanbleariozko mugimendu auto-organizatu»etara desplazatzen da.

### **HASIren kongresua 1978ko maiatzean: KAS, bloke gidari bezala**

1978ko maiatzean egindako HASIren Kongresuak adostu egiten ditu partidu honen buruerak ETArekin buruerekin, subjektu iraultzaileari buruz (Kongresu honetatik hara, eten egingo da HASIren zati moderatua eta, EKIA izentzat hartu ondoren, EIArekin



fusionatzen hasiko eta, urterdi geroago, bat egingo da horrekin). Kongresu honetan, bloke monolitiko bezala definituko da partidua, joera desberdinentzako lekurik gabe; borroka armatuaren beharra Estatuari ematen zaion karakterizaziotik sortzen da, zeina bait da «indarrezko antolamendu berezi bat, bortxazko organizazio bat, klase bat zapaltzeko egina»; honek, berriz, ezinbesteko egiten du «indarrezko iraultza, Estatu burgesaren lekuan Estatu proletarioa jartzeko».

KAS da orain, ez partidua, definitzen dena «euskal iraultzaren bloke gidari, hau da, partiduen, masa-organismoen eta organizazio armatuaren multzo, bueltarik ez duten helburu iraultzaileak lortzeko gauza den bakarra».

Beraz, eta aldi berean, bi joeraren eraginak nozitzen ditu 1978an ezker abertzale erradikalak: itxuraz kontrakoak dira jorok, baina Erreformako Estatuaren aurrean osotoro kontrako jarrerara edukitzean bat datoz: alde batetik, arrapaladako langabezia duen Euskadiko gizarte postindustrialaren berariazkoak diren mugimendu asanbleario auto-organizaturen sakabanatze eta deszentralizazio izugarria; bestetik, organizaziozko hiperleninismoa, ETA militarrek eta HASIk onartua, baina praktikan «bloke gidaria»-ren eta borroka-prozesuaren zuzendaritza, organizazio armatuaren eskutan uzten duena.

## **Komando Autonomoak eta gerra zibila**

1978an kristalizatzen dira Euskadin mugimendu «autonomoa»k zituen bi esferen, zibil eta militarren, buruerak eta konfigurazioa, eta egitate hau KASen hiperleninismo horren kontrako erreakzio bezala esplikatu daiteke. Baina euskal ezker abertzalearen sektoreetan ematen diren erradikalizazioa eta kontestazioa ia oso absorbitzen dituzte KASek eta Herri Batasunak; horren demostragarri bezala dago, esperientzia «autonomoa» kopuruz huskeriazkoak diren sektore sozialetara murrizten dela euskal gizartean; eta hala ere ezagunak izatea lortzen baldin badute, dela, beren iharduera militar batzuek sortzen duten danbateko izugarriagatik, nahiz eta horiek «Estatu zapaltzailearen kontrako gerra» eskemaren barruan egon ez, eta bai areago «euskaldunen arteko gerra zibil» eskemaren barruan.

Euskal mugimendu autonomoaren espresio-organoa (bere alde zibilean) LAIA-EZ-en *Sugarra* da. LAIA-EZ bezala ezagutzen da, 1976an KAS alternatiba onartu ez zuen LAIAtik banandu zen zategoria. Argitarapen hauetatik, «Komando Autonomoak» izenez ezagutzen den organizazio armatuaren ideologia atera daiteke, hedaturaz. «Autonomo»en ezaugarria da, KASi —eta, beraz, ETARI— egiten dioten kritika erradikala, interklasistatzat kontsideratu; eta konbentziturik egotea, borroka armatuak, langileriaren eta herriaren boterea lortzeko behar-beharrezkoa denak, «gerra zibila» leher erazi behar duela Euskadin; eta berebat, partiduaren —edo organizazio armatuaren— «gidarismoa» ezestea, hau langile-klasearen ordezeko bilakatzen delako, haien ustez.

Buruera hauen arabera, mugimendu iraultzaileak ez dauka igarotzerik klasearteko kolaborazioa suposatzen duen prozesu estatutario batetik (KAS alternatibak planteatzen duen bezala); aitzitik, zera da eginkizun: burgesiaren eta Estatu espainiarraren indar armatuak desegitea, eta gerra zibil bat piztea bai Hego Euskadiren barruan eta bai «desagertutako Estatu espainiarreko» nazio guztien barnean. «Bortxa iraultzailea»k «gerra zibila»ren zerbitzuan jarri behar du; eta horren helburu militarrek, ETA militarrenen baino zabalagoak behar dute izan: biolentzia erabiltzeko ahalbide teorikoa ametitzen da, ez FOPEko jendearen kontra bakarrik, baita pertsonen eta enpresa-erakundeen kontra, partidu zibiletako militanten kontra, eta are gidari sindikalen kontra ere (Aktibitate-modu armatu honen izugarritzko oihartzunak, eta ondoriozko inpopularitateak, bide emango diete ETAREN kontrako indar politikoei —eta PSOERI batipat— organizazio horren kaltetan ETA eta Komando Autonomoak bat-berdintzeko).

(Bila litezke paralelismoak egoera honentzat biolentzia iraultzailearen eredu italiarretan, horien protagonista behin Brigada Gorriak eta behin Autonomoak izan bai ziren. Brigada Gorriek Autonomo italiarren buruerak kritikatu zituzten, beren arabera taldeak ez bait du mugimenduaren «beso armatua» besterik izan behar; eta Autonomoek, bere aldetik, Brigada Gorriak kritikatzan zituzten, hauek Armada etsaiaren kontra doan gerra-makina bezala bururatzen zutelako partidua, eta ez gizarte-mugimenduei loturik dagoen organizazio bezala. Paralelismoa ezar liteke bi multzoen artean; baina paralelismo hori axalekoa baino ez da, biolentzia iraultzaile hauen agerpenetan egitate nazionalak sortzen dituen diferentzia izugarrien kausaz. Gainera, ez dago konparatzerik ETA militarrek duen pisu politiko eta soziala —biztanleriaren

%15 inguruarekin nolabaiteko loturak dituena— Komando Autonomoekin, sostengu sozialik ia batere ez duen organizazioa izanik).

## Konstituzioa eta euskal errebindikazio nazionalen frustrazioa

1978an, «Zaputz Handia»z gainera, ezker abertzalea —eta hedaduraz, euskal abertzaleen sektore guztiak— erradikaltzera eraman zituen beste elementua, Espainiako Konstituzioak euskal errebindikazio abertzaleei ematen dien tratamendua da. Konstituzio-eztabaidetan argi eta garbi gelditzen da, espainiar munduko indar parlamentarioak, eskuindar, erdiko edo ezkertiarak, ez daukela inola ere prest euskal soberania nazionala errebindikatzen duten emendakinak onartzeko. Emendakinok, eskubide historikoak berrituztzeko eskaera bezala formulatuko zituen anakronikoki abertzaletasun tradizionalak, eta autodeterminatzeko eskubidearen itxura modernoa emanez ezker abertzaleak.

Konstituzio-eztabaidan erabiltzen diren terminoak berak —ezker parlamentario espainiarrak hartzen duen posturagatik baitipat— nazionalismo espainiarraren zerbitzuan jartzen dira, jakinaren gainean egin zen terminologi nahasmenduaren medioz. Federalismoa ez da ulertzen, beren borondatez federazioan biltzen diren ente federatuen jatorrizko soberania aitortzea bezala, baizik kompetentzia eta zerbitzuen deszentralizazioa ekarriko lukeen helpe tekniko soil bezala baino. Eta hori ere modu uniforme batean Estatu espainiarreko ente autonomiko guztientzat, bai edukin historiko nazional bortitza baten jabe diren nazionalitateen bizileku direnentzat, eta bai mugape geografiko-administratibo soilak direnentzat.

Berebat, autodeterminazio-eskubidea ere errebindikazio demokratiko soil bezala presentatzen da, zeinak frankismoaren garaian bazuen zentzua demokrazia formalaren etorrerarekin galdu bait zuen, edo bestela —orduak komunista eta gaur sozialista den Solé Turá-ren interpretazioan— Nazioarteko Zuzenbidearen teoriarik sekularik egin ez den bezala definitzen da: «demokraziazko printzipio bat da, independentzizaleak demokratikoki —hau da, hauteskunderetan— garaituz, separatismoak galeratzeko balio duena».

## Lege antiterrorista eta euskal antieuropeismoa

Ezker abertzaleak (eta euskal gizarteko sektore handiek ere) Espainiako Kongresuari egiten dioten zaputza gero eta handiagoa da, Iruñeko sanferminetan eta beste euskal herri batzuetan, hala nola Donostia eta Errenteria, Estatuaren Segurtasuneko Indarren demaskerien aurrean Kongresuak erakusten duen pasibitate ia erabatekoa dela medio; eta izugarritu egiten da, hilabete eskas geroago, Kongresu Espainiarrak praktikan ahobatez —euskal abertzaleen indarrak salbu— legeria antiterrorista bat onartzen duenean, zeinak legezko oinarriak jartzen bait ditu salbuespen-egoera indibidualak sortzeko, hartarako behar den legezko aldarrikapenik gabe. Legeria antiterrorista honekin, Gobernu espainiarra Merkatu Komunecko Estatuaren proiektuari atxekitzen zaio, zeinaren asmoa bait da «Europako eremu judizial» bat sortzea, Estatuaren Komunitatearekin egin nahi zen proiektu porroteginaren orde z hori jarri ahal izateko. Eta horrela, faktore psiko-politiko berri bat sartuko da ezker abertzalearen osaeran: anti-europeismoa.

## Herri Batasuna: hasierako elementuen heterogenotasuna

Herri Batasuna, 1978ko apirilaz gero, lau partiduren koordinatzailea zen (HASI, LAIA eta KASeko bi eta beste bi euskal sozialista izaerakoak, ANV eta ESB). Baina Herri Batasunaren irudia 1978ko urrian mamitzen da.

Garai honetan, horren indarra aipatu sektoreetatik sortzen da, hots: Konstituzio espainiarrak eskaintzen dituen ikuspegiaren aurrean sortzen den euskaldunen frustazio nazionala, zeinak biziberritu egiten bait ditu erromantikoki abertzale direnen postura batzuk, Telesforo Monzonena kasu, eta indartu legitimitate historikoaren lokarriak euskal iraganaldi hurbilarekin, Monzon eta ANV partidu historikoa bidetzat harturik; parlamentarismoa zapuztea, eta hedaduraz, erakundeak; haserre bizia «antiterrorismo demokratikoa» ren aurrean.

Faktore hauei, beste berri bat erantsi behar zaie: urrian PNVk konbokaturiko manifestazio antiterroristari (Bakearen aldeko manifestazio deitu arren) ezker abertzaleko sektoreek egin zioten gai-

tzespena. Manifestazio hori partidu horretako kupulak berak erabakia zen, bide mingarri baina ezinbesteko bezala, parlamentu-contrako erradikaltasunaren olatupean erortzetik ihes egin ahal izateko, gizarte abertzale guztia ari bait zen bereganatzen Konstituzioaren emaitzak ikustean.

HBn biltzen diren sektore sozialen ezaugarri auto-organizaziozko, asanbleario eta erlatiboki partiduen kontrakoak direla medio, Herri Batasunako «independentek» egiten dira (hala nola Telesforo Monzon, Migel Castells abokatua, Letamendia-Ortzi diputatu-ohia) herriak onartutako ordezkari mugimendu horretan, non postura erradikal kontestatarioenak buruera abertzale klasi-koekin batzen diren. Hala ere esan beharra dago, hasiera-hasieratik, politika herrikoi eta masazkoa egiteko lanabes bezala bururatzeko duela KASek Herri Batasuna, eta, beraz, «bloke gidariak» kontrolaturik eta horren menpean egon behar duena bezala. Denbora-puska bat beharko da —urte-pare bat inguru— Herri Batasuna KASen menpean egoteko eskema teoriko hau benetan praktikan nagusitu arte. Eskema horri nagusitzen lagunduko diote Gobernu espainiarrek aplikatuko dituzten proiektu zapaltzaile eta militarizadoreak ezker abertzalearekiko tratuan; eta hauek mimitikoki, buruera autoritario eta hierarkikoak sortu eta indartuko dituzte ezker abertzalearen baitan.

Nolanahi ere, 1979ko urtean eta 1980koaren hasieretan, mantendu egingo dira Herri Batasunaren sendotasuna eta autonomia; eta hau izango da euskal gizartearen zapalkuntzari kontra egiteko biderik nagusia, gobernuak daukan zapalketa-posturari buruz. Zapalkuntzaren kontrako postura hori bi aldiz da beharrezkoa, apuntaleku berezi bihurtzean HB material eta sinbolikoki (zapalaldi honetako gizonik ezagunenei terrorismo-apologiazko prozesuak hasiz).

## **EIA: Estatutua «naziogintza» bezala**

Berant-frankismoko ETAtik sortu zen beste korrontearen eboluzioa, EIArena, zuztar-zuztarretik aldenduko da ezker abertzalearen atal erradikal eta kontestatzailetik.

EKIA EIA n sartzean, 1978ko udazkenean, erraztu egingo da aldaketa, oinarritzat «partidu gidaria» duen antolamenduzko bu-

ruera batetik eskema komunista eta sozialistaren artean bereizketarik egiten ez duen partidu «zabal» batera (buruera hau izango da EKIAren benetako aportazioa, eta printzipio marxista-leninistak beren hartan gordezale zen atal «kritikoa»k partidutik alde egitea probokatuko du). EKIAko kideek lagunduko dute berebat, EIAk Autonomi Estatutua onar dezan, zeinaren marko juridiko-legalak nahitaez deribatu behar bait zuen gai horretaz Espainiako Konstituzioak xedatzen duenetik.

PNVrentzat, Estatutua tresna bat izango da, bere nagusitasuna egikaritzeko, bai euskal gizarte zibilean eta bai erakunde autonomikoen bidez sortutako gizarte politikoan; Euskadiko Ezkerrarentzat, berriz, bere politika praktikoaren bobedako giltzarri izango da. Kontzientzia «abertzalea» ordeztuko duen kontzientzia «nazionala» sortzeko borroka bezala bururatuko du EIAk Estatutuagatik borroka. Gidalerro hauek erabaki ofizial bihurtuko dira, 1979ko uztailean Leioan egindako Kongresuan. Hala ere, burgesia nazionalarekin (hots, PNVrekin) aliantza mantentzeko erabakia hartuko da Kongresu honetan, Estatutua edukin nazional bezala bete beharra dagoelako. EIAk eta jadanik Herri Batasuna denak elkarren artean dituzten posturen diferentzia ikusirik, Kongresu honetan ateratzen den ondorioa da, ezinezkoa dela sistemari erradikalki kontra egitea, HB/ETA militarra tandem-a dagoelarik.

## **ETA-pm: estatutu-garapena eta UCDren kontrako atentatuak**

1979ko urrian Estatutua onetsia izan ondoren, hauek dira, EIAren ustez, egin behar diren lanak, estatutu-garapenaren burutze logikoa direlako: Estatutuaren edukin autonomikoa bultzatzea, Nafarroaren integrazioa lortzea, eta presoak gartzeletatik ateratzea. Eginkizun horiek alegatzen ditu ETA politiko-militarrak borroka armatuarekin segitzeko.

Baina hurrengo urtean, EIA eta ETA-pm-k beren buruei jarri zizkieten helburuak ezinezko bihurtzen diren neurrian, bi indarrok botako diote frustrazio horren errua, ez Estatutuaren testuak berak berekin dituen mugapenei (Herri Batasunak bezala), eta bai UCDren postura erreazionario eta subjektiboari, hura izango bait zen «aginteko bloke» espainiarraren lantza-punta, euskal Es-

tatutuaren garapen aurrerazale bat galerazteko. ETA politiko-militarrak, pentsaera hau aurrera eramanez, heriotz atentatuzko kanpaina bati ekiten dio euskal UCDeko gidariaren kontra, 1980ko udazkenean. Hau izan zen 1981eko otsailaren 23ko (23 F-ko) kolpe militarren saioaren zio inmediatea (ETA militarrek behin eta berriz, etengabe, FOPEkoen kontra egiten zituen atentatuak baino areago).

## **Euskal Herriko Batzarre Nazionalaren iraungipena**

1979ko erdialdeaz gero, edukin bortizki asanbleazale eta erlatiboki partidukontrakoa duen mugimendu sozial bihurtu den Herri Batasunak, esperientzia iheskor bat biziko du Euskal Herriko Batzarre Nagusiarekin (EHBNrekin). Honen indefinizioa sortzen da, adostasunik ez dagoelako KASen buruera politikioen —KASek ez bait du garbi ikusten nola enkajatu behar duten bere politikan Herri Batasunak eta, gutxiago oraindik, EHBNk— eta organismo honek berez erantzun asmo dien eskaera-modu sozialen artean.

Urte-erdi batean, 1979ko apiriletik urriaren azkenetan Estatutua onetsi zen arte, duda egingo du Batzarreak zer izan: boterekontrako euskal organo herritar (batasunezko organismoen ordezkariak, Herri-asanbladek, Langile-asanbladek eta kargu hautatuak osatu beharko luketena, baina praktikan, uste izatekoa zen bezala, HBko kargu hautatueta mugatuko dena), mugimendu autoorganizatu asanblearioen koordinatzaile, ala Euskadiko indar gehienak onesten ari diren Estatutu-proiektuaren Estatutu alternatibo bat egingo eta sustatuko duen organismo. Horregatik, 1979ko urrian, hiru probintzietako botuemaileen gehiengo urri baina benetakoz Estatutua berrestean, jarraitu bai jarraituko du bizirik EHBNk, kontsigna gisa, baina praktikan ez du operatibitateirik izango.

## **KAS eta HB: egitura-berritzen**

Indefinizioak Herri Batasuna ere harrapatuko du, eta honen egiturak, Gobernuak zapalkuntza handi baten xede egin zituenetik, pasibitate erlatibo batean egongo dira 1980ko azkenetararte. Euskal gizartea bere multzoan militarizatzen ari da: ez bakarrik ETA-m-ren bultzada militarra handitu egiten delako eta ETA-pm-k

UCDren kontra atentatu-kanpaina bortitza egiten duelako, baita lege antiterroristaren aplikazioak eta lege aldetik definigaitza den «terrorismoaren apologia»zko tipoa erabiltzeak Euskadin zapalke-tazko poltsa batzuk sortzen dituelako, horien kopuru-mugak praktikan Herri Batasunako 180.000 botuemailetara hedatzen direlarik; hein berean, KASen barnean aplikatzen diren diziplina kuasi-militarrezko erazpideak dira ezker abertzale erradikalaren baitan inposatzen direnak.

1980ko urritik hara, LAB erabat KASen orbitan alineatzearekin kointzidituz, Koordinadorako idazki-sail batek kritikatu du HBren indefinizioa eta zuinak jartzen ditu, horren egiturak etorkizunean nolakoa izan beharko duen adieraziz. KASen idazki haue-tako batek, «Herri Batasuna, xedeak eta berregiturapena» izeneko-ak, HBren hausturazko politika-falta kritikatu du, eta KASen aburuz Batzarrearen funtzio izan behar luketenak beretu egin dituela; idazki honen arabera, HBren Apoioko Juntak kontrabote-rezko organo izan nahirik ibiliak ziren, EHBnk izan behar zuela-rik hori. HBren funtzioak hausturazko erakunde-politika bat praktikatzera eraman behar dira berriro, kanpo-harremanak gara-tzera, Erreformari kontra egitera, artxibo- eta dokumentazio-la-nak egitera, Batzarrea apoiatzera.

Azken puntua salbuetsiz (hau izango da Batzarrea aipatzen den azkeneko aldia), koordinatu hauen gainean egingo da HBren be-rregiturapena 1981aren erdi aldera, hau benetan KASen mendean seguru utziz. Berregiturapen honetan, desagertu egiten dira Apoioko Juntak, eta HB piramide baten antzera gelditzen da egi-turaturik: basea Herri-asanbladak izango dira, bakoitza bere Bat-zorde Koordinatzailearekin; hauek, beren aldetik, Herrialdeetako Asanbladak eratuko dituzte, Batzorde Koordinatzaile banarekin, eta azkeneko hauetatik sortuko da Mahai Nazionala; baina honen zeregin exekutiboak Batzorde iraunkor batek beteko ditu, kontra-pisu eginez HBren egiturapen asanblearioari, bere baitan dituen partiduei esker: HASI eta ANVri esker, LAIA eta ESBren dimi-sio-iraiizpenaren ondoren.

## **KAS eta mugimendu asanblearioak**

«Autoorganizatu tipoko mugimendu asanblearioak» KASen barruan dagoen masa-organismoak kontrolatzen ditu, hau da,



ASKk. 1980tik hara ASKren lurralde-egitura osatzen dutenak dira: KASeko jendearen lurralde-asanbladak Batzorde antinuklearretan presente daudenak, Amnistiaren aldeko Gestorak, Auzo-elkarteak eta Gau-Eskolak. Bestalde, mugimendu asanbleario hauetako garrantzitsuenak, Amnistiaren aldeko Gestorenak xedatzen du bere Bizkaiko Estatutuetan, ezen Urgentzietako Batzordeak KASeko militantez osaturik egongo direla. Beraz, bai HB eta bai gizarte post-industrialaren berariazkoak diren mugimenduak Koordinadoraren egituretan gelditzen dira diziplinaturik; honek kontraesan bat irudi luke mugimendu-mota hauetara suposatzen zaien izaera auto-gidatuarekin.

Hala ere, KAS bete-betean Estatuaren kontra joateak bere inguruan sortu duen hutsunean, bizirik jarraitzen dute (eta indartu ere egiten dira) mugimendu-mota hauek, egitatez KASeko indarren menpean egon arren. Eta mugimendu horien eta Estatuaren kontra joatearen artean dagoen erlazio estuaren frogagarria da, Euskadiko Ezkerrak, nahiz eta teoriarik horien autogestionatu-izatera apoiatu, ez duela lortu horiek bere eraginpean edukitzerik.

## PKko «berritzaileak» eta EIAren apoioa Konstituzioari

Egia esan, 1982ko urtearen azkenetatik aurrera, benetako konfluentzia bat dago —hitzezko kritika batez kontrapisatua— Euskadiko Ezkerraren eta botereko sozialismo espainiarraren artean. 1980ko udazkenaz gero, handiagotuz doaz EIAren eta ETA-pm-ko zuzendaritzaren arteko tirabirak (gogora UCDko gidarien kontrako atentatu-kanpaina). Lehen kritikak gurutzatzen hasten dira bi organizazioetako buruzagitzen artean; bestalde, Euskadiko PKren joera «berritzailea», Santiago Carrillok partiduari ezarri nahi dion zentralismo artifizialaren kontrakoa bait da, lehen pausok ematen hasten da EIArekin bat egiteko.

1981eko otsailaren 23ko *putsch* militar porrot eginari buruz, KASek ematen dion intepretazioa da, Erreformaren auto-kolpe bat dela, Diktadura Militarraren iraupenaren aldeko indarrak berantolatzea bilatzen duena; EIAk, berriz, uste du, indar inboluzionistak eta indar demokratikoak banatzen dituen dela oposizio printzipala, eta pentsatzen du, sektore demokratiko guztien egin-beharrak dela Espainiako Konstituzioa apoiatzea, indar haien kon-

tra demokraziaren sinbolo izan dadin. Paraleloki, ETA-pm-k su-  
-etena anuntziatzen du hil honen azken aldera, negoziazioaren bi-  
dez lor daitezen, eta ez borroka armatuaren bidez, hain gartsuki  
borrokatuz bilatu zituen xedeak: Nafarroa euskal ente autonomo-  
an berriro sartzea eta presoentzako amnistia.

EIAren eta Euskadiko PKko sektore maioritarioaren bat egitea  
1981eko lehen erdian egiten da. EIA, korronte honen hastapeneko  
burueren azken arrastoa zena, desagertu egiten da partidu bezala,  
eta hortik ateratzen den indarrak, Euskadiko Ezkerrak, EKIAk  
anuntziatu eta Euskadiko PKko «berritzaileek» apoiaturiko bu-  
ruerari erantzungo dio, masa-partidu zabal izateko asmoari.

Jadanik ez bait dago tirabirarik Euskadiko Ezkerraren errebin-  
dikazio juridiko-erakundetarren eta Konstituzioak sortutako mar-  
ko erakundetarren artean, Bandres eta Onaindia elkarrizketan  
hasiko dira, garai hartan Barne-Ministrari zen Rosón-ekin, ETA-  
-pm-ko presoak kanporatzea eta errefuxiatuak etxeratzea lortzeko  
asmoz, baldintza bakartzat «biolentzia» baztertzea eta armak  
uztea jartzen zaielarik.

## Euskadiko Ezkerra eratzeko Kongresua

Euskadiko Ezkerra eratzeko 1981eko ekainean egin zen Kon-  
gresuak elaboratzen dituen linea politikoak espreski apartatzen di-  
ra Otsagabia taldearen elaborazioetatik, eta EEn gaurdaino in-  
darrean daudenak dira.

Espainiako Estatuaren egoeraz esaten da, Konstituzioa dela  
golpismoari mugak jartzen dizkiona. Euskadin sozialismoa ezar-  
tzeko estrategia, abertzaleak, sozialistak eta komunistak elkartze  
bezala bururatzen da. Kontsideratzen da, ezen estatismo autorita-  
rioa (Poulantzas-ek sortutako terminoa da hori) boterean dagoen  
eskuinarena bakarrik dela ezaugarri bezala; eta joera horrekin aka-  
batzeko jarraitu behar den politika-eredu bezala ipintzen da, Mit-  
terrand-ek Frantzian eta Papandreu-k Grezian daramaten politika  
sozialista. Euskadiri dagokionez, pentsatzen da, askatasun nazio-  
nalaren estrategiak eskatzen duela, Estatutua kontsideratzea auto-  
determinazio-eskubidea egikaritzeko modu bezala; eta Estatu Fe-  
derala defendatzen da (lehen aipatu diren bi buruera kontrajarrien  
artean bereizketarik egiteke). Gizarte-mugimenduei buruz, azpi-

marratzen da, partiduak ez direla aski eta esaten da, ezinbestekoa dela partiduak mugimendu horiekin artikulaturik egotea (hauen artean aipatzen dira, mugimendu feminista, hiritarra, gazteena, ekologistena, euskara defendatzen dutenena, eta presoek askatasuna bilatzen dutenena).

Erakundeeko politikari dagokionez, EEko Kongresuak kritikatzeko dituen bai komunistak, parlamentuzko bidea alferra dela esaten dutelako, eta bai sozial-demokrazia, hauteskunde bideak bakarrik planteatzen dituelako. Erakundeeko politikaren abiapuntu, esaten da, zerako egitateak behar du izan: alegia, kapitalismoa bateraezina dela erakunde demokratikoekin, eta erakundeeko hegemonia bilatu behar dela; hori konkistatu behar duten organo partehartzaileek gizarte zibiletik sortu behar dute.

## **ETA-pm: VII. Biltzarrekoaren autodisoluzioa eta VIII. Biltzarrekoaren sendotzea: gramscismo ezkertiarra eta iraungipena**

Politika honek ETA politiko-militarraren barnean probokatu-tako tentsioak, preso eta errefuxiatuei buruzko negoziazioen ondorio desmoralizatzaileen eraginez areagotu egin zirenak, gramscismoaren bi interpretazio kontrajarritan kristalizatzen dira.

Maria Antonietta Machiochi-ren eritzian, balegoke gramscismoaren interpretazio eskuindar bat: prozesu demokratikoa elektoralismo eta parlamentarismo burgesarekin nahastuko luke, eta gero eta botere handiagoa eskuratzea bilatuko luke batez ere gizarte zibilaren kultur organismoetan eta gizarte politikoaren erakunde parlamentarioetan, klase arteko kontraesanak ahaztuz; interpretazio eskuindar hau litzateke Euskadiko Ezkerra berriak eta ETA politiko-militarreko joeretako batek onartua.

ETA politiko-militarreko beste joera batek gramscismoaren interpretazio ezkertiarra jarraituko zuen leial, eta batez ere posizio-gerraren hiru momentuen artean Gramsci-k egiten zuen bereizkuntza, klase-borrokaren bide berri bezala. Joera honek beharrezkotzat joko zuen beti ere borroka armatua, bere buruari esleitzen zion eginkizuna ere organizazio politiko-militarra bait zen, momentu politikoko xedeak lortu ondoren, momentu militarra iristen zenerako.

Bi buruera hauek, 23-F-ko kolpea baino urtebete geroago, 1982ko otsailean, lehertuko dira: VII. Biltzarrekoak tregoa mantentzea erabakitzen du, eta, 1982aren azken aldera (PSOE boterera iristearekin bat), disolbatu egiten du bere burua; borroka armatua beharrezko ikusten duen lineak, berriz, 1982ko otsailean egiten du bere VIII. Biltzarrea.

Asanbladaren ondoren idatzitako *Zutik*-en (patetikoa benetan), aurrera segitzea erabakitzen duen ETA-pm-k eskuineratzearen fruitu bezala karakterizatzen du periodo hau, eta autokritika egiten die trantsizioaz berak eduki izan zituen buruerei (bete-beteko kritika eginez Euskadiko Ezkerraren jarrerari). Estrategia politiko-militarra, biolentzia eta hegemonia kontzeptuetan oinarritzen da beti ere, eta Gramsci eta Poulantzas-en buruera teorikoetara jotzen du espreski: bai herri-gerra eta bai altxamendua ezinezkoak direnez, hegemonia konkistatzera eta biolentzia metatzera orientatu behar da borroka armatua. Baina, biolentzia metatze honen xedea herri-konkistak garantizatzea baldin bada, ez dago sektore sozio-politikorik, ETA-pm-koen ihardueran ispilatua aurkitzen denik. Hala, Auzolan-en esperientzia zibil laburraren ondoren, ETA-pm-ren aktibitatea hilez joango da berez, eta horren ihardu-neango militanteak ETA-m-ren aparatuak bereganatuko ditu.

Beste horrenbestetsu esan daiteke Komando Autonomoetz: 1984eko martxoko hauteskunde-bezperan Casas senadore sozialistaren kontra egindako heriotz atentatuaren ondoren, desagertu egingo dira praktikan.

## **Etorkizunean zer?**

Herri Batasunak, behin Gobernu espainiarraren eta behin erakunde autonomikoen kontrako enfrontamenduetan izan duen protagonismoa dela bide, ezin konta ahal gorabehera ikusi behar izan ditu azken urteotan; baina ez HBren buruerek eta ez HB eta KA-Sen organizazio-egiturek izan dute inolako aldaketarik 1988ko hasieretaraino.

ETA-m-k anuntziaturiko tregoa (su-etenari buruzko akordio behin-betikoaren aurretik, baina aldebiko akordio baten fruitu izatekotan), eta azken bolada honetan ezker abertzale erradikalak daukan eboluzioa, bere sektore zibilentzako gero eta autonomi

maila handiagoak lortzeko zentzuan, guztiz fenomeno berriak dira eta, agian, fase berri baten hasiera adierazten dutenak.

Fase horri benetan antzemateko, berriz, ez behar hainbat denbora eta ez behar hainbat urruntasun dago.

Euskaratzaileak: G. Nazabal, F. Mendizabal

P. L.

---

#### LA IZQUIERDA EN EUSKADI (1968-1988)

#### LA GAUCHE EN EUSKADI (1968-1988)

*El artículo expone la trayectoria de las principales formaciones políticas de la izquierda vasca en los últimos veinte años. En sus orígenes la izquierda vasca nace en torno a ETA y bajo la influencia de modelos revolucionarios que irán derivando de Mao a Che Guevara, Debray, Guillén y Marighela, e.d., de «guerra revolucionaria», unificando en sus propósitos la lucha social y nacional. Dicha izquierda se configura como una comunidad sólida y llena de fuerza precisamente bajo la terrible represión que caracteriza los últimos años 60 y los primeros 70, quedando constituido como núcleo el «grupo-Estado» armado de ETA, quien recupera, entre diversas vicisitudes ideológicas, los principios leninistas de organización interna. Diferencias ideológicas han ido provocando escisiones, a veces incluso enfrentamientos, dentro de la izquierda vasca. Sin embargo ha sido la distinta apreciación de la coyuntura política, no diferencias ideológicas, lo que ha provocado en 1974, ante el final del franquismo (que se considera próximo), la escisión de ETA en militares y político-militares, revelándose especialmente iluminador para los planteamientos de esta época el pensamiento de Gramsci. Por los mismos años la izquierda abertzale se ve enriquecida con las aportaciones de movimientos de diversa procedencia: asamblearios, antinucleares, ecologistas. Mientras la izquierda española acepta la Reforma, la vasca —en bloque— se opone inicialmente a ella con el «gran rechazo». El movimiento agrupado en la izquierda vasca muestra caracteres propios de una sociedad postindustrial. La unidad de este movimiento se resquebraja cuando parte del mismo —EE— acepta el Estatuto, 1979, mientras que la otra —HB— lo rechaza, desapareciendo poco después la rama político-militar de ETA. En este momento asistimos a un replanteamiento de sus posiciones por parte de la izquierda vasca, siendo todavía temprano para poderse hacer un análisis del mismo.*

L'article expose la trajectoire des principales formations politiques de la gauche basque ces vingt dernières années. A l'origine, la gauche basque naît autour de ETA et sous l'influence de modèles révolutionnaires qui dériveront de Mao à Che Guevara, Debray, Guillén et Marighela, c-à-d, de «Guerre révolutionnaire», en unifiant dans son but la lutte sociale et nationale. La dite gauche se forme comme une communauté solide et pleine d'élan précisément sous la terrible répression qui caractérise les dernières années 60 et les débuts 70; le «groupe-Etat» se confirme comme le noyau armé de ETA, qui récupère entre les diverses vicissitudes idéologiques, les principes léninistes d'organisation interne. Des différences idéologiques ont provoqué les scissions, parfois même des affrontements, à l'intérieur de la gauche basque. Cependant la différente appréciation de la conjoncture politique sans distinction idéologique a été ce qui a provoqué en 1974, devant la fin du franquisme (que l'on pense proche), la scission de ETA en militaires et politico-militaires; la pensée de Gramsci se révélant spécialement illuminatrice pour les mises en questions de cette période. Dans les mêmes, la gauche patriotique (abertzale) se voit enrichie avec l'apport de mouvements de provenances diverses: assembléaires, antinucléaires, écologistes. Pendant que la gauche espagnole accepte la Réforme, la basque s'oppose initialement à celle-ci avec un «refus total». Le mouvement regroupé dans la gauche basque montre les caractères propres d'une société post-industrielle. L'unité de ce mouvement se fête quand une partie de —EE— accepte le statut, 1979, pendant que l'autre —HB— la refuse, la branche politico-militaire de ETA disparaissant peu après. En ce moment, nous assistons à une remise en questions des positions de la gauche basque, étant trop tôt encore pour faire une analyse de celle-ci.

## Intelektualen erantzukizuna demokraziarako trantsizioan

Jesús Ibañez

«Ohizko da, eta oso legezko, pentsamendu politikoaren halako korronte nagusi bat identifikatzea (modu ilegitimoan *pentsamendu erantzulea* deitua), nola ideologia nagusiaren muga estu samarren barnean mantentzen den, eta nola zalantzan jartzen ez dituen erabaki-hartzearen gain zuzeneko eragina dutenen bururapenak eta razionalizazioak» (Noam Chomsky).

Diktaturako gau luze hartan (orain, berriz, pudiziaz «aurreko erregimen» bezala gogoratzen den horretan), mugimendu intelektual indartsua garatu zen Espainian. Intelektualak, zientzilariak eta artistak, beti egon ziren diktaturaren kontrako abangoardian. Gerra zibileko irabazleen gain poetaren madarikazioa jausi zen: «Nik, berriz, mutu utziko zaitut... mutu! / eta nola sua piztu / kantua eramaten badut nirekin?». Guztiok ispilatzen ginen Francoen (gaur pudiziaz «jenerala» esanez gogoratzen den horren) izenean eta gorputzean, eta ispilatze horrek elkartzen gintuen, multzo bihurtzen gintuen.

Ispiluak hautsi zirenean, diasporari ekin genion eta multzoa sakabanatu egin zen. Batzuek bazter-zoko partidistetan aurkitu zuten babes: kritiko izatetik organiko izatera pasa ziren. Gehienak

isiltasunaren planetara exiliatu ziren. Eta denak, Nietzsche-k esatera Kant azeriak egin bezala, kaiolaren barnean geratu ziren barrroteak hautsi eta gero. Francok hil ondoren lortu zuen bizi zela lortu ezin izan zuena. Oker ez banago, Shilley-k uste dut idatzi zuela lurrean hautsitako ispiluaren puska bakoitzak ispilatzen duela objektuaren egiaren zati bat. Ispilu hautsiaren puskekin asmatuko ote dugu ispilua osatzen? Politeismoa monoteismo zatikatu bat besterik ez da: multzoa batzen duen adierazlea adierazle-multzo batean difraktatu da. Eta ispiluaren zatiak juntatu behar dira, botearean aurpegia osatzeko.

Aldaketa hau zer ote da, koiunturala ala estrukturala? Beldur naiz estrukturala ote den. Modernitate deitu horretatik postmodernitaterako urratsa da. Desiraren egitura modernoak, subjektu (zaitu) bat objektu (galdu) batekin aurrez aurre jartzen duenak, porrot egin du. Baudrillard-ek subjektuaren fraktalizazioaz hitz egiten du: subjektua «bera gaintzen duen multzo edo finalitate batean transzenditu beharrean, milaka ego miniaturizatutan difraktatzen da, denak antzekoak elkarren artean eta enbrioi moduan desmultiplikatzeko direnak kultibo biologiko batean bezala, ingurua eszisi-paritatez asezez infinituraino». Itzulerako buelta da hori, sexutasunetik sexugabetasunera — klonikotasunera. Ispiluak, txiki-txiki eginda, birrindutako mundu bat ispilatzen du soilik, subjektu eta objektu partzialtako mundu bat. Barne-hemeoteziak jokatuko mundu bat: subjektuaren parte bakoitza (rol bakoitza), objektuaren parte bakoitza (funtzio bakoitza), osotasunaren miniatura dira.

Ez zaio arrazoirik falta Finkielkraut-i «pentsamenduaren derrota»z hitz egiten duenean. Razionalismo modernoaren ondotik erromantizismo postmodernoa dator. Gizateria pluralean deklinatzen hasten da: modernitatean, lan intelektuala unibertsaltasunaren barnean sartzen zen; postmodernitatean partikularitateetan desmultiplikatu da: «eros ezak uharte bat» (Cariba), «bakoitzari bere burbuila» (Baudrillard). Baina badaude eskuineko postmodernismo bat (bukatu egin da emantzipazioaren aldeko mugimendua) eta ezkerreko beste postmodernismo bat (ispiluaren eta munduaren birrinak osatu —ahal den neurrian—, uharteen artean konexio bat bilatu). Ezker-eskuineko betsaretako irudien arteko disparekotasunaren problema ikuspen esteroskopikoa asmatuz konpondu du eboluzioak: hau da, hirugarren dimentsioa asmatuz, bi begietako irudi disparatatuak integratzen dituena. Gauza bat aldi berean beharrezko eta ezinezko gertatzen denean, aldatu egin behar izaten dira jokoaren erregelak.



Intelektual espainol ez-euskaldunen erantzukizunari buruz eztabaidatuko dugu, orain eta hemen: espazioaren zati honetan, Espainia eta Euskadiren artean zatitutako honetan; denboraren momentu honetan, diktaduraren kontrako borroka piztutako itxaropenak trantsizio (demokratiko, diote) liskatsu batean itota dauden honetan. Hasteko, terminoei buruz arituko naiz (erantzukizuna, intelektualak, trantsizioa), gero esaerei buruz (intelektualen erantzukizuna, intelektualetan erantzukizuna demokraziarako trantsizioan). Azkenik, eta bukatu aurretik, zeharkako begiratu bat emango diot Euskadiri: nola ikusten dute —edo ikusten ez dute— euskal arazoa intelektual espainolek?

## Erantzukizuna

«Aita zerbaiten erantzule da, galdera batena. Edo, hobe esan, aita-funtzioan konprometitzea galdera bat irekitzea da eta irekita gertatuko dela erantzutea: funtzio paternalistarako degradazioa, bera erantzun bihurtu nahi *izatean datza*» (Daniel Sibony).

Erantzule, erantzuten duena da. Erantzuleak galdera *bati* erantzun diezaiokie (hau da esklabuaren erantzukizuna) edo galdera *baten* erantzule izan daiteke (nagusiaren erantzukizuna da hau). Erantzutearen (*respondeo*) mamiak berekin du esanahi hori: *spondeo* norbera lotzea edo behartzea da eta *respondeo*, berriz, lotura edo behar horren arabera jokatzeko.

Aitaren funtzioa da erantzukizunaren eredu. Semearen erantzule da aita: semearen galderei erantzuteko erantzule, eta semearen galderengatik erantzuteko erantzule (semeak galderak egiten jarrai dezan). Aitaren erantzukizuna paradójikoa da, sententzia autorreferente bat da eta: erantzun paradójikoa besterik ez du ametitzen, aldi berean galderari eta galderarengatik erantzuteko, erantzunik ez dagoela erantzun behar du. Aita erantzuleak erantzukizunez erantzuten du ez dagoela erantzunik: izatekotan ere, erantzun posible, lokal eta trantsitorioa semearen erantzukizuna izango da. Aita ez-erantzuleak trabatu egiten du erantzuna, bera egiten da erantzun, edo *diktatu* egiten du erantzuna (*diktadore* bihurtzen da). Aitaren funtzioa figura paternalista bihurtuz narriatzen da.

Erantzukizunaren buruera —ireki— honek (Lacan, Sibony) birbanatu egiten ditu nagusiaren eta esklabuaren moralak. Moral

konbentzionalean, nagusia eta esklabua beti berak izaten dira: galdetzea nagusiaren funtzioa da eta erantzutea esklabuaren argumentua. Erantzuten dutenak izaten dira erantzule, galdetzen duena ez-erantzulea da (Jainkoaren eta Historiaren aurrean soilik zen Franco erantzule). Galderak egin, nagusi, ar, aita, hildakoek... bakarrik egiten dituzte galderak; proletario, eme, haur, biziek..., galdetzen zaienean bakarrik hitz egin dezakete («galderak nik egingo ditut hemen», esaten du poliziak). Nagusiak legea eman eta esklabuak bete. Moral psikoanalitikoan, nagusiak esklabuari transmititzen dio bere nagusi-izaera: semeak nahiz analizatzaileak aitaren edo analistaren funtzioak hartzen dituzte, erantzuteko jarreratik galdetzeko jarrerara pasatzen dira, galderari galdetu, nahiz erantzunari erantzun egin dezakete (beti utziz galdera irekia; behin-behineko, beti, erantzuna). Inork ez du bere esku egia, ongia edo edertasuna. Inork ez da egia, ongia edo edertasuna. Dena da kuestionagarri: etengabeko galdera, galdetzen dutenei; etengabeko kritika, balore eta ideal sozialei.

Sistema itxi batean, bizirik irauteko balio izaten dute galdera tratatzen duten erantzunek: adibidez, untxi interplanetario batean hil egingo dira untzilaria, ez baldin badute meteoritoak egindako zuloa ixten (ixten denean, galdekizuna itxita geratzen da). Sistema ireki batean, bizirik irauteko balioa izaten dute galdera tratatzen ez duten erantzunek: adibidez, organismo bizi edo pentsatzaile batean ahalmen handiagoko ikaskuntzak ahalmentzen dituen ikaskuntzak bakarrik balio du (zenbat eta gehiago ikasi, orduan eta irekiago galdekizuna; jakituria aritmetikoki haztean, geometrikoki hazten da ezjakintasuna). Sistema sozialak sistema irekiak izaten dira: helburu (ideal, balore) berriak bilatzera irekiak, aldatuz bakarrik mantentzen direnak. Horietan aitaren funtzioak funtzionatzen du, irudi paternalista disfuntzionala izanik.

Argi dago unibertso zatitu eta zatikatu batean, erantzukizunaren eremuak atzera egiten duela globaltasunetik lokaltasunera. Unibertsoa (*unus + vertere* = buelta bat eman), buelta bat ematearen ondorio da: buelta berriekin unibertso berriak eraikitzen dira (espiral dialektikoa zen hori). Hondora etorri dena, berriz, zera da, unibertso horiek metatu egiten direlako ideia, erreskadak jartzen dituen denbora lineal bat badagoelako ideia. Mundu-subjektuek (erlijioek) tokia utzi diete mundu-objektuei (zientziakoei). Munduko dimentsioaren subjektu ziren, objektu dira. Erlijioaren subjektua mundu osoaren erantzulea zen. Zientziak mundua betetzen duten objektuak eraiki ditu: espazio osoa (kohete interplane-

tarioak, adibidez), denbora osoa (erradiazioak eta hondakin ez-erreziklagarriak, adibidez). Munduaren salbazioa ez dago jadanik subjektuen erantzukizunaren pentsutan, objektuen zertarakoaren pentsutan baizik. Objektuak geratzen dira soilik, ez proiekturik (ez dago etorkizunik, iragana bakarrik).

## Intelektualak

«Ad maximum inquirendae veritatis ixercitium» (Abelardo).

Unibertsoaren estopa da materiaren maila mikrofisikoa: hortik azaleratzen dira, eboluzioz edota erreboluzioz, hiru mundu (mundu fisikoa, biologikoa, historikoa). Mundu mesofisikoan ez dago patuaren eta beharren arteko intersektzorik: sistema bakoitza dago beharrak behartuta (ez dago bide bakar bat besterik, sistema baten bi estadioren arteko korrespondentzia bat/batekoa da), sistemen arteko elkarketa beti izaten da ausazkoa. Mundu biologiko eta historikoan patuaren eta beharren arteko intersektzioak izaten dira: kodeak (kode bat, izoztutako patua da, behar bihurtutako patua). Bide asko dago (sistema baten bi estadioren korrespondentzia bat/askokoa da): askatasuna dago bidea aukeratzeko eta bideak diseinatzeko. Mundu biologikoa kode genetikoz erregulatua dago, mundu historikoa kode linguistikoz —oro har semiotikoz— erregulatua dago (ordena soziala *dik*-zioaren mailakoa da, *dik*-tatuz eta inter-*dik*-zioz generatua dago). Kodeetan, patua (haien genesia) eta beharra (haien egitura) konjugatzen dira: patua kodeek osatzen dutelako izaten dira posible (desordena eta zarata ordena bihurtzen dira) eboluzio biologikoa eta erreboluzio historikoak —sistema irekiak birsortzeko beharrezko direnak.

Kodeen erantzule diren funtzio pribilegiatuak daude: sistema irekietan birsortzeko erantzule direnak (aldaketa-prozesu baten barrena beren identitatea segurtatzeko erantzule): ordena biologikoan kromosomak; ordena historikoan intelektualak — artista eta zientzilariak. René Thom-ek jarri du agerian bi funtzio hauen arteko homologia.

Mundu historikoan kodeek artikulatzen dute gauza erreala, irudimenezkoa eta sinbolikoa. Artikulazio honek bideratzen du subjektu-funtzioa (aita-funtzioaren jeneralizazio bat). Katastrofe bat edo eten bat izan ondoren berdin mantentzen dena da subjektua. Entitate subjektu bat posible gerta dadin, periodikoak izan

behar ditu bere bizialdiak (bakoitza bukatzean berriro itzul dadila hasierako posizioa). Bi bizialdi biologiko nagusiak, mandukazioa eta birsonkuntza, itzulezinezkoak dira: harrapakina ez da harrapakariaren urdailetik itzuliko (bi, ezinbestez, bat egiten dira), ezta umea ere, ez da amaren sabelera itzuliko (bat ezinbestez banatzen da bitan). Bizialdiak itzulgarri egiten dira (zikloak), errealtatean erreziklatuz gauza irudimenezkoa (ametsetan —irudimenaren matrizean— harrapakinare irudiak erasoten dio harrapakariari, eta umea sabelaren irudira itzultzen da berriro — intzestu sublimatua) eta gauza sinbolikoa (jolasetan —gauza sinbolikoaren matrizean— ez harrapakariak du benetan harrapakina jaten, ez ama da benetan umeaz erditzen).

Intelektualak —artista eta zientzilariak— dira erregistro hauek etengabe integratzeko ardura dutenak. «Intelektuala» terminoak ez luke talde sozialetik segregatutako zatien erreferentziarik zertan eman: ez bait du irudi bat adierazten, funtzio bat baizik. Zatiketa bikoitza gertatzen da: halako indibiduo pribilegiatu batzuk —«intelektualak»— zatitu eta berezi egiten dira hiritar arrunt multzokoengandik, eta gero, berriz, beren artean berezten dira (artista eta zientzilari). Artistek irudimenaren erregistroa irekita uzteko asmoz lan egiten dute; zientzilariak, sinboloaren erregistroa irekita uzteko asmoz: horregatik izango da, beharbada, azken buruan zientzilarien lana adimenak erregulatua eta artisten lana sentikortasunak erregulatua egotea (nahiz eta ez dagoen benetako zientzilariarik sentikortasunik gabe, ez benetako artistarik adimenik gabe). Benetako sortzaileek (Da Vinci, adibidez) hiru erregistroetan lan egiten dute: unibertsalak izaten dira. Postulazio matematiko eta poetiko bikoitza dago zientzilari nahiz artisten diskurtsoetan eta biengan ematen da errealtatearekiko konpromisua. Gizaki intelektual/ez-intelektualen arteko banaketak nagusi/esklabu zatiketa erreproduzitzen du; intelektualen zientzilari/artista banaketak adimen/sentikortasun zatiketa erreproduzitzen du (hortik dator Zubiriren proposamena adimen sentitzailea proposatuz).

Askatasunarekikoa da intelektualek daukaten konpromisu edo obligazioa: askatasunaren garapena dute beren erantzukizun. *Legea*-ren (klase dominitzaileek diktatua denaren) aurrean hainbat erantzun eman daiteke — eta hainbat erantzukizun. Badaude erantzunak erantzun-mailakoak (semantikoak) edo hautapen-mailakoak (pragmatikoak); diktatuak eta interdikzioak onartzen dituen erantzun konbertsoa — erantzunari erantzuten diona. Eta badaude galdera baten mailako erantzunak (nagusien berezkoak), legea auzitan jartzen dutenak; baita galderari galdera egiten dion erantzun

ironiko edo subertsioa ere (legeak —irabazleak inposatuak— bere kontingentzia ezkututzen du premi-fatxadaren atzean: egitatezko oinarriak zuzenbidezko oinarri bihurtzen ditu), legearen oinarriak agerian jartzen dituena; eta errebertsio edo umoristikoa, erantzunari galdetzen diona (legea injustua da, ez delako errealtatertera egokitzen: «ez obeditu» bezalako preskripzio paradójiko bidez inposatzen da ordena soziala, zernahi eginda ere beti errudun senti erazteko moduan, gizartearekin zorretan egon eta balore eta ideal sozialetan isladatu behar erazteko moduan), legea betetzeko ezintasuna demostratzen duena. Lau askatasun-maila dago: 1. maila, legea betetzeko askatasunarena (eskuindarra); 2. maila, legea ez betetzeko askatasunarena (ezkertiarra); 3. maila, legeak diktatzeko askatasunarena (komunistak); 4. maila, legerik ez diktatzeko diktatzeko askatasunarena («debekatzea debekatua»: anarkistak).

Logika aristotelikoak ( $A=A$ ) sistema itxitarako bakarrik balio du: heriotzarako narriadura beste aldaketarik eta identitate-galera —pixkanakakoa— beste identitate-aldaketarik ez duten sistema termodinamikoetarako (bi printzipiook honela enuntzia daitezke: inork ez du ezer ematen ezeren truke; jokutzen duzun bezala jokatu, beti galdu egingo duzu). Baina, begira haur-embrioi bati: ez da ezer, ez du ezer eta, hala ere, denbora batean irabazi egiten du —zerbait jasotzen du ezeren truke. Badu zerbait: denbora dauka, denbora aurretik (etorkizuna du). Etorkizun horren truke maitasuna jasotzen du, janari materiala eta izpirituala: hazi eta desarrollatu egiten da (ez da bera, baina bera izaten jarraitzen du). Eta ontogenesian gertatzen den gauza bera gertatzen da filogenesian ere: lehenengo zelula bizitik hasita, lehen tximino pentsatzailearengandik pasaz, gure gizarte «postmoderno»etaraino. Identitatea aldaketan beste inon izaten ez duten sistema irekietarako, eta badaude identitatea sendotzen duten aldaketak, logika dialektikoak bakarrik balio du. Logika dialektikoen matriza logika taoista da; bere funtsezko axioma, tetralema da:

$$A = (A) + (\bar{A}) + (A \cap \bar{A}) + \sim (A \cap \bar{A}) = 0$$

Morin-ek ikusi bezala, sistema biologikoak eta sistema historikoak logika honen arabera bakarrik antola daitezke: adibidez, hierarkia (botere bat), heterarkia (botere antagoniko bat), poliarkia (boterearen banaketa bat) eta anarkia (batere botererik ez) konjugatu beharko dituzte; gobernu, golpistak, presio-taldeak, ekologista eta pazifistak. Lau askatasun- edo erantzukizun-mailak konjugatu behar dira: konbertsioa ( $A$ ), perbertsioa ( $\bar{A}$ ), subertsioa ( $A \cap \bar{A}$ ) eta errebertsioa ( $\sim (A \cap \bar{A})$ ); hau da: intelektual dogmatikoak

(adibidez, soziologoak), lehen mailako kritikoak, kritiko murriztuak (adibidez, soziologo kritikoak), bigarren mailako kritikoak, orokorrak (adibidez, soziologiaren kritikoak), hirugarren mailako kritikoak edo hiperkritikoak (adibidez, «soziologo» katxondoak). Toreroak esan bezala, denetarako jendea behar da.

Postmodernitatean sartzen garen neurrian, narriatu egiten dira tarteko askatasun-mailak: perbertsioa areagotu egiten da errebertsibo egin arte, subertsioa mehetu egiten da. Desira modernoari (subertsioa) desafio postmodernoa (errebertsioa) jarraitzen dio. Perbertsoak eta subertsioak sendotu egiten dute boterea: perbertsoak erreformatu egiten du, subertsioak erreboluzionatu egiten du (erreformak emetu egiten du boterea, erreboluzioak konplikatatu egiten du — botere ahalmentsuago bat aterazten du).

## Intelektualen erantzukizuna

«Gurtzari uko egitea da ezagumena» (Cioran).

Lau erantzukizun-moduen konjugazioa izan daiteke eskluitzailea edo inklusioa. Konjugazioa eskluitzailea da, intelektual desberdinek erantzukizun-modu bana hartzen baldin badute bere gain: badaude intelektual organikoak (adibidez, Rodriguez Delgado edo Julio Iglesias) eta kritikoak (lehen mailako edo perbertsoak —adibidez, Feyerabend edo Genet—, bigarren mailako edo subertsioak —adibidez, Chomsky edo Picasso—, hirugarren mailako edo errebertsioak —adibidez, Cioran edo Buster Keaton). Konjugazioa inklusioa izango da, intelektual bat beraren iharduerak lau moduak artikulatzen dituenean — adibidez, Serres edo Orson Welles.

Diktadura-garaian intelektual perbertso edo/eta subertsioak ziren nagusi, eta osagai perbertsoa (opositoreak: botereak ontzat diktatua txarra da, eta alderantziz) eta subertsioa (erreboluzionarioak: ona eta txarra zer den diktatzera heldu nahi lukete) nagusitzen ziren intelektual bakoitzean. Demokraziaren etorrerak 1977an (demokrazia etorri egin da, eta inork ez daki nola), eta, are, sozialisten garaipenak 1982ko hauteskundeetan, zera ekarri zuten: intelektual konbertsoak eta errebertsioak nagusi jartzea, eta intelektual bakoitzarengan osagai konbertsoak eta errebertsioak nagusitzea. Eraldakuntza honen faktore izan ziren testuinguruaren aldaketa orokorra eta testuinguru horretan aplikatutako halako estimulu partikularrak. Aurpegi baten inguruan egindako gogoeta

subjektiboaren (norbera identifikatzen den leader-aren: Jainko nahiz nagusi) eta ideal eta balore batzuen gaineko islada objektiboaren (balore-adierazle nagusien) funtzio izaten da bakoitzaren identitatea. Francoren aurpegia eta frankismoaren baloreek, identifikazio negatiboak besterik sortzen ez zituzten uxagarri bezala funtzionatzen zuten («Francoren *kontra* hobeto bizi ginen»). Demokraziako leader batzuen aurpegi lagun-itxurakoagoek —Suárez edo González— eta ideal eta balore demokratikoeak (justiziaren aldeko joera-moduko bat barne, beti ere ordena baten barruan) posible egin zituzten identifikazio positiboak, eta hauek haziz joan ziren hedaduraz nahiz intentsitatez. Testuinguru orokor honetan, boterea hartu zutenek —edo botereak hartu zituenek— makila eta azenariozko politika azeria aplikatu zuten. Hiru trukaketa-sistemetan, balorazio-tresnak produzitu ditu botere burgesak (tresna balore-sortzaileak): monetaren tresna, objektuen trukaketan (diruz ordaintzen dute); hizkuntzaren tresna, subjektuen trukaketan (maitasunaz ordaintzen dute). Dirua, ospea eta maitasuna hasi ziren erortzen zientzilari eta artista konbertsoen gain (konbergentzi toki sinbolikoa, «bodegiya» izan zen) eta artista edo zientzilari subertsiboengandik ihes egiten hasi ziren (ogibideak kenduta, demokraziaren desestabilizatzailetzat salatuta, baliozko solaskide bezala baztertuta — mundu guztiak ahaztuta hil zen Bergamín). Bi jarrera besterik ez dago: nirekin ala nire kontra (gogora Barrionuevoren bi egiten teoria). Oraintxe momentua iritsi da non demokraziaren alde borroka egin izana bait da lesa demokraziako delitu bakarra — hor non dauden UMDko ofizialak. Lagun/etsai oposizio Schimidiarraren arabera geratu gara denak sailkatuta.

## Demokraziarako trantsizioa

«Nork esan geroa hau izango zenik!» (Abesti argentinoa).

Diktadura eta demokrazia gauza beraren bi modalitate dira.

Demokrazia diktaduraren leuntze bat besterik ez da. Botere-erlazioa klase-gizarte batean  $a / b$  algoritmoarekin errepresenta daiteke:  $b$  gutxiengo zapaldua da,  $a$  gehiengo dominatzailea eta dominazio-legea da, biak batera. Algoritmo hau aplikatu dakioke, adibidez, matxismoari —mikro mailan— eta kapitalismoari —makro mailan—. Gizon/emakume: «gizon» horrek gehiengo dominatzailea (matxo arrak) eta dominazio-legea (Gizakiak gizonezko eta emakumezkoan banatzen dira: gizaki izatea arra izatea da)

izendatzen ditu; emakume, homosexual eta ume, beste deitura batekin izendatzen dira. Inpotente zertarako diren horrengatik bakarrik izan daitezke baloratuak: emakumea Faloa edukitzeagatik, homosexuala Faloa izateagatik, umea hitzarengatik (umea «in-fans» da = hitz egiten ez duena). Jabe/proletario: «jabe» horrek izendatzen du gehiengo dominatzailea (kapitalistak) eta dominazio-legea (hiritarra = kapitalista). Proletarioak inpotente zertarako diren —definizioz— horrengatik bakarrik izan daitezke baloratuak: kapitalagatik.

Espazio soziala ildokatua dago: zutabe bertikal finko bat eta —horrekiko ortogonal— bilbe horizontal aldakorra. Filiazioen katea eta afiliazio eta aliantzen bilbea, organigramen katea eta soziogramen bilbea. Familia patriarkalean filiazioak bakarrik hartzen dira kontutan; gizarte aristokratikoan organigramak bakarrik hartzen dira kontutan. Erlazioak ez-erreflexiboak izaten dira. Honako hauek ditugu ordena zurrun edo inperfektuko erlazioak: antisimetrikoak ( $a$  baldin bada  $b$ -ren meneko —edo berarengandik datorrena—,  $b$  ezin da izan  $a$ -ren meneko — ezta berarengandik datorrena ere) eta trantsitiboak ( $a$  baldin bada  $b$ -ren meneko —edo berarengandik datorrena—, eta  $b$  baldin bada  $c$ -ren meneko —edo berarengandik datorrena—, orduan  $a$   $c$ -ren meneko —edo berarengandik datorrena— izango da). Ordena malgu edo perfektuko erlazioak ere erreflexiboak dira: norbera norberaren —bere egin-tzen— seme da, eta bere buruaren jabe. Hori da Frantziako Iraul-tzak erantsitako inflexio «razionala». Filiazioen eta organigramen ordena malgotu egiten da, eta ordena-erlazioak baliokidetasun-erlazioekin konjugatzen dira: simetrikoak, trantsitiboak eta —baita ere— erreflexiboak. Malgutasun hauek  $a/b$  arrazoia (Arrazoiaren algoritmoa) hondarrik gabeko zatiketa bihurtzera jotzen dute. Ordena-erlazioak barnertatzea besterik ez da hori (makila leunduz eta azenarioa erakutsiz).

Frankismoa feudala zen. Gerra zibilean bata bestearen aurka ibili ziren gu baitako hondar feudalak (aristokrazia, apezgoa, eliza) eta gizarte burgesa sortzen ari zena (proletalgoa, burgesia berria). Indar erdiarotarrek irabazi zuten. Demokraziarako trantsizioak pasabidea markatzen du gizarte feudal batetik gizarte burges batera, ordena zurrun (malgukaitz) batetik ordena malgu batera.

Norbera bere buruaren diktadore den diktadura da demokrazia. Txikienera ekartzen da kanpoko agintea, handienera eramaten da barneko agintea (kontzientzia... «egile gorenak nahi izan zuen /



bere bekatuarekin bakarka / zintezen hobenduarentzat / salatari, epaile eta borrero»).

Azken hamar urteotan malgutu egin dira botere-erlazioak. Trantsizioak bi fase izan ditu: fase hedakuntzako nahiz *heavy*-a (Suárez-ek bideratua) eta fase uzkurtzeko nahiz *light*-a (González-ek lideratua). Gizartea sistema irekia da eta aldatuz bakarrik ugaltzen da. Suárez-ekin herrialdea gehiegi aldatu zen eta Felipek etorri behar izan zuen beherapenekin. PSOE zela medio, ezkerreko deitzen zen indar eskuindarra, eta paralisia «aldaketa» izendatzen ederki asmatu zuena, igo zen gobernura. Frankismoaren eta felipismoaren arteko konparazioa —Aumente dixit— zorrotza da: erlazioak berak dira, nahiz eta terminoak aldatu diren. Magnate frankisten seme txikiek gobernatzen dute (anaia handiek, berriz, UCDrekin gobernatu zuten). Klase zuzendaria lehengoa bera da egituraz, kide berri gehiagorekin loditu den arren: garai bateko borrokalaria zaharrak (egitxurazko egiazko baino gehiago, borroka-itxurak egiten ibili bait ziren hurrengo egunean posturen bat eroriko zen esperantzaz), yuppiak, dagoeneko zuppie (urrezko jubilatua) bihurtzeko bidean.

## **Intelektualen erantzukizuna demokraziarako trantsizioan**

«Guretakoak al gara oraindik?» (Jesús Ibañez).

Oihartzun handiko artikulua bat idatzi zuen Rafael Sánchez Ferlosio: «intelektual» hitza entzuten duenean, Goebels-ek bezala eskua pistolari erantsi beharrean, Javier Solanak taloitegiari helitzen omen dio. Katedra batera iristeko nahiz lan baterako subentzioa lortzeko, TVEn azaltzeko, dirua, ospea edo maitasuna irabazteko, burua makurtu beharra dago. Hegelen baieztapena («hasteke, jar gaitezen zutik») itzulikatuz, hala dioskute: «hasteke, jarri belauniko eta egon geldi (argazkian atera nahi baduzue)».

Diskurtso guztiak hondoratzen dira hemen, dela estaldura-diskurtsoaren haitza jota (ez da hemen ezer pasatzen), dela albaramendu-diskurtsoaren haitza jota (hau bukatzeaz dago). Makilari itzuri egin ala azenarioari heltzeko denbora bakarrik geratzen zaie intelektualei (zientzilari eta artistei).

Gero eta intelektual gehiago ari da harrapaladan konbertsoen bidetik sartzen (muturrean, Fernando Claudín eta Plácido Domin-

go), eta oraindik beste gehiago bere ertz kritikoak leuntzen (Savater ez da lehen bezain perbertsua, Aranguren ez da lehen bezain subertsiboa, García Calvo ez da orain hain errebertsiboa). Eszena honek Ionescoren *Errinozerontea* gogorarazten digu.

Ezin ukatu diktaduraren ondoan demokrazia aurrerapen izan zaigula askatasunaren bideetan. Ezin ukatu PSOeren Gobernu aurrerapen izan dela (euskaldunen gaia salbu, beharbada) UCDren Gobernuaren ondoan. Baina erakundeak gurtzeko joera arrisku-tsua ari da nagusitzen: Demokrazia, Konstituzioa, agian Koroa... maiuskulaz idazten hasi dira. Lokalki eta iragankorki egokiak diren erakundeak, global eta behin-betiko nahi dira egin. Totalitarismo-arriskua du zelatan gure demokraziak: totalitario ez izateko, demokrazia batek bere kritikoenganako errespetua sartu behar du bere baloreen artean (oro har, diferenteenganako errespetua), eta bere joko-erregelen artean sartu behar du erregelaz aldatzeko modua eskaintzen duen erregela. Atera ginen monoteistotik (dikta-dorepetik) politeismoan sartzeko (klase politiko baten pean).

Egunetik egunera, gero eta gehiago hitz egiten digute «erantzukizunaren etika»z: Estatuko arrazoï zaharraren makilajea besterik ez da hori. Erantzukizun bakar bat soilik ametitzen da: erantzukizun konbertsoa. Errealitatearekin (hau da, botere-erlazioen gaurko koerlazioarekin) konprometitutako intelektualak bakarrik dira «erantzule». Denak geratu gara mundu errealaeren erregistroan harrapatuta: erregistro erreala horretan geratzen dira irentsita irudimenaren erregistroa (oro har, debekatuta geratzen dira sentikortasuna eta ametsak: klase politiko berriarentzat irainik handiena da «utopikoa» edota «moralista» esatea) eta sinbolikotasunaren erregistroa (oro har, debekatuta geratzen dira adimena eta jolasak: «utopiko» edo «moralista» izatea bezain txarra da ia «espekulatibo» edo «teoriko» izatea). Baina ezein errealtatek ez du bizirik iraungo beregan erreziklatzen ez baditu gauza irudimenezkoa (Baudrillard *dixit*) eta sinbolikoa (Lacan *dixit*). Errealitatean, behin osagai irudimenezkoak eta sinbolikoak iragazi ondoren, ez da performatibitatea beste balorerik geratzen: errendimendua, *in-put* edo indukzioen eta *output* edo edukzioen arteko koerlazioa. Lege bategen aplikagarria den neurrian bakarrik dauka performatibitate-balorerik. Horregatik, beraz, lasterbide guztietan barrena sartzen gara: giza eskubideen bortxaketaren lasterbidetik (xedeak justifikatzen ditu bitartekoak), armamentu-industriaren lasterbidetik (nola ulertu ezkerreko jenderik egotea, eskuinekoak hain ondo bizi garelarik). Tautologia izugarri batek irensteko mehatxupean gaude.

Ez bait du inporta nor<sup>a</sup> goazen, zeinen azkar gabiltzan baizik (modernizazioaren erritmoa).

Sistema bat honelako bidagurutze batera heltzen denean, alegia beharrezko zaiguna ezinezko gertatzera, ez dago beste irtenbiderik, metasistema baten halabeharra baino. Eta bi sistema bakarrik dauzkagu hemen erabilgarri: iraultza (joko-erregela bestelakoak) ala hil (inolakoko joko-erregelarik ez). Bigarren metasistema lehena baino potentzia logiko handiagokoa da: problema guztiak konpontzen ditu heriotzak. Subertsioaren bidea ixten digutenean —mendira hanka egin beharra zegok— errebertsioaren bidera bultzatzen gaituzte. Irudimenezkoak eta sinbolikoak debekatuta daudenean, sententzia paradójiko batean babes aurkitu behar ezinbestez: «Debekatua debekatzea». Ugaltzen ari dira Estatu osoan «mugidak»: gerorik ez badago, heldu orainari. Trabestismo orokortua dugu hau (etengabe jantzi batetik bestera aldatzen ibiltzea): baloreak ez-axolazko egiteraino, biraka ibiltzen dituen dantza frenetikoak (ona/txarra, ederra/itsusia, egia/gezurra polaritateak). Politikan (gogoratu orain nola karrusela ibili zen OTAN «bai», «ez» putzupadak birarazten) abolitu egin dira «ona»ren eta «txarra»ren arteko diferentziak. Modan (gogoratu karrusela «maxi...» eta «mini-gona» putzupadak birarazten) abolitu egin dira «ederra» eta «itsusia»ren arteko diferentziak. Publizitatean (gogoratu karrusela Zabalza «ito egin zuten» edo «ito egin zen» putzupadak birarazten) abolitu egin dira «egia» eta «gezurra»ren arteko diferentziak. Bigarren errinozeronte-talde bat sartu da, zabal eta sakon, dantzatzera.

Baina geratzen da oraindik metaerantzukizun baten ahalbidea (berebat lokala eta iragankorra —Gödel *dixit*—, beti izango da posible metametaerantzukizun bat). Badaude intelektualak —zientzilari eta artistak— «gizaki osoa»ren ametsari uko egiten ez diotenak: ez dute inoiz hori lortuko, baina, ilargiari harrika aritzen zen Unamunoren mutiko hura bezala, egunero pixka bat hurbilduz joango dira. Horren eredu, beharbada, izan daitezke Rafael Sánchez Ferlosio edo Máximo, kontzientzia kritikoaren erreserba gure gizartean: nobelista eta teorikoa, dibujante eta idazle, adimena eta sentikortasuna konjugatuz jokatzeko dute; hankak errealitatek atera gabe, begiarekin ametsen mundua hautematen saiatzen dira, eta eskuekin jolasen mundua atzitzen. Erantzule izateko «ez» esan beharra dago hainbat mailatan (lastima OTANeko hartan Rafaeli «kakalarria» sartu izana).

Badaude emozionatzen direnak goardia zibil baten heriotza denean, baita torturatu baten zaurien aurrean emozionatzen direnak ere: bi emoziook konjuga daitezke beren neurri juxtuan (zein aldetara jartzen garen kontu, gehiengo dominatzailearen aldetik ala gutxiengo zapalduen alde), zeren gizaki baten heriotza edo sufri-mendua izugarriak bait dira. Badago teknologia berrien garape-nean pentsatzen duenik, eta garapen horrek kontsumitzaileentzat eta langileentzat ekarriko dituen ondorioetan pentsatzen duenik ere (orain berriki Castell-en hitzaldi izugarri disdirantea entzun nuen gai horri buruz: sintesi ia borobila egin zuen, datu guztiak lapikoan jarri eta osatu zituen, baina jendea ahaztu zitzaion): bi pentsamenduok konjuga daitezke beren neurri juxtuan (zein alde-tara jarri kontu, makinaren aldetik ala gizakien alde), teknologia li-berazio posible baterako tresna bait da. Intelektualak kodeen jar-dinero, edo artzain, dira. Kodeen eskuetan uzten badugu burua, edo, burutik kenduta, kodeak uzten baditugu eskutik, arriskuan jarriko da mundua.

## Paisajea euskal orkatz eme batekin hondoan

«Asasinoekin ez dago zer hitz egin eta zer paktaturik, Kode Penala aplikatzen zaie horiei» (Pablo Castellano).

Euskaldunak zatiketaren hondar dira: Arrazoziari (Legeari) be-re burua kodifikatzen uzten ez diona.

Ez da soilik, ezta batez ere, tiro-arazoa. Bidaiaria Euskadin liluratuta geratzen da askatasun-eztanda baten ikuskizunaren au-rrean: herriren bateko festetan egotea, adibidez, zoragarria da. Els Jotglars klonikoki erreproduzitu balitz bezala da. A zer irreberen-zia: subertsio orokorra. Barrea lehertuz Legearen zirrikituetatik ateratzen.

Azenarioa hartuta daukatenek, makilaren zain daudenek, jasan ezin duten ikuskizuna da. Nola inor zutik egongo da, bada, nerau belauniko nagoenean? Euskaldunak harrikoskor dira zapatan, malkolarri eta jai-hondatzaile ezteietan, ume gaubelan. Demokra-zia ari dira kolokan jartzen: hau da, ezegonkor jartzen, irekita (estatu izatetik mugimendu bihurtzen). Euskaldunekin ezinezko da paralisiari aldaketa deitzea. Gure zatiki birrinduak isladatzen diren ispilu oso dira. Ezein hildakok ezin du bizitzaren ikuskizu-nik jasan.

Iraultza batean —Parisko Komuna, «mundua dardarizotan jarrri zuten hamar egunak», 68ko maiatza— desegin egiten dira bantzen gaituzten mugak: talde eta diskurtsotan sailkatuta geratu beharrean, edozeinek hitz egin dezake edozertaz edozeinekin. Hori da —Kant-ek esan eta Lyotard-ek errepikatua— ikusleen sukarra pizten duena. Gainean zanpatuz daukagun baretasun geldoa Euskadin bakarrik hausten da: harantz begiratzean bakarrik entusiasmazten gara. Iraultzak beti probokatu ohi ditu adimen-sorkuntzazko leherketak. Bi iraultzen tartean, errentetatik bizi gara.

Eta, hala ere, intelektual —zientzilari eta artista— espainolak Euskadiri bizkarra emanez bizi dira. Organikoek basa erabiltzen dute, kritikoez isiltasuna, Euskadiren gaia estaltzeko. Nire lagun ezkertiarrek argitarapen abertzaleetan lankide naizela jakitean, errietaz eta kupidaz nahasitako begiradaz begiratu ohi naute. «Zer habil, mutiko, hau bezalako zoko batean? Ederki hoa, txo, maldan gora beheraka». Euskadiri buruzko mahainguruetan beti berekin egiten dut topo: Sábada, Albiac, Alvarez Solís, Pablo Sorozabal, Esperanza Martínez-Conde, Cristina Maristany, Rafael Llorente...

Gurutzatu egiten dira unibertsaltasuna eta partikularitasuna. Unibertsal positiborik ez dagoenez, unibertsal negatiboa bakarrik geratzen da: hondarraren unibertsaltasuna, kodifikazioari jarkitzen zaiona, irreberentzia. Norberaren hondarra (bakoitzak izaten duen hori klase zapaldu, proletario, emakume, ume, ero izatetik...) beste euskal hondar horrekin komunikatzen da. Partikular euskaldunena gutxiago interesatzen zaigu: liluratu egiten naute euskaldunek, euskaldun diren neurrian baino gehiago euskaldun ez diren neurrian. Alegia, euskal kulturaren kodeak —horiek ere— urratzen dituzten neurrian. Jotglars-etik daukatenak liluratzen nau, ez pujol-tik daukatenak. Euskaldunek liluratzen naute iratzaririk dauden neurrian.

## Intelektualen iratzartzea

«Nire andregai hutsik egin gabe etortzen da beti zitara, etortzen ez baldin bada, ez bait da jadanik nire andregai» (Jacques Lacan).

Izaki-bere-baitarako-arentzat, errealtatea imposiblea da. Izaki biziarentzat errealtate amestu bat da, izaki hiztunarentzat errealtate jokatu da. Gizakiok, berriz, bizi eta hiztun garenez, errealtate

tea amestu eta jokatu egiten dugu. Simetria hausteko bi modu dira bizitzea eta hitz egitea. Fisikako denbora itzulgarria itzulezin egiten da: kateaz genetikoaren itzulezintasuna, katea adierazlearen itzulezintasuna.

Ametsa, neurri batean, osatzailea da. Jolasa ezinbestez sunstiztailea da. Umea den ugaztunen larba atzitu egiten du adierazlearen ordenak: subjektua erremediorik gabe zatitua eta erremediorik gabe objektutik banandua geratuko da. Ezingo du aurrerakoan gozamenik izan.

Freud-ek deitzen dio amets txarrari «ametsaren zilborra». Amestuko dena hain da izugarria, non ez bait da jadanik posible ametsetan jarraitzea: egia-aren unea da, ametsa —gauza irudimenezkoa— errealitatera irekitzen denekoa. Ameslaria, ordea, ez da errealitatera esnatzen: beste amets batera esnatzen da, amets amestu batetik amets jostatu batera. Errealitatea mugatzen saiatzen gara pertzeptu (irudimenezko) eta kontzeptu (sinboliko) bidez: baina errealitatea ezin da atzitu —harrapatu— irudi eta sinbolo bidez.

Ametsik elaboratuena artea da, jolasik elaboratuena zientzia da. Bi arlo, analitikoki bakarrik bana daitezkeenak: Lyotard-ek esaten duen bezala, elementu *d*-iskurtsiboak omen daude figuretan (*d*-igura dira), elementu *f*-iguralak omen daude diskurtsioetan (*f*-iskurtsio dira). Arteak irudi bidez ulertu nahi du errealitatea —irudi bidez ikusiz—, zientziak kontzeptu bidez ulertu nahi du errealitatea —kontzeptuak manejatuz. Baina errealitateak ihes egiten die gure pertzeptuei eta gure kontzeptuei, gure begiei eta gure eskuei.

Errealitate inposiblearen aurrean hiru jarrera daude: andregaiia uzten duenarena, ezin duelako esandako zitara joan (zientzilariarena), esperantza guztien gainetik andregaiia zitara etorriko dela espero duenarena (bisionarioarena: erlijioso edo politiko), andregaiia maitatzen jarraituko duenarena, zitara etorriko ez zaiola badakien arren (artistarena).

Diskurtsio zientifikoak zentsuratu egiten du errealitatean inposible den guztia (formalizagarri ez dena: hondar guztiak). Diskurtsio erlijiosoak (eta honen eraldaketa profanoak, diskurtsio politikoak) posible den guztia zentsuratzen du: ez-tokiren batean (u-topia) izango da topaketa. Hala dioskute: «Bihar, gorputzilik, gozatuko duzue». Trukaketa proposatzen digute, alegia gaur-he-mengo bizien sufrimendua hildakoen etorkizuneko gozamen-agindu baten truke (diskurtsio politikoak zentsuratu egiten du bi-

zi/hildako oposizioa: gaurko sufrimendua proposatzen digu etorki-zuneko gozamen-agindu baten truke — gozamena agindu-moduan).

Bisionarioak sinboloz garbitu nahi du bizitza: gozamena posible dela baieztatzen du. Zientzilariak bizitzaz nahi ditu garbitu sinboloak: sinboloa osoa dela baieztatzen du. Baina gozamena inposible da eta sinboloa ez-oso (Jorge Alemán). Sinboloaren ez-osotasunak gozamenaren plus bat ematen du. Hori da geratzen zaiguna.

Gozamen-plus hori errealitateari aurre eginez ateratzen dugu. Armamentu-lehiaketak gure sistema arriskuan jartzen duen eta kutsadurak gure ekosistema arriskuan jartzen duen mundu batean, gosea eta esplotazioa dauden mundu batean, sufritu eta sufrierazteko sufrimenduak bakarrik banatzen dituen munduan, torturatzen den eta gezurra esaten den mundu honetan, ezin dugu ezaxola jarraitu. Gu garen parteek ezin diote partidu hartzeari uko egin.

Ezin dugu errealitatea ikusi ez manejatu: baina errealitatea egiazkoa da. Amets demokratikoaren zilborra Euskadin dago. Iritsia da, intelektualetzat, egiaren ordua.

Euskaratzailea: Xanti Iruretagoiena

J. I.

---

### RESPONSABILIDAD DE LOS INTELLECTUALES EN LA TRANSICION HACIA LA DEMOCRACIA

### RESPONSABILITE DES INTELLECTUELS DANS LA TRANSITION VERS LA DEMOCRATIE

*El autor empieza por constatar la ruptura de aquella pasada unidad en la vanguardia de los intelectuales durante la lucha contra la dictadura, y la sitúa en la perspectiva del movimiento de fragmentación post-moderno. En este contexto, hablar de responsabilidades sería caer en el esquema clásico de amos (responden de) — esclavos (responden a).*

*Hay que volver a afirmar que el compromiso u obligación del intelectual es con la libertad: rompiendo con el sistema cerrado en que no hay más cambio que la degradación hacia la muerte, y planteando el sistema abierto en el que sólo hay*

*identidad en el cambio. Pero, más acá de todo ello, la realidad es que la responsabilidad del intelectual —artista o científico— se matiza en cuatro esquemas que pueden ser conjugados de modo diverso, tanto en sentido excluyente como inclusivo: orgánico o crítico, o subversivo o reversivo.*

*Tras un análisis de la transición política, el autor presenta el panorama intelectual del momento, tanto con respecto a los intelectuales (decantación hacia una vía conversa), como a las instituciones (sacralización, veneración).*

*En este paisaje, la excepción sería Euskadi: china en el zapato, aguafiestas, estallido de libertad, subversión generalizada... Ante esa «pesadilla del sueño democrático», ha llegado para los intelectuales el momento de la verdad.*

---

L'auteur commence par constater la rupture de cette ancienne unité à l'avant-garde des intellectuels pendant la lutte contre la dictature, et la situe dans la perspective du mouvement de fragmentation post-moderne. Dans ce contexte, parler de responsabilités serait tomber dans le schéma classique de maîtres (répondre *de*) – esclaves (répondre *à*).

Il faut affirmer de nouveau qu'il s'agit d'un compromis ou obligation de l'intellectuel avec la liberté: en rompant avec le système clos dans lequel il n'y a pas d'autre alternative que la dégradation vers la mort et en établissant le système d'ouverture où la seule identité possible est dans le changement. Mais plus près de tout cela, la réalité est que la responsabilité de l'intellectuel —artiste ou scientifique— se nuance en quatre schémas qui peuvent être conjugués de façon différentes, aussi bien dans un sens exclusif qu'inclusif: organique ou critique, ou subversif ou reversif.

Suite à une analyse de la transition politique, l'auteur présente le panorama intellectuel du moment, aussi bien avec respect envers les intellectuels (décantation vers une voie converse), qu'avec les institutions (sacralisation, vénération).

Dans ce paysage, l'exception serait Euskadi: agacement, rabat-joies, explosion de liberté, subversión généralisée... Devant «ce cauchemar du rêve démocratique» le moment de vérité est arrivé pour les intellectuels.



GAIK

---

...HAINBAT ABURU

---

LIBURUAK

---



## Diglosia dela eta

Koldo Zuazo

### 1. Hitzaren jatorria

*Diglosia* nozioa guztiz ezaguna izatera iritsi da euskal Herrian, nahiz eta azken urteotan nozio horren esanahia, eta izan duen erabilera zabalegiaren ondorioz, zehaztu beharraz ere mintzatu izan diren han-hemenka, gurean Sánchez Carrión “Txepetx” (1974, 68. or. eta 1986, 25. or.) izan delarik auzi honi buruzko ekarri teorikorik inportateenak egin dituen.

Oraingo asmoa ez da, haatik, erabilera horren egokitasunaz edo desegokitasunaz ihardutea, hitzaren beraren jatorriaz baizik, sarritan errepikatu izan bait da gure artean *Ferguson*-ek World aldizkarian 1959an argitara emandako “Diglossia” izeneko artikuluan erabili zuela lehenbizikoz nozio hori; uste horren usteltasuna da, hain zuzen ere, hemen erakusten ahaleginduko naizena.

Okerra, dirudienez, *Ferguson*-en artikulua benetan irakurria ez izatetik —nahiz eta delako lan hau etengabe aipatua den— edota, kasurik hobereneen ere, irakurketa hori azalekoa izatetik edo dator, argi eta garbi aitortzen bait du *Ferguson*-ek bere iturria:

"(...) The term "diglossia" is introduced here, modeled on the French *diglossie*, which has been applied to this situation, since there seems to be no word in regular use for this in English; other languages of Europe generally use the word for "bilingualism" in this special sense as well" (Ferguson, 325-326 or.).

Ferguson-en beraren aitortpen esplizitu honez gainera, ez da ahaztu behar artikulu hau katalanera ere itzulia izan dela ("Diglossia", in: *Quaderns de Ponent*, 3/4, 1983, Lleida; eta, hori gutxi bailitza, 1977an argitarara emandako *Iniciación a la Sociolingüística* liburuan ere zera irakur zitekeen:

"El concepto fue introducido por Ferguson, 1959, partiendo del término francés "diglossie" (Schlieben-Lange, 51. or.).

Argibide gehiago emango zizkigun A. Tovar-ek:

"El término socio-lingüístico *diglossia*, tomado por Charles A. Ferguson hace pocos años de las largas polémicas en la política lingüística de Grecia en el último siglo, y aplicado a los distintos niveles sociales del inglés actual (...) sirvió para acusar la subordinación de la lengua "popular" a la "purificada" (...) (Tovar, 20-21 or.).

Esan dezadan, amaitzeko, Euskal Herrian bertan ere, izan dela honetaz jabetu denik:

"Ezaguna denez, Charles A. Ferguson-ek, frantsesetik hartutako "Diglossia" solasaren bidez, 1959.ean definitu zuen Soziolinguistikan gehien famatu den kontzeptua (...)" (Larrea, 132 or.).

## 2. Jean Psichari eta "diglosia"

Ferguson-ek, bestalde, "diglosia" hitza frantziar hizkuntzalariengandik jasotzen izana aitortu ezezik, hizkuntzalari horien izenak eta lanak ere aipatuko ditugu (326. or.). Jardel-ek (1979, 27. or. eta 1982) erakusten duenez, Psichari-k 1928an argitaratutako *Un pays qui ne veut pas de sa langue* izeneko lanean eman zen ezagutzera, beste inon baino zehatzago, "diglosia" nozioa. 1854ean Odessa sortu eta 1929an Parisen hildako hizkuntzalari honek "Ecole Nationale des Langues Orientales" eta Sorbonako "Ecole des Hautes Etudes"en greko modernoaren gramatika historikoa irakasten ihardun zuen.

Dena dela, lehenagotik ere ezaguna zen "diglosia" hitza. Jardel-ek dioenez (1982, 6. or.), Psichari bera, 1885ean argitaratutako *Essais de grammaire néo-grecque* lanean, baliatzen omen zen

dagoeneko hitz honetaz, nonbait ere Roidis greziarrak *Acropolis* aldizkarian plazaratutako artikulu betetik jasoa zuela azpimarratuz. Psichari-ren ikasle batek ere, Hubert Pernot-ek, 1898an Parisen kaleratutako *Grammaire grecque moderne* lanaren sarreran —eta lan hau Ferguson-ek berak ere aipatzen du— erabiltzen omen zuen hitz hau. Psichari-k, gainera (67 eta 73. or.), beraren beste ikasle bat, L. Roussel, aipatzen du, beronen eritziei aurka egiteko bada ere, “diglosia” nozioa erabili dutenen artean (Roussel, Louis: “La littérature de la Grèce moderne”, in: *Revue de Paris*, 01-09-1928, 121-141 or.).

1928ko Psichari-ren lanaz geroztik, ostera, Frantzian baztertuxe geratzen da “diglosia” nozio hau, salbuespen bakanetariko bat W. Marçais —Ferguson-ek aipatua hau ere— delarik (Marçais, William: “La diglossie arabe. La langue arabe dans l’Afrique du Nord”, in: *Revue Pédagogique*, CIV (1930) eta CV (1931).

### 3. Psichari-ren ekarria

Psichari-k, eta Psichari-k bezala gainerako guztiek, Greziako hizkuntz egoera berezia azaltzeko darabil “diglosia” nozioa. Jakina denez, bi barietate —dexente ezberdinak bata bestearengandik— aurkitzen dira greko modernoan: *katharévoussa* bata eta *demotiki* bestea.

Lehenengoz 1924ean argitara zen *Les langues du monde* liburu ezagunean, era honetara laburtzen ziren bi barietateon ezau-garriak (41-42 or.).

“Le grec byzantin, langue officielle de l’empire d’Orient dont le siège était à Byzance (395-1453), est une imitation artificielle du grec classique; de nos jours encore, l’Etat et l’école, appuyés par l’Eglise, s’efforcent de maintenir comme langue écrite une langue “puriste” (*Katharévoussa*), rapprochée autant que possible de la *koinè* antique, et qui diffère du grec parlé, peu pour la phonétique, plus pour la morphologie et la syntaxe, plus encore pour le vocabulaire (...)”.

Psichari-k ere salatuko duenez, *katharévoussa* delakoa herri xeheak darabilen hizkeratik ahalik eta gehien bereizi eta desberdindu nahi izango da, herri-hizkera hori *arbuigarri* eta *lotsagarri*-tzat joko delarik. Itxura *noble* eta *dotoreago* bat ematearren, greko klasikoa ezarriko da eredu legez, nahiz eta sortuko dutena,

azken batean, horren suzedaneoa baizik izango ez den. Herri-hizkeraren itxura *baldar*, *trakets* eta *itsusia* saihestearren, orobat, *jarrera (ultra) garbizaleak* nagusituko dira, barietate bion arteko aldea sakonduz eta areagotuz joango delarik, denborarekin elkar ezin ulertu ahal izateraino helduz. Honelaxe dio hitzez hitz Psichari-k:

“La langue savante, la langue puriste, telle qu'elle se présente à nous aujourd'hui, est née sur les rives du Bosphore, qui sépare, comme on sait, l'Europe de l'Asie.

Là est le point capital.

Les deux traits caractéristiques de la langue parlée, la langue *vulgaire*, est une langue dégénérée, honteuse, bonne pour la plèbe. Et c'est là, nous allons y arriver, une conception principalement asiatique. C'est la conception de l'autre rive du Bosphore.

La conséquence forcée de cette façon de voir est —et ici se grave devant nous le second trait caractéristique du purisme— la conséquence de ce mépris du parler naturel, est qu'il faut se rebattre sur une langue distinguée, sur une langue présentant au grand complet ses quartiers de noblesse. Dans l'espèce, ce fut le grec ancien qui fut choisi, du moins ce que l'on croyait être le grec ancien; car (...) le purisme, en dernière analyse, n'est que du grec ancien *mal lu*. (...)

En effet, l'antiquité hellénique ne nous présente absolument rien qui ressemble au purisme byzantin, rien qui implique, à un degré quelconque, le mépris de la langue parlée. Tout au contraire, les bons écrivains mettent de l'affectation, mettent de la coquetterie à employer le langage du pâtre ou du batelier” (Psichari, 71-72 or.).

#### Eta beherago oraindik:

“La diglossie véritable est la diglossie byzantine. Son caractère principal, nous le marquons ici avec une certaine brutalité, parce que les faits nous y contraignent, son caractère dominant, c'est une ignorance inimaginable de l'antiquité grecque. Les Byzantins lisent les auteurs, ils les commentent. Mais ils n'entendent rien de rien au mécanisme, à la technique, à l'esprit de la langue, surtout à sa grammaire, eux qui se proclament grammairiens accomplis. Le purisme repose sur la méconnaissance totale du grec ancien”. (Psichari, 75. or.).

Izan ere, greziar idazle klasikoak (Homero, Herodoto, Pindaro, Sofokles,...), geroagoko garbizaleak ez bezala, hizkuntza *bizian* oinaturriko dira, nahiz eta, normala denez, hizkuntza hori lantzen eta jasotzen ahaleginduko diren:

“(…) quand Homère et les tragiques mélangent des dialectes, ce sont des dialectes *vivants* auxquels ils s'adressent. (...)

Pour ce qui est de Lucien et des grammairiens ou lexicographes nommés *atticistes* (II<sup>e</sup> siècle de J.-C.), leur réforme porte surtout sur le vocabulaire (...).

Enfin, les atticistes, et là est le point essentiel, se modelaient sur une langue qui avait été vivante, tandis que nos puristes actuels se règlent sur une langue qu'en réalité ils ont inventée de toutes pièces" (Psichari, 73-74. or.).

Greziako diglosia horren bilakabideari buruzko xehetasun batzuk ere eskainiko dizkigu Psichari-k:

"La diglossie véritable, la dévastatrice de l'Hellénisme, commence en réalité au IV<sup>e</sup> siècle de notre ère à Byzance, avec Constantin le Grand.

Elle se répand doucement à travers les Pères de l'Eglise grecque, s'affirme prétentieuse chez Procope, plus condescendante chez Justinien (VI<sup>e</sup> siècle), s'amollit chez Malalas (IX<sup>e</sup> siècle), s'exaspère chez Anne Comnène (XII<sup>e</sup> siècle) jusqu'à un hyper-atticisme grotesque, prend une allure plus réglée chez Eustathe, l'évêque de Thessalonique (XIV<sup>e</sup> siècle), devient plus accessible aux voix d'en bas chez Dukas et Phrantzès (XV<sup>e</sup> siècle).

Ici deux siècles de chaos et d'incertitude, avec des éclaircies magnifiques que nous allons entrevoir tout à l'heure, dans la littérature crétoise des XVI<sup>e</sup> et XVII<sup>e</sup> siècles, littérature éminemment *vulgaire*. Mais dans la Grèce proprement dite domine toujours le purisme.

Vers la fin du XVIII<sup>e</sup> siècle, vers le commencement du XIX<sup>e</sup>, un phénomène poignant se produit. Il y a une réaction marquée contre le purisme systématique. Des hommes, en qui court le frisson divin, s'insurgent. Ils d'appellent Denis Solomos, Vilaras, Christopoulos, plus tard Aristote Valaority, celui-ci se soumettant toutefois pour la prose, qui est l'essentiel, au canon puriste.

Rien n'y gait; ce sont manifestations isolées sans portée répercussive et générale.

Les trois ou plutôt les quatre chefs du purisme sont, au sommet, Adamantios Coray (XVIII, XIX<sup>e</sup> s.), beaucoup plus bas, Kondos (XIX<sup>e</sup> siècle), tout à fait bas, Místriotis et Hatzidakis (XIX<sup>e</sup>, XX<sup>e</sup>)" (Psichari, 74-75 or.).

Psichari-k, azkenik, argi utziko du diglosia hizkuntza *bera*-ren bi barietateren artean ematen dena dela, horietariko bata —Greziako kasuan *Katharévoussa*— *hizkuntza hila* izango delarik eta bestea —*demotiki* Grezian—, aldiz, *bizia*:

"La diglossie —le fait pour la Grèce d'avoir deux langues— ne consiste pas seulement dans l'usage d'un double vocabulaire, qui veut qu'on appelle le *pain* de deux noms différents: *artos*, quand on est un homme instruit, *psomi*, quand on est peuple; la diglossie porte sur le système grammatical tout entier. Il y a deux façons de conjuguer, deux façons de décliner, deux façons de *prononcer*; en un mot, il y a deux langues, la langue parlée et la langue écrite, comme qui dirait l'arabe *vulgaire* et l'arabe *littéral*.

Pour qu'on ne nous arrête pas dès ce bref exposé, déclarons tout de suite qu'il ne s'agit point ici du tout de deux langues comme en Belgique, de trois comme en Suisse. En Suisse comme en Belgique, ce sont des langues également vivantes qui s'emploient. En Grèce, la lutte se poursuit au sein d'une seule et même langue —le grec— entre les parties mortes et les parties vivantes de cette langue" (Psichari, 66. or.).

Era honetako hizkuntz egoerak, betiere Psichari-ren eritziz, ez omen dira Mendebaldeko Europan jazotzen, Ekialdeko kulturaren baizik:

“Une langue sémitique se compose de deux parties: la langue parlée dont le peuple se sert comme il peut; la langue savante, apanage exclusif des lettrés. Cette scission radicale d'un bien commun en deux camps distincts, presque sans lien l'un avec l'autre, est un fait éminemment oriental. (...)

C'est au contact de l'Orient que Byzance doit sa diglossie (...). Peut-être aussi que cette barrière entre le peuple et les grands, séduisait les empereurs dans ce qu'ils avaient de despotique et de distant” (Psichari, 80. or.).

Psichari-ren ekarria laburbilduz, esan dezadan, lehen-lehenik diglosi mota bi bereizten dituela: *diglosia arrunta* eta *benetako diglosia*.

Lehena, gutxi gorabehera Mendebaldeko edozein hizkuntzatan suma daitekeena, herri xeheak darabilen barietatearen eta barietate jantziaren artean legokeena genuke, baina bigarren hau, betiere, hizkuntza *bizian* oinarritua egongo litzatekeelarik.

Benetako diglosiak —Ekialdeko kulturaren berezitasuna Psichari-ren aburuz—, aitzitik, honako ezaugarri hauek lituzke: alde batetik, hizkuntza bizia gaitzetsi eta baztertu egiten da. Horren ordez, eta hauxe dugu bigarren ezaugarria, hizkuntza artifizial bat sortzen da, literatur tradizioaren eredu desitxuratu bati jarraituz. Honen ondorioz, eta hirugarrenik, hierarkia argi bat ezartzen da gizarteko goimailek eta herri xeheak darabiltzaten barietatean artean, azken honek, gainera, eskolagabeen hizkuntza izatearen estigma leporatuko duelarik, eta, horrela, lehen baino ere mesprezagarriago eta lotsagarriago bilakatuko.

#### 4. Greziako eta Euskal Herriko hizkuntz egoera

“Diglosia” nozioa Euskal Herrian, eta Joshua Fishman iparramerikarrari jarraituz (gaztelaniaz, ikus honen: *Sociología del lenguaje*, Cátedra, Madrid, 1979), gaztelania/euskara zein frantsesa/euskara artean ematen den hierarkia eta hizkuntza horietariko bakoitzaren esparru-banaketa (*language domain*) adierazteko erabili izan den arren, euskararen historiari so egiten baldin badiogu, bada Psichari-k, grekoaz mintzo delarik, aipatutako egoerarekin nolabaiteko kidetasuna gordetzen duen aro bat. Aro horren gutxi gorabeherako mugak, 1876aren eta 1950aren artean

kokatuko genituzke. II. karlistadan jasandako porrotaren ondoren eta Hegoaldeko euskal probintziek beren Foruak ezabaturik eta baliorik gabe ikusiko dituztelarik (1876.07.21), eginahalak egingo dira Euskal Herria Espainiarengandik bereiztearren. Une honetantxe hasiko da, hain zuzen ere, “vasco-iberismo” delako aspaldiko tesiaren gainbehera eta une honetantxe ekingo zaio, halaber, erdal kutsuko (ustezko edo benetako) interferentzia oro baztertzeari. Hemen ere, Grezian bezala, jarrera (ultra) garbizaleek berebiziko indarra hartuko dute garai horretan zehar, euskaldun arruntek ulertzen ez duten barietate bat —*euzkera barria*— garatuko delarik. Barietate hau ere ez da euskararen mendez mendeko literatur tradizioan oinarrituko. Are gehiago: tradizio hori arbuia egingo da, euskal idazleek latinaren eta latinetikoa ereduaren menpekotasuna nozitu izan dutela salatuz. Eraberritzea, euskararen kasuan ere, hiztegi mailan emango da nabarmenenik, hitzok baina, euskalki ezberdinetako literatur tradizioan bilatu beharrean, asmatzeari, gehientsuenetan behintzat, ekingo zaiolarik. Joskera mailan, berriz, anaforikoen aurkako gerra piztuko da, ahaleginik aipagarriena P. A. de Orcaiztegui-ren *Observaciones para hablar y escribir tolerablemente en nuestro idioma euskaro* (E. López, Tolosa, 1906) delarik. Morfologia mailan, aditz trinko edo sintetikoek, berauek “jatorrenak” direlako ustetan, ematen zaien lehentasuna dugu emaitzarik azpimarragarriena, aditz horietariko asko eta asko asmakizun garbiak badira ere.

Jarrera (ultra) garbizale hauen aitzindaria —aitzindari teorioa behinik behin— Aizquibel-en *De la lengua euskera ó de los Vascongados* txostenean, 1856an Castellanos de Losada-k eranskin gisa argitaratuana, aurkitu uste dut, bertan honako hau irakur bait daiteke:

“Esto mismo quisiéramos que sucediera con nuestra *Euskera*, que poco á poco se formase un dialecto clásico o literario, que comprendiesen igualmente los habitantes de todo el país Vascongado indistintamente, como puede suceder muy bien, si el clero del país en su predicación y publicación de devocionarios y de obras de instrucción cristiana, usase de un lenguaje puro y escogido, arreglando para ello una gramática, que reuna los elementos primitivos de esta lengua en su mayor pureza, sin hacer caso ninguno de los actuales dialectos, y atendiendo solo á la verdadera y genuina restauracion de la lengua, aproximándose, cuanto se pueda, al estado que tenía en la época de su mayor apogeo ó de su mayor pureza (...)” (Castellanos de Losada, 218. or.).

Aizquibel, ikus daitekeenez, “jatorrizko” euskarara begira jartzen da; baina jatorrizko euskara hau ez da, haatik, ezagutzen



dugun literatur tradizioak erakusten duena izango, baizik eta *asmatu* egin beharko den euskara garbi eta kutsatu gabeko hura. Aldi berean, euskara *bizia* gaitzetsi egingo da, hizkuntza *degeneratu* eta *mordoilo*-tzat joko delarik. Honekin, apurka-apurka, euskal hiztun xeheengan —eta batez ere bizkaitarren, Bizkaian hartuko bait zuten beste inon baino indar handiagoa jarre-ra (ultra) garbizaleek— eguneroko ihardunean darabilten euskararenganako lotsa eta meziprezua sortuko da.

Praktikan, berriz, R. M.<sup>a</sup> de Azkue-ri dagokio, guztiz oker ez banago, aitzindaritzza. Beronen *Euskal-Izkindeal/Gramática Eúskara* (Bilbon, 1891) “jatorrizko” euskara hau arautzeko lehen saioa da, nahiz eta gerora (ikus, esate baterako, “Txukuneria”, in: *Euskera*, VI (1925), II-III. zk., 4-21 or.) “gaztaroko bekatu”tzat joko duen bere Gramatika hau.

Azkuek, baina, izango zuen ondorengo urteetan jarraitzaile-rik. Zenbaitek, gainera, “jatorrizko” euskara hori azken muturreraino eramane nahi izango du: euskaldun guztientzako eredu standard batera iristeko bide bezala proposatzeraino, alegia. Denetarik ezagunena, beharbada, Aita Soloeta-Dima dugu. Honek, 1922an argitaratutako *Ensayo de la unificación de dialectos bascos* liburuan, argi eta garbi azalduko ditu bere helburuak:

“Para mí el baskuenze es un idioma ideal en sí mismo y deficientísimo en sus dialectos. (...)

*No hay más que un euzkera*, y las divergencias actuales y las diferencias dialectales son degeneraciones monstruosas que afean la hermosura del idioma primitivo” (7-8 or.).

“Las pequeñas dificultades desaparecen restableciendo las formas primitivas u originarias del euskera y aplicando a todo desenvolvimiento gramatical una lógica implacable” (10. or.).

Y la lengua así formada no será nueva, sino que será viejísima: no será ni bizkaína, ni gipuzkoana, ni labortana; será... euzkera y purísimo euskera” (12. or.).

Euskara zaharberritu hori arautzeari ekiten diolarik, hauek dira, adibidez, proposatzen dituen *erakusleak* (58. or.):

DEU..... YO.  
KEU..... TU, varón.  
NEU..... TU, mujer.  
LEU..... EL.  
GEU..... Nosotros.  
ZEU..... Vosotros.  
TZEU..... Ellos.

Izan aditza, ostera, era honetara moldatuko du (84. or.):

Deu etortzen daza.	Yo vengo.
Kcu etortzen kaza.	Tu vienes (masculino).
Neu etortzen naza.	Tu vienes (femenino).
Leu etortzen laza.	El viene.
Geu etortzen gaza.	Nosotros venimos.
Zeu etortzen zaza.	Vosotros venís.
Tzeu etortzen tzaza.	Ellos vienen.

Euskaltzaindiak 1920-1921 urteetan zehar euskara bateratzeko antolatutako bileretan ere, antzeko bideetan barrena abiatuko da Ayengiz'tar Iñaki Aba Txotiñoduna. Aditzari dagokionez, esate baterako, atonketa eta orrazketa zenbait egin daitezkeela dio:

"Au dala ta "jan dot" da (he comido ahora) *o* ori da "orain"ek daukon *o* indartsue (intensivo); "jan det" barriz da (he comido antes) ta *e* ori da "len"ak datakusgune; "jan dut" ostera (he comido hace tiempo) *u* ori da "urrun"en dabilgune...; eta abar... Auxegaitik ba esan daruagu "gustijak eta gustijok" (Ayengiz, 24. or.).

Antzera mintzatuko da hiztegiak ere (26. or.).

"Euzkerarik eztakigulako biar den beste, eta ganera ixen oker batzuk daukoguzelako, irraparran itz batek gauza bat dikur, eta Gipuzkuen beste bat, Bizkayen be ostera beste bat, auxegaitik uste dot ixen gustijen azterkete ein biar geunkela: Adibidez, Sein (infante) bada "Senar" (seinxar) (infante varon) beraz "hijo" ta ez (marido) orretarako baidago "ezkona" ta. Bardin "Seme" (sein + eme) (hija) ta ez "alaba" ori (al + aba) (amo poderoso) dalako".

K.Z.

AYENGIZ, Iñaki: "Euzkera batasunetzaz", in: *Euskera*, III (1922), I. zk., 21-27 or.

CASTELLANOS DE LOSADA, Basilio Sebastián: *Discurso histórico-arqueológico ó sea reseña histórica sobre los lugares, idiomas, dialectos y escrituras en general, y en particular de España*, Madrid, 1856, 211-221 or.

FERGUSON, Charles A.: "Diglossia" in: *World*, XV (1959), 325-340 or.

JARDEL, Jean-Pierre: "De quelques usages des concepts de *bilinguisme* et de *diglossie*", in: MANESSY, G.; WALD, P., arg.: *Plurilinguisme: Normes, situations, stratégies*, L'Harmattan, Paris, 1979, 25-38 or.

JARDEL, Jean-Pierre: "Le concept de *diglossie* de Psichari à Ferguson", in: *Lengas*, VI (1982), 11. zk., 5-15 or.

LARREA, Txema: "Soziolinguistikaz Euskal Herrian", in: *Zutabe*, I (1983), III. zk., 130-140 or.

- MEILLET, Antoine; COHEN, Marcel (arg.): *Les langues du monde*, CNRS, Paris, 1952.
- PSICHARI, Jean: "Un pays qui ne veut pas de sa langue", in: *Mercure de France*, 1928.10.01, 63-121 or.
- SANCHEZ CARRION, José M.: "Bilingüismo-Diglosia-Contacto de Lenguas", in: *ASJU*, VIII (1974), 3-79 or.
- SANCHEZ CARRION, José M.: "Fundamentos para una teoría de la territorialidad lingüística", in: RUIZ OLABUENAGA, J. I.; OZAMIZ, J. A. arg.: *Hizkuntza minorizatuen soziologia*, TTartalo, 1986, 20-49 or.
- SCHLIEBEN-LANGE, Brigitte: *Iniciación a la sociolingüística*, Gredos, Madrid, 1977.
- SOLOETA-DIMA, P.: *Ensayo de la unificación de dialectos baskos*, Buenos Aires, 1922.
- TOVAR, Antonio: "Bilingüismo en España", in: *Revista de Occidente*, Extraordinario II (1982.02), 13-22 or.

# Diruaz eta moneta-politikaz zenbait ohar

Joseba Tobar-Arbulu

## 1. Sarrera

Gorporazio handien gidaburokraziek duten boterea, daukaten ezagueraren monopolioan datza. Bankuek eta finantz erakundeek antzeko monopolioa edukitzen dute. Diruaren ezaguera guztia beraiei uzten bazaie, gauza batez segur egon behar da: monopolio horrek ez duela norberaren alde lan egingo, bankarrien alde baizik. Beraz, dirua nola erabiltzen den zenbait ohar beharrezko dirateke, bankuak eta finantz sistema kontrolpean eduki ditzagunerako\*.

## 2. Diruaren historia

Diruak historia luzea du. Inork ez du benetan ezagutzen diruaren historia non hasi zen; dena den, diruaren erabilera historia idatzia baino lehenagokoa da. Herodoto-k txanpon-diruaren

asmaketa grekoei —lidiarrei— iratxeki zien, prostituzio-mota berritzaile zenbaitekin batera. Eta hala egin zuen, berak ez zuelako biderik jakiteko Indian eta agian beste leku batzuetan dirua lehenago erabili zenik.

Diruaren historia, hiru etapatan bana daiteke.

Lehenbizikoan, oinarrizko edo jatorrizko dirua dei dezakegulara erabiltzen da. Urrea, zilarra edo beste salgai desiratu bat da.

Bigarren etapan, gobernuak eta bankuak bilakatzen dira faktore nagusi diru-hornikuntzan — batzuetan, bankuen kasuan bezala, horretaz erabat ohartu gabe. Baina oinarrizko salgai bat oraindik eduki daiteke kopuru espezifikoan Estatu-papermone-ta, banku-txartelak edo diru-gordailuetarako ganbioan. Horrela izan da urrezko edo zilarrezko estandarren erreferentzia.

Hirugarren eta azken etapan, estandar metalikoa desagertzen da; dirua bankuen —eta banku zentralen— eta, ondorioz, gobernuak mailegatzen duen sorkuntza bilakatzen da soil-soilik.

### 2.1. Metalak

Lehen estadioa izugarri sinplea da — gauzek izan beharko luketen modura. Pixka bat desegokia zen, ardi baten jabe izan eta gerrikotan azkena nahi zuen norbaitentzat —gerriko-aukera polita zeukan— ardi bat nahi zuen gizona aurkitzea. Beraz, historiaren hastapena baino askoz lehenagotik, jendea zeraz baliatu zen: saltzeko zeukan edozein gauzatarako, jendeak berak har zezakeen edozein salgai egoki, eramangarri, iraunkor eta dibidigarri. Jendeak gorde zezakeen hori, eta zerbait erosi nahi zion pertsonari eraman. Edo gorde egin zezakeen, zerbait baliagarria edukitzeko bide bezala. Honek guztionek testuliburu-tako klixeez aspergarriak sortu ditu. Dirua tarteko bat da ganbio-prozesuan, eta, horrela, «ganbio-bide». Ganbioan, beste gauzaren balioa neurtzen du, «balio estandar» bilakatzen da. Gorde daitekeenez gero, «balio-biltegi» ere bada.

Tarteko salgaietan egokien, eramangarrien eta dibidigarrienak, jakina, metalak ziren — zilarra, urrea eta kobrea, garrantziaren araberako ordena horretan. Zilarra, historia gehienez zehar, urrea baino garrantzitsuagoa izan zen.

Inflazioa egon liteke lehen etapan, behintzat muga batzuen barruan. Prezioak, funtsean, negozio-kopuruari zegozkion, alde batetik, eta, bestetik, oinarrizko diruaren, urrea edo zilarraren, ugaritasunari edo urritasunari. Hau da beste oinarrizko proposizioa ekonomi zientzian — era primitiboan, «diruaren kopuruteoria». Zenbat eta metal gehiago egon, transakzioen tamaina eta bere diru propioa jendeak gastatu zueneko proportzioa emanik, hainbat eta gutxiago erosiko luke, eta prezioak gorago egongo lirake. Ameriketak aurkituz gero, Mexiko eta Peruko meategiek metal preziatuen kopuru handia isuri zuten Europara. Meategiko lan-indar indiarrengandik zetorren, ez Aztekek edo Inkek pilatutako altxorretik. Ondorioz, prezioak guztiz garaiak ziren, hau da, inflazioa egon zen.

Ameriketako koloniak eraikiz geroko pare bat ehun urtetarako, tabakoa izan zen oinarrizko dirua Virginia-n eta Maryland-en. Zenbait denboratan gainproduktio serioa egon zen, eta, ondorioz, arropa, janaria, whiskey eta bizitzeko beste beharrezkoak eskuratzeko, edo Ingalaterrara itzultzeko unti-txartela lorzeko, tabako-piloa behar zen. Hau ere inflazioa zen. Baina baizeuden mugak: hazi zitekeen tabako-kopuruaz eskuzabala zen muga; meategietatik atera zitekeen zilar-kopuruarentzat, berriz, muga estuagoak zeuden. Beraz, oinarrizko diruarekin —zilarraren etapa— inflazioa mugatua zegoen, bai hedaduraz, bai denboraz.

## 2.2. Bankuak

Bigarren estadioan, gobernuak eta bankuak sartzen dira. Gobernuek oso laster hartu zuten beren gain metal-txanpongintza. Eta Txinan, aspaldiko garai ilunetan hasita, txanponen ordez perezko txartelak ematen hasi ziren gobernuak. Orduan aurkitu zen —lehenbizikoz Mendebaldeko Massachusetts-en— txartel gehiago eman zitezkeela beraiek amortizatzeke zegoen metala baino. Hala gertatu zen, jendeak dirupaper-txartelak berarekin eraman zitzakeelako eta ez zuelako saiatu beharrik txartelak trukatzeko, baldin eta nahikoa segur bazegoen, nahi izanez gero, diru astuna lor zezakeela. Horrela emandako txartel demasiak diru-eskaintza gehitu zuen; are garrantzitsuago dena, gobernuaren letrak pagatzen zituzten, zilarrak edo urreak egiten zituzten be-

zain ongi. Pagamendu-mota hau erakargarriagoa zen zergen bil-tzea baino.

Bankuak ere diru-eskaintza ugaritzeko bide bilakatu ziren, eta, Ekialdetik kanpo, gobernua baino askoz lehenago hasi zi-ren hori egiten, haiek baino iturri garrantzitsuago bilakatu.

Erromatarrek banku-sistema aski garatua zeukaten — baina badago informazio hobegoko epe bat. Italiako Errenazimentu-ko hirietan eta geroago Amsterdam-en eta Europaren iparralde-ko beste merkatal-hiri batzuetan, bere dirua pisa zitekeen leku bat nahi zuen jendeak —txaponak moztuak bait zeuden edo, bestela, pisu gutxiago edukiz, azpibalioztatuak— eta arrazoizko segurtasuna emango zien gordailu batean utzi. Honela sortu zi-ren bankuak. Maiz, urraginak izan ziren lehen bankari pribatuak, hain zuzen ere, kutxa sendoagoak zeuzkatelako.

Berehala konturatu ziren bankuak, kopuru gorde horiek maileguz eman zitzaizketela, eta interesez kargatu. Mailegariak kopuru gordailatu bat lortzen zuen, berak dirutzat erabil zezakeena; gehienetan, banku-txartelak ematen zitzaizkion, berak bankuan mailegu-sarrerak gordailuan zeuzkala zertifikatuz. Mailegariak erosi nahi zuen edozertarako erabil zitzakeen banku-txartelak. Jatorrizko ezarleak oraindik bere kopuru gordailatua zeukan, hots, bere dirua. Mailegatu zuenak ere dirua zeukan. Bankuak, mailegua eginez, dirua sortu zuen. Horrela izan zen lehen, eta horrela izan da orduandainik. Dirua banku batek sortua da, orain maiz egiaztapenezko kopuru-gordailuen motan, mailegatze-ondorio normal bat bezala.

Urre-estandarraz edo zilar-estandarraz —printzipio bera bait da kasu biotan— ondokoa esan daiteke (eutsi diezaigun urreari). Urre-estandarraz esangura bakarra du: txartela edo kopuru-gordailuetarako eskarian urrea pisu espezifikoetan eman litekeela, maileguetatik datozen extrak edo lehen aipatu dugun gobernu-paper extra barne direlarik. Jatorrizko ezarlea eta mailegua egin duena bat bera ez diren bitartean, bankuak egin dezake hau. Diruzain publikoak ere gauza bera egin zezakeen, baldin eta da-goen urrearen gainean demasia pixka bat bakarrik erakusten ba-zuten bere txartelek. Metala bera hartzera zetorren jendeari pagatzen zitzaion bitartean, herria urre-estandarrean zegoen. Ban-kuen kontra setio bat egin eta nahikoa luze iraunen balu —jende gehiegi une berean etortzeagatik— ez zatekeen jende guztiari pagatzeko aski urre egongo. Gauza bera gertatuko zatekeen,

jende gehiegik joz gero gobernura diru likidoa jasotzera. Urrezko pagamendua moztu egin izan beharko zatekeen orduan. Gerra batek edo antzeko premia batek gobernua bortxa dezake maileguak eta dirua egitera, urre-erreserbek estaltzea espero den baino gehiago. Berriro ere, urre-pagamenduaren promesa moztu egin beharko litzateke. Kasu bietan, herria urre-estandarretik kanpo legoke. Eta hori, traumatikoa litzateke.

Urre-estandarrek, bizitza erlatiboki laburreko epean, ospe handia lortu zuen. Urrea begi onez ikusi izan da beti, eta zenbait garaitan eta lekutan oinarritzko dirua izan da, eta ez zilarra. Bizantziarrek, mendeetan Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko merkatalgoa menperatu zutenek, urrea nahiago zuten oraindik, beren apaingarriek erakusten dutenez. Baina ez zen 1867 arte gertatu, Europako Estatuak Parisera elkarrekin bildu, eta onartzea handik aurrera urrea izango zela kopuru gordailatuen eta txartel-zirkulazioaren kontrako erreserba eta herrien arteko pagamendu-bidea. Sei urte beranduago abandonatu zuten Estatu Batuek zilarra, eztabaida handia sortuz. Beraz, azken mendearen hirurogeietan eta hirurogeitamarretan datatzen da urre-estandar modernoa. Lehen mundu-gerran moztu zen European, Estatu Batuei urrez pagatutako erosketa handiengatik; gerraren ondoren erabili zen berriro, eta Depresio Handian betiko abandonatu. Gehienez, beraz, hirurogei-hirurogeitamar urtez iraun zuen.

Ameriketean, legez debekatua zegoen urrea edukitzea 1933tik 1975 arte. Franklin Roosevelt presidentearen hastapenean onartu zen legea. Zer dela eta? Dolarraren urre-edukina jaitsirik bait zen, prezioak altxatuko zirelako esperoan. Bestela esanda, dolar-paper bati zegokion urrearen kopurua murriztu zen eta urre-ontza baten kontra jaulki zitekeen dolar-kopurua handitu. Ekin-tza horrek urrea zuen jendeari dolarretan mozkin bat emango ziokeen — are zehazkiago, erlatiboki banku-kopuru txikiari, hau da, urrerako beren papera edo kopuru gordailatuak ganbiatu dituzten gizabanakoei eta espekulatzailerei. Roosevelt-ek, urrearen jabetza pribatua debekatuz, beren baloreak dolarrekiko ganbio-balore zaharraz ganbia zitzaten eskatu zien. Legea 1975ean kendu zen.

Urre-estandarra Depresioaren garaian abandonatu zen. Zer-gatik? Testuari jarraituz, jende gehiegi etorri zelako denbora berean bankuetara urre bila.



### 2.3. Banku zentralak

Hirugarren etapa urre-estandarren ondoren dator. Orain, bankuan iraunkorki daude libre beren ezarleei urreaz pagatzeko obligaziotik. Eta, esan beharrik ez dago, gobernu-papera ezin daiteke ganbia metalezko kopuru espezifiko batez. Diru-eskaintzaren erregulazioa banku zentralen funtzio eskusibo bilakatu da: Estatu Batuetako Erreserba-Sistema Federalarena, Ingalaterrako Bankuarena edota Frantziako Bankuarena. Erregulazio hau, merkatal-banku eta banku arruntetatik mailegatuaren kontrolaren bitartez egiten da; zeren, orokorki, horrela sortzen baita orain dirua.

Banku zentralek modu ezberdinetara kontrolatzen dute banku arruntten mailegua. Praktika amerikarrak, esate baterako, eskatzen du, banku komertzialek beren kopuru gordailatuen kontra erreserba likido bat edukitzea — orain gobernu-moneta ganbiaezina delarik. Baldin eta bankuek askatasun handiz mailegatzen badute, kopuru gordailatu berrietan diru gehiegi sortzen badute, Erreserba Federalak —Estatu Batuetako banku zentralak— altxa egin dezake garanti erreserba. Horrek, jakina, tope bat ezartzen dio bankuek segurtasunez mailega dezaketinari. Edo, are maizago, Erreserba Federalak gobernuaren titulu-kontuen inbentariotik saltzen du, beti nahikoa handia den inbentario bat. Jendeak eta erakundeek titulu-kontu horiek erosten dituztenean, esku-dirua hartzen dute —erreserbak, hitz batez— banku komertzialetatik Erreserba Federalari pagatzeko. Bankuek mailega dezaketena murrizten du horrek. Merkatu irekiko (*open-market* ingelesez) operazio deituak dira. Bankuen erreserbak apalegiak badira, berrosa ditzakete Erreserba Federaletik mailegatuz. Baina mailegu horiek egiteko asmoa ken daiteke, interes-indizea altxatuz. Eta interes-indize garaiago hau bankuek beren bezeroei pasa diezaiketenez, honek ere bezero horien maileguak geldieraz ditzake. Era honetan maileguak kontrolatzean, kopuru gordailatuen sorpena kontrolatzen da, eta, beraz, diru-eskaintza ere bai — edo, gutxienez, diru-hornikuntzaren parterik handiena. Hauxe da, hain zuzen, moneta-politika izenez ezagutzen dena.

Diru-eskaintza ugaritu behar bada, alderantziz jarriko da makineria osoa. Erreserba-baldintza horiek murriztu; banku zentralek tituluak erosi, saldu barik; interes-indizea txikiagotu, mailegatzea bultzatu, honela kopuru gordailatuetan gehitze bat edukitzeko. Horrek diru gehiago esan gurako luke.

### 3. Banku zentralen kontrola

Esan dugu, merkatu irekiko operazioen bitartez kudeatzen dutela banku zentralek dirua, erreserbak ugarituz edo urrutiz, zein interes-indizeak altxatuz edo beheratuz. Ez al da hori nahierarako botere bat? Zeinek kontrolatzen ditu banku zentralak?

Badago hor nahierarako botere bat, eta urteetan zehar eztabaidagarria izan den arazo berezi bat. Pentsamendu-eskola batek beti mantendu du, bankuen boterea hain handia delarik, eragin politikotik kanpo gorde beharko litzatekeela; horrek, baina, esan nahi du, bankari eta antzeko barruko jendearen eraginpean utzi beharko litzatekeela bereziki. Horiek, prestuki, autointeresen gainera daudela onartzen da. Pentsamendu hau tradizioak indartu du. Joan den mendean, gobernu britainiarrarekiko independentzia substantziala zuen Ingalaterrako Bankuak, eta gaur banku zentralerak dakigun ia guztia Ingalaterrako Bankuak bildu esperientziaz da. Frantziako Bankuak ere independentzia bera zuen lehenengo. Era berean, Estatu Batuetan Erreserba-Sistema Federala eraiki zenean, lehen mundu-gerra hasi baino lehentxeago, antzeko autonomia eman zitzaion, eta presidenteak, edo kongresuak, inoiz eskurik sartuko ez zuelako pentsamenduak bizirik dirau oraindik. Kontrola bankariek edo erudituek, edo akaso Jainkoak, eduki beharko lukete, baina inoiz ez gobernuak.

Independentzia, hein handi batean, mito hutsa da. Dagoen neurria justifikazio gabea da. Ingalaterrako Bankua eta Frantziako Bankua aski zuzen daude gobernuaren kontrolpean, eta hori da beharko litzatekeen modua. Norbaitek izan behar bait du erantzule politika ekonomikoaz. Estatu Batuetan presidentea da erantzun behar duena. Eta beste herrietan, gorengo aukeratuengan egon behar du erantzukizunak. Dirua eta bankuak ez bait daude demokraziaren gain.

### 4. Moneta-politika, inflazioa eta langabezia

Depresio Handia baino lehen, ekonomilari gehienek sentitzen zuten moneta-politika indar erabakiorra izan zitekeela prezioak eta langabezia erregulatzeko, prezioak bereziki. Prezioak jaisten baziren eta langabezia altxatzen, banku zentralak interes-

-indizeak beheratuko zituzkeen, gobernuaren baloreak erosiko eta, honela, banku komertzialak erreserba-kopuru handiaz hornituko maileguak egiteko. Dirua honela sortuz eta gastatuz, ekonomian, osotara harturik, eskaria gehitu egingo zen. Inbertsioa eta errendimendua gehitu egingo ziren, prezioak indartu eta langabezia enplegu bilakatu. Baina Depresio-urteetan ez zuen funtzionatu. Negozioak hain gaizki zeudelarik, jendeak ez zuen dirua mailegatu nahi, nahiz eta modu errazean izan. Zergatik mailegatu, galeretan produzitu eta saltzeko? Herri guztietan fede-gutxitze handia gertatu zen moneta-politikaz, hau da, dirua banku zentralaren bitartez administratuz lor zitekeenaz.

Eta Depresioaren ondotik, bigarren mundu-gerra etorri zen. Gobernuak edo enpresa pribatuek maileguak behar zituzten gerra-produkziorako, behar zen moduan horniturik egon behar zuten. Inork ez zukeen orduan imajinatuko, banku zentralak barnerako lege zirenik, beregain zirenik. Banku zentralen politika gerraren beharrianen menpean egon bait zen erabat.

Beraz, epe luzetxo bat egon da, gutxi gorabehera 1930etik bigarren mundu-gerra pasa arte, banku zentralak guztiz garrantzi gabekoak izan direnekoa. Axolazkoa, gobernuak langabeziarako mailegatu eta gastatu zutena zen, orduan mailegatzea ez bait zegoen posible bat lortzearen menpean. Eta beranduago, gerra-asmotarako mailegatu eta gastatu behar zena izan zen arazorik garrantzitsuena. Moneta-politikak leku egin zien gastu publikoari eta zerga-politikari, politika fiskala deitzen dugunari, bera bigarren mailara pasatuz.

Ezin ote zuen moneta-politikak inflazioa galerazi? Ez al da moneta-politika inflazioaz aritzen: Moneta-politikak —Frantziako edo Ingalaterrako Bankuan nahiz Erreserba Federalaren Etxean mahai handi batean eserita zeuden jaun isil eta patxada-tsuek legegintzarik gabe har zitzaketen erabakiak— problemari soluzio bat aurkitzeko bide izugarri egokia eskaintzen zuen. Banku zentralak merkatal-bankuak nahikoa estutzen baditu, mailegatu behar duten diruari erabakiorki eragiteko, eta mailegatzen dutena interes-indize garaietan mailegatzeraz bultzatzen baditu, gastu gutxiago egongo da, hots, eskari gutxiago ekonomian. Diru gutxiago egongo da bereziki etxeak eraikitzeko, beste eraikuntzetarako, negozio txikiagoen inbertsioetarako inbentarioetan, instalazioan eta ekipamenduan, eta epekako erosketarako automobiletan eta etxe-tresna elektrikoetan, zeren eta gauza hauek guztiak banku-mailegatuak finantzatzen bait dituzte. Mailegatze-

ko hertsura aski bortitza bada —gastatzeko eta birgastatzeko kopuru gordailatuen sortzean—, inflazioa geldieraziko da.

Baina hertsura horren ondorioa ezberdina izango da beti. Ekonomian gastuen agregatua herstearen bitartez funtzionatzen du, ekonomilariak eskari agregatua murriztea deitzen dutenaren bitartez. Eskariaren herstura honek General Motors, Exxon, Philips, Shell edo beste gorporazio handiak jotzen baditu ere, ez die prezioak altxatzea eragozten. Salmentak eta produkzioa urritzen dituzte lehenbizi. Prezio-murrizteari kontra egiteko boterea dute: hauxe da handi izan nahiaren arrazoietakoa bat. Eta beren alokairuen kostuak gora badoaz edo prezioak altxatzeko beste justifikazioren bat badago, altxa egingo dituzte prezioak. Prezioen igoera geldieraztera eta alokairuen gehitzeari eustera, gaitasun inproduktibo handia dagoenean bakarrik izango dira bortxatuak. Momentu horretan, langabezia handia egongo da. Eta honek ere sindikatuen eskariak apaltzea ekarriko du. Beraz, enpresa handi hauentzat, langabezia sortuz funtzionatzen du moneta-politikak. Ondorio hau guztiz ezaguna da gaur egun, politika horren usadio berria dela bide.

Beste ondorio bat ere badu, indartsuen aldeko beste fabore bat eta ahulen kontrako beste eragozpen bat adierazten dituena. Gorporazio handiak badu, bankuetatik aparte, kapital-iturri beregain bat: bere irabazi propioetatikoa; eta banku zentralaren mugaketak banku komertzialen maileguetan ez du eraginik izan iturri honetaz baliatzeaz. Edozein kasutan, enpresa handiak dira bankuen bezero gogokoenak, zerbitzatzen dituzten lehenak, mailegatzeko dirurik baldin badago. Prezioak bere kontrolatzen dituztenez, interes-indize handiagoak ere pasa diezaizkiekete bezeroei. Beraz, babestu samarrak daude moneta-politikaren ondorio kaltegarrien kontra. Aitzitik, baserritarrak, nekazariak edo arantzaleak nahiz bere inbentarioak eramateko dirua behar duten merkatari txikiak guztiz zaurgarriak dira moneta-politika-erikiko, eta, guztien gainetik, diru mailegatuz aritzen diren eta dirua mailegatzen duten bezeroen menpean dauden etxagintza bezalako industri-enpresak. Ikusten da, beraz, nola funtzionatzen duen moneta-politikak: gorporazio handi eta sendoak salbuetsiz, eta txiki eta ahulak zurrupatuz, langabezia sortuz.

Orduan, zergatik gomendatzen dute oraindik ekonomilariak moneta-politika? Beti egon delako ekonomilarien artean halako lilurapen bat banku zentralaren politikaren mekanikarekiko. Baina oro har eta erabat zuzenki, bera da jende guztiz kontserba-

doreen neurri faboratua. Eta ez da kontserbadore baten funtzioa, negozio handiak negozio txikien gainetik faboratzen dituen politikaz arduratzea. Edo langabezia. Bera ez da arduratzen, eta bere abantaila da ondorio kaltegarri horiek albora uztea.

Esate baterako, Milton Friedman batek merkatuak erregulatzeko duen konkurrentzi enpresez osaturiko ekonomia baten ikuspegia dauka. Merkatuak iraun egiten du oraindik, eta gorporazio handi eta boteretsua ez da inoiz garrantzitsua izan bere pentsamenduan. Bizitza ekonomikoaz duen ikuspegia onartzen bada —konkurrentzia oraingoz merkatu efektibo batekoa—, nahiz eta ulermen eta tolerantzia zerbait eduki, orduan ikus daiteke nola moneta-politikak bere burua zabaltzen duen, konkurrentzi enpresetako ekonomia batean zehar, aski uniformeki. Politika horrek gutxi-asko enpresa guztiak mehatxatzen dituela pentsa daiteke, eta, konkurrentzi enpresak direnez eta merkatuaren indar inpersonalen pean daudenez, banku mailegatzearen eta eskari agregatuaren murriztapen batek enpresa guztiak prezioak jaitsezeratera edo prezioen altxatzeari uko egitera bortxatzen dituela. Hauxe da, ez langabezia, lehen ondorioa. Handik Friedman-en gomendio nagusira iristen gara: diru-eskaria eta ondoriozko eskaria ugaritzearen bakarrik ondasunak eta zerbitzuen eskaria gehitzen den edo gehi daitekeen neurrian mugatzen direla bai mailegatzea eta bai diru-sortzea. Mailegatzeako, dirua sortzeako eta eskariaren gehitze handiago bat lortzeako, edozein joera dago zorrozki kontrolaturik. Ondorioa, prezio egonkorren ekonomia da.

Baina honek ez du horrela funtzionatzen mundu errealean. Diru-murrizketak ez du geldierazten merkatu-diziplinatik alde egin duen eta bere prezio eta errenten igoerak kontrolatzen dituen enpresa erraldoia. Langabezia izugarria dagoenean bakarrik geldierazten da gorporazio hori. Bitartean, oraindik merkatuaren pean dauden enpresa txikientzat funtzionatzen du diru-murrizketak, zigorbide baten moduan.

Hala ere, zenbait jendeak pentsatzen du, moneta-politika erabilgarri eta baliagarri dela. Politika horrek ez du behar legegintzarik eta arinki erabil daiteke eztabaida aspergarririk gabe. Batzuetan, inflazioari aurre egiteko moneta-politika bakarrik erabiltzera behartuak aurkitu dira gobernuak, beste egitekorik ez zegoela ematen bait zuen. Baina moneta-politika, kontserbakortasunaren berezko eta legezko adierazpena da. Langabezia arduratzen ez bada, sindikatuak gogoko ez badira eta negozio

handiak diru mailegatuaren menpean dauden negozio txikiak baino gehiago faboratzen badira —jarrera politiko guzti horiek legezko direla, horrela ulertu nahi bada—, moneta-politikaren alde egon behar.

Bestalde, moneta-politika dela bide, bankariek errenta gorago bat izango lukete mailegatzen duten diruaren gainean. Hau ez da sarritan aipatzen. Baina, bankariek, negozio-gizonen artean bakarrek, bere prezioak altxatu ahal dituzte inflazioa geldierazteko, Estatuaren arrazoi ekonomikoengatik soil-soilik. Hala ere, beraiek ez dira batere kexatzen hortik ateratako korrituaz.

Negozio-inbertsioetarako mailegatzea murriztuz funtzionatzen badu, ez al da hori kaltegarri? Ez al dio jendeari atzera eragiten makineria eta inbentarioa erostetik, negozioak gero eta inproduktiboago bihurtuz? Inflazioa galerazteko edo mugatzeko moneta-politikaz fidatu diren gobernuek kalte serioa egin diote beren herri propioetan negozio-inbertsioari. Britainiarrak dira kasu bat. Azken hamabost edo hogeitun urteotan, oso tinko fidatu dira moneta-politikaz, eta hori da instalazio berrientzako inbertsiorik ezaren arrazoietakoa bat, kostu eta lan-produktibitateko ondorioekin. Ekonomilariek ez dute aintzakotzat hartu enpresa txikiagoetan inbertitzeko mailegatze-murrizketaren ondorioa.

Gobernuek ezin lortu izan zutenean jendeak bankuetatik mailegatzea, dirua gastatu eta eskaria eta ekonomia modu horretan eragiteko, berak hasi ziren mailegatzen eta gastatzen. Honek segurtatu zuen dirua mailegatzea eta gastatzea. Eta, alderantziz, inflazioa kontrolatu behar izan zutenean, zera pentsatu zen: zerga altuagoek aldendu aingo zutela jendea bere diru propioa gastatzetik, eta gastu publikoa urritzeak, oster, gobernua gibelera-ziko zuela eskaria gehitzetik. Horrela, aurrekontua erabili zuten gobernuek moneta-politikaren ordez ekonomian eskari osoa edo agregatua erregulatzeko eta, era horretara, inflazioa eta langabezia eragozteko.

Baina horrek ere ez zuen funtzionatu, bestetan frogatu dugun bezala (Ikus *Larrun* aldizkaria, 5. zk.).

J. T. -A.

\* Lantxo hau John Kenneth Galbraith-en *Almost Everyone's Guide to Economics* liburutik, 6. kapitulutik, moldatua dago.

## Egunen gurpilean

Joan Altzibar

### Cicciolina

Ez dira, nonbait, ezkonterrazak politika eta sexua. Ikusi dugu Gary Hart-ekin. Bi äldiz' aurkeztu du bere burua USAko lehendakari-gai bezala, eta bietan egurra eman diote, gona-arazoak tarteko.

Illona Staller «Cicciolina»ren kasuak bazirudien ez zela berdina. Sexutik —hobe, pornografiatik— politikara zetorren Cicciolina. Aire berriak zekartzala pentsa zitekeen. Bai zera! «Negozioan» jarraitu du, politika aspergarria «berritu» ordez. Italiako Alderdi Erradikala portroetaraino dago. Pornodiputatu hori hautatu izanaz damutu baino damutuago. Idazkari Nagusiak aitortu ere egin du: «Illona Staller-en hautapena hankasartzea izan zen, ingenuitatea, maila politikoan, elektoralean eta finantzarian». Politikak Illona Staller-ekin negozio eskasa egin du. Hobe Cicciolinak politikarekin. (*Urtarrilak 2*).

## Calviño eta telebista pribatua

Laster hastekoa da *Canal 10* deitu telebista. Londresen du egoitza, baina Estatu espainolera dago zuzendua. Zinismoa zer den: Alderdi sozialista ahaleginean dabil telebista pribatuaren legea atzeratu eta atzeratu. Eta bitartean, *Canal 10*: Guerra, Alfonso, omen dago honen atzean.

Zinismoa zer den? Calviñorena. TVEren buru zenean, Calviño zen telebista pribatuaren etsairik amorratuena. Hiruzpalau aldiz entzun izan dut telebista-eredu publikoaren gorentasun moralak predikatzen. Telebista pribatua «interes pribatu»en kokalekutzat deskalifikatu ohi zuen Calviñok. Eta zer gertatuko, eta, hilabete gutxitara, telebista pribatuaren bultzatzaile.

Zein ahula —eta aldakorra— den zenbait gizon publikoren diskurtso politiko eta moralak. (*Urtarrilak 5*).

## Umbral-en Setien

Francisco Umbral ez da, idazle bezala, sekula nere deboziokoa izan. Baina ez hainbeste edukinarengatik, esaten zuenagatik, baizik eta moduagatik, idazkeragatik. Edo hobe, poseagatik.

Ba da, oraingoan, Umbral-ek *Interviu*-n (88.01.06) idatzitako artikuluan, edukinak harritu nau. Burua galdu du nonbait Zaragozako atentatuan. Setienekin sartzen da, euskal gotzainekin, baina, oker ez banago, azken batean, hauekin adina ia euskal abertzaleekin: arrazistak, baserritarrak, fanatikoak eta desesperatuak gara euskaldunok; euskaldunok gara.

Hona haren hitzak:

«... Los obispos vascos, con sus pastorales, están sustituyendo el agua bendita por amonal en todas las iglesias, parroquias, catedrales, ermitas y oratorios vascos. Son los obispos con más cojones de España, aunque se les arru-



guen un poco ante la medianería de ETA, que la tienen paredaña. Monseñor Setién es, sí, el último carlista, por lo que llevamos leído de él, el clérigo legitimista de un racismo y un aldeanismo que no habían vuelto a ser tan virados, revirados y virulentos desde el XIX.

(...) La iglesia tiene un primer o último fondo aldeano (la fundaron unos pescadores) y las pastorales del pastor Setién son ensalmos para un redil escaso, fanático y desesperado. Al hombre no se le ocurre otra cosa. Es carlista sin saberlo».

Umbral-ek ez du Setienen lerrorik sekula irakurri. (*Urtarrilak 16*).

## Sabrina

Sabrina dabil hemendik. Italiatik datoz bularrak (titiak). Bular-erotismoa. Lehen Cicciolina, orain Sabrina. Lehenago, Ernazimentuan, artea.

Sabrinarekin amaitu genuen urtea. Eta Sabrinarekin hasi dugu berria.

Urtea bukatzeko Bilbora etorri zitzaigun. Hobeto: ekarri egin zuten. Eta ez edozeinek: Udaletxeak! Bilboko Kultura-Sailak 3,5 milioi pezeta ordaindu zuen «Gorodillon» en parte hartzeagatik. Diru-kopuru hori eta gehiago ere merezi —eta behar— du kulturak. Kultura fisikokak, noski. Kultura-Saileko kontzejalak, Mikel Ortiz de Arratiak, ongi esan zuenez «lo importante de ella no es lo que canta sino el frente». Gioconda-z ari ote zen?

Eta, noski, Gorordok beti ere eskola egiten bait du, pribatuari bidea erakutsiz (vide ETB-2), urte berriarekin Oiartzungo «Erne» eta Bergarako «Txibisto» festa-salek ekarri egin dute gure Sabrina. Jendea erruz inguratu da. Frustraturik itzuli omen dira gehienak, iruzurtu sentiturik. Zergatik? Titiak erakutsi ez dituelako. Eta ez zaie arrazoirik falta, Arratia kultur gizonak esana bait zuen aurrealdea zela inportantea, eta ez abesten zuena. (*Urtarrilak 9*).

## Aberria, hizkuntza

Juan Gelman Argentinako olerkaria da. 13 urtez des-terruan bizi izan dena, Frantzian, Buenos Airesera itzul-tzen da orain.

Honek esan du: «Exilioan aberri bakarra hizkuntza da».

Gurean ere honelatsu delakoan nago ni, Euskal He-rrian bertan. Exilioan ote gaude geure herrian? Ez ote? (*Urtarrilak 18*).

## Alvaro Bermejo-ren sakea

Alvaro Bermejok idatzi, Arantza Gorostidik itzuli eta «Donostia Hiria» ipuin-saria irabazi: hona zer gertatu den. Hau da, itzulpen batek irabazi du euskarazko saria. Egiazko elebitasuna bultzatu nahi omen du horrela, dio autoreak.

Eta sariarekin batera, aspaldiko polemika —euskaldu-nen eta Euskal Herriko idazle erdaldunen artean— piztu nahi izan du egileak, Alvaro Bermejok. Literatur politika garraski salatzen du: euskal idazlea haur mimatua da; erdaraz idazten duen «euskal» idazlea, aldiz, baztertua dago. Euskarazko sari bat irabazi duenak laguntza-auke-ra gehiago du, erdaldunak baino askoz ere gehiago, dio Bermejok.

Betikoa gaude: hizkuntzari loturiko eskubide guz-tiak maila indibidualean planteatzen dira gurean, Konsti-tuziotik hasita. Gure arteko erdaldunak oso iaioak dira honetan. Baina, baita, argumentazioa bere aldera itzul-tzen ere, gutxiengoak arbuiauz. Horren audientzia apa-leko telebistak bere burua legitimatzen al du?, galdetzen du Raúl Guerra Garridok. Elebitasun demokratikoa, ho-rra. (*Otsailak 1*).

## Kepa Lucas-en errestoa

Ederra erantzuna, Kepa Lucas-ek Alvaro Bermejo-ri emana.

Aurtengo «Pasaia saria» irabazi du Kepa Lucas-ek «Poemas de liquidación» liburuarekin. Erdarazko poema-saria.

Bai, baina euskaraz: «Poemakumeak (Hogei poema txippi)». Itzulpenik gabe. Euskaraz zuzenean idatzia. Bai, Lucas euskaldunberria da, eta elebiduna, Bermejo ez bezala, nahiz eta honek ere ipuina euskaraz aurkeztu. Hor dago kokka. Eta soluziobidea. (*Otsailak 15*).

## Gurrutxaga eta Boadella

Eskandalu galanta arrotu dute bien artean. Gurrutxagaren teleaioan *Els Joglars* taldeak parodia egin du. Parodi gaiak Barcelona futbol-taldea, Pujol lehendakaria, Montserrateko Amabirjina. Jende asko haserretu eta mindu egin da Katalunian: errespetu-falta, gusto txarra, zentralismoaren eraso, diote. Besteek, umorea, gatza, biperra, adierazpen-askatasuna, aipatzen dute hitzetik hortzera.

Badira arazo honekin birritan gozatu dutenak ere. Batetik, Kataluniako kluxe «sakratuak» barregarri ikustean. Eta bestetik, Kataluniako zenbait sektoreren erreakzioa ezagutzean: erreakzio nazionalistatzat jo dute, gehiegizkotzat. Umorea-falta omen dute katalanek. Jakina.

Umorea-falta dugu euskaldunok ere, noski. Euskal abertzaletasunaren zenbait sinbolo ukitu izan balute, nola erantzungo ote genuen guk? Ez ikaragarri diferente, uste dudanez. Ez dut pentsatu ere egin nahi nola kalifika zezaketen gure erreakzioa: trogloditatzat joko gintuzketen.

Baina eman dezagun beste parodia bat egiten dugula, frogatzat: Parodiako pertsonaia bezala erabil Erregea, Felipe González, Pilareko Amabirjina, Real Madrid...

Orduan, zer? Orain poztu diren batzuek ez lukete izango, ez, jarrera bera. Zeren eta, noski, hemen nazionalismoa, nazionalismo itsu eta itxia besteena bait da beti... (*Otsailak 25*).

## ETB-1 berriz auzitan

ETB-1 beti egon da auzitan. Beti: hasieran, ETB-2ren sorreran eta orain.

EGM (Estudio General de Medios) etxearen inkesta batek jo du txistua, eta alderdi politikoak berehala jarri dira dantzan. Jo eta ke hasi dira deklaraziotan.

ETB-1en audientzi kopurua % 28 jaitsi omen da. Eta ETB-2rena % 32 igo aldi berean.

Datu fidagarriak ote? Ez dakit. Jauzi handiegia dirudi. Metodologiak ere ez dirudi arras zuzena.

Autofagia ote da? ETB-2k jan ote du ETB-1? Bariantza bat baino gehiago dago hemen, noski. Batek galtzen duena ez du besteak irabazten, nahitaez. Baina, bai: autofagia da. Gorordok hondatu egin zuen ETB. Bat zegoen tokian bi sortuz, hasteko? (Eta presupostua ez bikoiztuz). Eta telebista komertzialaren eitea erantsiz, gero. Zer egin daiteke baldintza horietan? Egiten dena: emisio-orduak gehitu programak biderkatuz; ekoizpen propioa indartu ordez, programa merkeak erosi; kirola barra-barra eman. Nahikoa lan du Ortuondo gizaixoak.

ETB-1 % 28 jaitsi delakoa ez dela egia? Agian ez. Baina «se non e vero, e ben trovato», eta laster izango da egia. Bai horixe. Zer egin behar du ETB batek, kanpoko programazioarekin, eror-zorian gainean ditugun telebista-aukera guztiekin?

Lorpen bat aitortu behar zaio Gorordori. Gorordok lortu du lortu edozein momentutan, edozein atxakiatan, ETB-1 auzitan jartzea. Eta ETB-2 besterik gabe onartzea.

P.S.: Behin eta berriz salatu izan zaigu euskaltzaleoi, ETB-2ren aurka ez erreakzionatu izana. Beti gauza bera

esan diet: erantzun dugu, eritzia agertu dugu, salakuntzak egin ditugu. Baina alferrik: ez da inor enteratu. Euskaraz mintzatu bait gara. Eta bien bitartean, politikorik ziztrinenak hitz-erdi bat atera duenerako, letra handitan dugu egunkarian. (*Martxoak 1*).

## Mikel hil da

Mikel Lopetegik bere buruaz beste egin du Herrera de la Mancha-ko gartzelan. Ez da lehena. Azkena izango al da behintzat!

Berri txarra zabaldu orduko jarri da martxan gramofonoa politikoen disko ajatuarekin. Jo eta ke deklarazioak. Nor gogoratu da bere familiaz, dolumina emateko gutxienik?

Areago: Mikelen gorpua oraindik bero dagoenean, bera eta bere familia zikintzen hasiak dira: bergizarteratzea eskatu zuela, gartzela-kideen borrokak bultzatu due-la urkatzera... Bai, familia zikintzea da hau. Zeren eta, Mikelen etxeok ez dira Tolosako guraso eta anai-arrebak bakarrik, baita bere gartzela-lagunak ere. Non ikusi da urkatuaren aurrean etxeokoen aurka hitz egiten! Gure politikoeek ezin al dute sekula beste tesitura batean hitz egin, behingoz, politikakeriak ahazturik? Hildakoari behintzat errespetu gehiago, jaunak! (*Martxoak 3*).

## «El Estado policial»

Titulu honexekin irakurri dut gaur artikulua bat, Antonio Papell-ek idatzia. Ez da batere ezkertiarra kolumnista hau, demokrazia formalaren defendatzaile sutua da. Asaldaturik dago legeria penalaren berritzean tartekatu diren arau antiterrorista zenbaitekin. Kasu be-beziatarako eta salbuespen zirenak, orain, betiko, kontsagratu-rik gelditzen dira.

Estatuaren prepotentzia gero eta handiagoa da. Eta gizabanakoaren eskubideak, murrizagoak: adibidez, komunikabideen sekretua, etxebizitzaren inbiolabilitatea, segurtasun juridikoa.

Arriskua non dagoen? Ezkerreko zein eskuineko, Estatuaren indarrean. Honetantxe, A. Papell-en hitzetan: «... de forma que cualquier hipotético dictador que pudiera hacerse con el poder en el futuro no tendría más que valerse de una ley democrática para reinventar, con su interpretación abusiva, una nueva dominación intolerable».

Bai, jauna, honetan da auzia: demokraziaren eta diktaduraren arteko aldea izpirituala eta materiala da. Bieta-ko batek huts egitean, akabo demokrazia. Eta Estatuaren prepotentzia demokraziaren eragozle da. (*Martxoak 19*).

## Nazio-arazoa Soviet Batasunean

Hirurogeitamar urtetan nazionalitateekiko doktrina leninista aplikatu arren (edo aplikatzeagatik), nazionalitateak ez dira ezabatu Soviet Batasunean. Armeniarren errebolta- berri zabaldu da batez ere. Baina, honen aurretik, izan da besterik, Gorbatxof agintera iritsi ondoren.

1986ko udaberrian, Jakutiako errepublika autonomoan, jakutiarren eta errusoen artean. Urte bereko abenduan, Kazajstan-eko errepublika ertasiatikoan, kazajstan-darrak eta errusok berriz aurrez aurre.

Iazko udan, Stalin-ek Krimeara deportatu zituen tartarok manifestazioa egin zuten Moskuko Plaza Gorrian.

Baltikoko hiru errepubliketan ere ez dira falta izan —Estonia, Letonia, Lituania, azken lotuak— manifestazio abertzaleak.

Eta, aurtengo otsailean hasita, armeniarrek mugitu dira. Nagorko Karabaj, Stalin-ek Azerbaijan-i 1923an erantsia, Armeniako Errepublikakotzat onartzea es-

katzen dute. Nagorno Karabaj honetako % 80 armeniarra da.

Bistan da: nazio-arazoa ez da sekula hil Soviet Batasunean. Altuenean ere, isildu, moteldu. Baina hil ez. Pizten ari da orain. Gorbatxof-en *perestroika* eta *glasnot* politika berriaren babesean.

Zer-nolako jarrera hartuko ote du Gorbatxof-ek? Ataka gaiztoan dago, egia esan: Brejnev-en gisa ezin ditu mugimenduok zapaldu, bere berrikuntz politikari uko egin gabe. Zer egin, beraz? Onartu? Eta onartuz gero, non eta nola moztu istiluen etengabeko katea hori? Zain-zain ditu, bestalde, inobilista eta ortodoxo guztiak, liberalizazioa anarkiarekin parekatuz.

Ez da txantxetakoa Soviet Batasuneko nazio-arazoa. Nazioen Estatua da Soviet Batasuna, herrien mosaikoa. Espainia halako 45 lurrez, 285 milioi biztanle ditu, eta 126 nazionalitate desberdin, honela antolatuturik: 15 errepublika-federazio, 20 errepublika autonomo eta 15 eskualde autonomotan.

*L'Empire éclaté* liburuan Hélène Carrère d'Encausse idazleak tesi hau defendatzen du: talde etniko, erlijioso eta nazionalisten joera zentrifugotik datorkeela Soviet Batasunaren leherketa. Bai ote? Agian bai, baina ez oraingoz. (*Martxoak 26*).

## Politika eta etsipena

Jende askok ez du eritzi onik politikoei buruz, ez Alderdiei buruz. Zoritxarrez. Komunitate Autonomoko biztanlegoaren hiru laurdena ez dator bat «politikoa ondrauak dira» proposamenarekin. Pentsa. Hori dio behintzat Gobernu Autonomoko Lehendakartzako Idazkari-tzak landutako inkesta batek.

Interesgarri da ikustea, zein den hainbat instituzio eta talderen balorazioa (1etik 9rako eskalan):

Udaletxea: 5,6  
Ertzantza: 5,5

Gobernu Autonomoa: 5,4  
 Autonomi Estatutua: 5,4  
 Prentsa: 5,3  
 Eliza katolikoa: 5,3  
 Konstituzioa: 5  
 Diputazioak: 4,9  
 Monarkia: 4,8  
 Sindikatuak: 4,4  
 Epaiketa-sistema: 4,2  
 Estatuko Gobernua: 4,1  
 Alderdi politikoak: 3,6  
 Goardia Zibila: 3,6  
 Polizia Nazionala: 3,6  
 Armada: 3,5

Hona datuak, eritziak, edo nahi dena. Hamahirugarren tokian datoz alderdi politikoak, kalifikazio eskasez, gainera. Bat ere ez da goimailan gelditzen, egia, baina ez da normala alderdi politikoak goardia zibilaren eta polizia nazionalaren pare egotea.

Zeren adierazgarri dira datu hauek? Frustrazioaren edo/eta desenkontuaren lekuko, gutxienez.

Harritzekoa al da, honez gero, jendearen politikarekiko mesfidantza eta interesik eza? Jende asko «politikatik pasa» egiten da. Errealitate hau oso arriskugarritzat joko dizu edozein politikok. Akats handia omen da hori sistema demokratikoan. Porrota.

Ni ere horretan nago. Baina non dago gurean honen erroa (errua?)? Nere ustetan, egoera tamalgarri honen eragile, gaur dugun klase politikoa bera da. Anbizio gehiegi, printzipio iraunkor gutxi, aginte-gosea, etika eskasa, trapukeria ugari, zikinkeria ez gutxiago, komenentzien araberako aldaketak, hitza barra-barra jatea, hitz hutsak, sasi-aginduak, nepotismoa... Horra klase politiko honen «bertute»etako batzuk.

Eta bestetik: presentzia handiegia du gizon politikoak gizartean. Aspertzearainokoa. Komunikabideak oro, telebista, irrati, prentsa idatzia, haren ahotik daude. Hobeki, elkar sustatuz doaz kazetaria eta politikoa. Gehiegitxo. Kirol-mundua futbolak estaltzen duen bezalatsu irensten du errealitate soziokulturala politikak.



Politikaren eskasiak eta politikoen demasiak, azkenean, politikarekiko (ez sistemarekiko, baizik eta errealtate politikoarekiko) urruntasuna eta hoztasuna ekarriko dute bien artean. Tamalgarri izateaz gain, arriskutsu da hori denentzat.

Ez dugu suerterik izan: politikaren ukaziotik (dikadura frankistatik) gatoz eta gaurko gizon politikoeekin topo egiten dugu! Egia ote da, gero, merezi ditugun politikoak ditugula? (*Apirilak 3*).

## Sadaba-Savater, Montero-Damborenea

Sadaba eta Savater filosofoek Donostiako Aurrezki-Kutxa Munizipaleko aretoan izandako elkarrizketan, han izan nintzen. Telebistaz ikusi nituen gero, Tolaren «Querido Pirulí» telesaioan.

Donostiakoan serio ikusi nuen Sadaba, diskurtsu ongi taxutuarekin. Savater, aldiz, tesi ezagunekin, baina maila politiko hutsean, ez filosofikoan. Eta, harritzekoa, kamusturik. Ez zegoen bere plazan.

Telebistakoan lotsagarri ikusi nuen Savater, paperak galdurik. Modu txarrean, bestearen diskurtsua oztopatzea zuen helburu. Honetara zetozen irribarretxo urdu-riak, intsultuak, deskalifikazioak, etengabeko mozketak... Arrazoi eman zion Sadabari: honek dio, Madrilen ezin dela libre eta lasai hitz egin negoziazioaz, euskal autodeterminazioaz. Eta halaxe da, Savater han dagoenean behintzat.

Gertakari honetaz idazteko asmorik ez nuen batere, bigarren borroka dialektiko (?) sonatua gertatu arte. Txema Montero eta Ricardo García Damborenea egon dira, programa berean. Eta gauza beretsua gertatu da. Tabernako dialektiba iaotasunez erabili du Damboreneak, ez dio utzi Txemari hitz egiten; probokatzera, intsultatzera jo du etengabe. Hona taktika: galdera/salakuntza probokatzaila egin, eta bi segundo barru moztu erantzuna. Eztabaida borrokarekin nahastea da hori.

Kasu batean zein bestean, neretzat gutxiena da gaia: bataren eta bestearen argumentuak eta jarrera politikoa. Moduak interesatzen zaizkit, bakoitzaren eitea eta politika adierazten duelako. Sadabak eta Monterok konpostura gorde zuten. Eta ez zen erraza. Beste biek, ez.

Ikusten nengoen bitartean, pentsatzen nengoen nere baitan: eta alderantziz balitz, alegia, diskurtsu-eragozleak besteak izatea, insultatzaileak Txema edo Sadaba izatea? Zer ez genuke irakurri beharko: argumentu-ahalmenik eza, modu diktatorialak, analfabetismo historikoa, zinismo politikoa... eta auskalo zer besterik! Zeren eta hau denau irakurri bait diot Pedro Altares-i, DVn, Monterori buruz. Hitz-erdi bat ere ez Damborenearen jarreraz. Gaitz-erdi. ABC eskuindarra ere Damborenearen alde atera da. Garbi hitz egin omen zuen honek, desarmatu egin omen zituen Monteroren tesi anbiguoak, Montero ez omen zen erantzuteko gauza izan. Bego.

Egia esan, ikusi zuenak bakarrik daki zer gertatu zen eztabaida hartan (haietan), baina nago, tesiak salbu, PSOEk gustora egingo liokeela HBri Damborenearen traspasoa. (*Apirilak 20*).

## Le Pen gora

Ehuneko 14etik gora botu bildu du Le Pen-ek Frantziako Lehendakartzarako hauteskudeen lehen itzulian (Mitterrand-ek % 34; Chirac-ek % 19; Barre-k % 16).

«Benetako lurrikara politiko»tzat jo dute batzuek Frantzian. «Eskuinaren Waterloo elektoral» bezala hartu dute beste batzuek. Izan ere, indar ultraeskuindar batek % 14 bereganatzea inportantea da. Baina askoz ere garrantzitsuagoa da esan nahi duena. Inportantea da, bai, hamalau urtetan, 1974etik 1988ra, % 0,7tik % 14era igerotzea. Baina inportanteagoa, zer-nolako mezurekin egin duen gorakada hori: ultranazionalismoa, xenofobia, chauvinismoa, arrazismoa, atzeritarren kanporatzea... Hauek izan dira gai nagusiak.

Inportantea da, baita, non hartu dituen botuak ohar egitea: Marseillan, baina Frantzia osoan batez ere. Eta ez botu eskuindarraren eskualde tradizionaletan, zonalde industriatsu eta hiritartuetan baizik, PCren orain arteko eremuetan. Ez da, beraz, botu lokalista. Korronea da, Frantzian nonnahi zabaldua.

Botu honen analisisia ez da erraza, baina badirudi, neurri on batean, langabeziak ekarri duela, larritasun ekonomikoak, hiriko segurtasunik ezak eta munduan Frantziaren garrantzi-galtzeak. Ez litzateke, hortaz, botu eskuindar klasikoa.

*Libération* egunkariaren zuzendariak, Serge July jaunak, idatzi duenez, botu baztertzailer hau bazter-zorian dagoen hainbat eta hainbat gizon-emakumek emana da. Ulergaitza, baina egia. Egia kezkarria. (*Apirilak 24*).

## **AEK-EAJ: Hitzarmen atipikoa**

Gorabehera askoren ondoren (ia-ia artean), EAJ alderdi politikoak eta AEK Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundeak akordioa izenpetu dute.

Galdera-sail ugaria egin daiteke hitzarmen hau dela eta, edukinari so egin gabe ere.

Bat: zergatik kultur erakunde batek eta alderdi politiko batek izenpetu akordioa? EAJk zubiarena egingo omen du. Baina zertan behar da zubia Lakuara iristeko? Autopista ederra dago hara. Non daude trabak, egiaz eta benetan?

Zergatik PNVrekin akordioa, eta ez beste alderdiren batekin? Agintean dagoelako Gasteizen? Baina lehen osorik zegoen eta orain erdizka bakarrik.

Bi: zergatik sinatu da orain, orain eta ez lehenago? Prozesu negoziatzaile zabalagoaren izpirituari erantzuten ote dio akordio honek? Ala aitortu gabeko ahuldadearen fruitu da, besterik gabe? Duela urte batzuk baino ahulagoa da orain EAJ: ahulagoa, bai gizartean eta bai agintean.

AEKk iraun egin du, hazi ere bai, baina zein kondiziotan? Ekonomian eta normalizazio akademikoan du Akileren orpoa.

Ez dut auzitan jartzen hitzarmen honen onuragarritasuna: AEK eta EAJrentzakoa, eta baita gizartearentzakoa ere. Orain arte ez egitean galdu dugun denbora errekupe-raezinak, horrek ematen dit pena, min eta amorru. (*Apirilak 26*).

## 1968tik 1988ra, maiatzetik maiatzera

Maiatzean gaude. Nola ez, bada, bi lerro idatzi 68ko maiatzari buruz? Egitea, topikoa. Ez egitea, barkaezina.

68ko maiatza mozkorraldi baten gisakoa izan zen. Biharamunean bide gaude orain, "atxur" eta guzti. 60ko hamarraldi osoa izan zen utopia, ametsa. Eta 68a, utopia horren bururapena edo, nahiago baduzu, «utopiaren azkena» (Marcuse).

Gaur «utopia negatiboa» (J.L. Lz. Aranguren) bizi dugu, gehienik ere: gerra-trafikoaren aurkakoa, kutsaduraren eta izadia desegitearen aurkakoa, laugarren munduko marjinazioaren aurkakoa.

«Utopia negatiboa», bai. Baina, egia esan, areago bizi dugu, nere ustez, bestelako balio-sistema: pragmatismoa, individualismoa, hedonismoa, narzismoa, iraultzaren mito eta erritoen mesprezua... Fernando Savater-en eritzian 68ko maiatzetik zuzen-zuzenean datozen balioak. Magister dixit. Ez ote, kontrara, orduan huts egindako utopien deslilura eta degradazio? (*Maiatzak 1*).

## Esne-kontuak Nafarroan

Edozein arazo politizatzen da derrepente Euskal Herrian. Eta bereziki Nafarroan, esango nuke.

Badirudi horietako bat dela Copelecherena. Copeleche Friesland Holandako multinazionalari saltzea da Urralbururen gogoia. Ez ote bidezkoago Gipuzkoako Gurelesa eta Bizkaiko Beyenarekin bat egitea? Euskal kooperatibismoaren mesedetan bederen. Baina hona marmua aipatu, Nafarroa eta Komunitate Autonomoa bat egitearena: esne-kontutan hasi, eta non buka daiteke gero? Hobe errotik (errapetik) moztea asuntua.

Arazo honetan ere, euskaldunari kalte egiteagatik, Nafarroari egiten diotela kaltea agintariiek, idatzi du Patxi Zabaletak. Aspaldi nago ni susmo honekin. (*Maiatzak 9*).

## Tabakoa ez bide da postmodernoia

Kalentura berri bat: tabakoaren «virus»aren aurka: Gobernuaren legeak, mahainguruak telebistan, irratian, artikuluak egunkarian... Ez da begi onez ikusten gaur erretzea. Gurutzada berri bat sortu da: Gerra erretzaileari! Erljio berri horretan bi mandamendu dira nagusi: lehena, ez erre; bigarrena, lagun hurkoaren konpainian ez erre. Gizartetik kanpo bidali nahi da. «Bizio bakarkako» eta lotsagarri horietako bilakatuko da erretzea. Postmodernoia izan nahi baduzu, erretzaile-ohia behar duzu izan.

Argumentu bat bakarra —era desberdinetan bada ere— erabili ohi da erretzearen aurka: erretzea kaltegarri da osasunarentzat. Argumentu osasunzalea, *sanitarista*. Orain arte norberarentzat —erretzaile aktiboarentzat— zen kaltegarri. Orain, batez ere erretzaile pasiboarentzat.

«Tabako gabeko Mundu-Eguna» ere ospatu-berria dugu. Instituzio guztiak tabakoaren aurka jarri zaizkigu orain. Estatu lehena. Ez da ulerterraza Estatuaren bapateko zelo babesle hau, zigarroak hil egiten duela suposatzen duena alegia, pozoien honen produkzio-, komertzializazio- eta banaketa-monopolioarekin. Zergatik beti ondorioetan ihardun, kausetara jo gabe?

Kultur problema da batez ere tabakoarena, ez osasun-problema. Zera lortu beharko litzateke: jendeak arrazo-

namenduz eta xarma intelektualez erretzeari uztea. Zigarroaren kontra aurkez daitekeen argumenturik erabakiorrena, neretzat, hauxe da: erretzailerik gehienak zigarroa utzi edo gutxiago erre nahian daude. Gertakaria da. (*Maiatzak 12*).

## Erre erretzailea!

Washington-etik dator berria, berri bikoitza.

Heldu iparramerikarren % 27 drogadiktoa da. Horrelaxe erabaki du bertako medikurik sonatuenak, Everett Koop jaunak, zigarro-erretzaileak drogadikto direla deklaratu du eta.

Aurreko astean, Darryl Seigel jaunari 660.000 pta.ko multa eman zioten. Zergatik? Abioiko komunean zigarro bat erretzeagatik. Bi orduz azpiko hegaldietan ezin da orain erre.

Erretzailea «kriminalizatzer» doa Ipar Amerika. Gauza bat da erretzea debekatzea. Eta beste bat, erretzailea bera erre nahia.

Ameriketako gauzak, esango du norbaitek. Hangoa bakarrik ote? Egin kontu Estatu espainoleko legeria eredu anglosaxoiaren mimetismoz eratua dela. Aplikazioa ikusi behar. (*Maiatzak 17*).

## Jaso ditugu

- ALBA REQUEJO, Juan de; PINEDA, Jose Manuel: **Fisika eta Kimikazko ariketak. 5. Fisikazko eta kimikazko laborategi-praktikak.** II, Elkar, Donostia 1987, 24 × 17 cm. 81 or.
- ANAKREONTE: **Anakreon (greko-euskaraz)** (euskaratzailea: Etxebarria, Jon Gotzon), Egile editore, Gernika, 1987, 16,5 × 12 cm. 72 or.
- ARAMENDI, Koldo; ELHUYAR: **Fisika eta kimikazko ariketak. 8. Kimika. Selektibitate-ariketak**, Elkar, Donostia, 1988, 24 × 17 cm. 94 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Beasain. Udalerrri gipuzkoar baten historia / Historia de un municipio guipuzcoano**, Beasaingo Udaletxea, 1987, 29,5 × 20,5 cm. 398 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Enseiucarrean, 3. zk. (1987)**, Deustuko Unibertsitateko EKM, Bilbo, 1987, 24,5 × 17 cm. 149 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Gure Artea 87**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1987, 28 × 21,5 cm. 58 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Legazpi 87-88**, Hots, Legazpi, 1987, 23 × 23 cm. 192 or.
- ASKOREN ARTEAN: **Okel leize-gizona. 1** (batuan), Kili-Kili, Bilbo, 1987, 26,5 × 18,5 cm. 20 or.

- ASKOREN ARTEAN: **RIEV**, t. XXXII, n. 2, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1987, 24 × 17 cm. 501 or.
- ASKOREN ARTEAN: **II Encuentro de Geografía Euskalherria-Catalunya / Euskal Herria-Catalunya arteko II. topaketa**, Ingeba, Donostia, 1987, 24,5 × 17 cm. 253 or.
- BALZOLA, Asun (euskaratzailea: Lertxundi, Anjel): **Indiana Jones-en zamarra**, Erein, Donostia, 1988, 19 × 12,5 cm. 113 or.
- BAROLO, Joane: **Falo zantarra**, Elkar, Donostia, 1988, 19 × 12 cm. 76 or.
- BELAUSTEGIGOITIA, Ramon de: **Con Sandino en Nicaragua**, Txalaparta, Bilbo, 1988, 21,5 × 13,5 cm. 144 or.
- CAJA LABORAL POPULAR. DEPARTAMENTO DE ESTUDIOS: **EI Sector agroalimentario. Situación y perspectivas. Volumen I**, Gipuzkoako Foru Aldundia / Lan Kide Aurrezkia, Bilbo, 1987, 26 × 20 cm. 410 or.
- CAJA LABORAL POPULAR. DEPARTAMENTO DE ESTUDIOS: **EI Sector agroalimentario. Situación y perspectivas. Volumen II**, Gipuzkoako Foru Aldundia / Lan Kide Aurrezkia, Bilbo, 1987, 26 × 20 cm. 380 or.
- DUVOISIN, Jean Pierre: **Liburu ederra** (prestatzaileak: Guerra; Iribar; Laskurain, Euskal Editoreen Elkarte / Erein, Donostia, 1987, 19,5 × 13 cm. 100 or.
- E.J. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA: **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 1987rako aurrekontuak**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 24 × 16,5 cm. 58 or.
- E.J. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA: **Irakaslegoaren alfabetatze-euskalduntzea. 1988ko udarako eta 1988-99 ikasturterako programa. Aurkezpen-txostena**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 22,5 × 16,5 cm. 112 or.
- E.J. KULTURA ETA TURISMO SAILA: **Zer egin dezaket atzerrian. 1988**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 21 × 15 cm. 205 or.
- E.J. LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA: **La prevención comunitaria de las drogodependencias**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1987, 24 × 17 cm. 205 or.



- ELHUYAR: **Fisika eta kimikazko ariketak. 6. Azidoak eta baseak**, Elkar, Donostia, 1987, 24 × 17 cm. 90 or.
- ELHUYAR INFORMATIKA-TALDEA: **Assistant-en inguruan**, Elhuyar, Donostia, 1987, 24 × 17 cm. 616 or.
- ELHUYAR INFORMATIKA-TALDEA: GOÑI, Jesus Mari; IZTUETA, Arantxa: **BASIC lengoaia lantzeko ariketak**, Elkar, Donostia, 1986, 24 × 17 cm. 164 or.
- ETXEBARRIA, Jon Gotzon: **Grezia-ko philosophia**, Egile editore, Gernika, 1988, 16,5 × 12 cm. 72 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Biztanleriaren inkesta ihardueraren arabera. BIA / Encuesta de población en relación con la actividad. PRA. 10/1987**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1987, 25,5 × 21 cm. 52 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Biztanleriaren inkesta ihardueraren arabera. BIA / Encuesta de población en relación con la actividad. PRA. 11/1987**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1987, 25,5 × 21 cm. 52 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Biztanleriaren inkesta ihardueraren arabera. BIA / Encuesta de población en relación con la actividad. PRA. 12/1987**, Euskal Estatistika-Erakundea, Gasteiz, 1987, 25,5 × 20,5 cm. 52 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Biztanleriaren inkesta ihardueraren arabera. BIA / Encuesta de población en relación con la actividad. PRA. IV/1987**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1987, 25,5 × 21 cm. 192 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Biztanleriaren inkesta ihardueraren arabera. BIA / Encuesta de población en relación con la actividad. PRA. 1/1988**, Euskal Estatistika-Erakundea, Gasteiz, 1988, 25,5 × 20,5 cm. 52 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Biztanleriaren inkesta ihardueraren arabera. BIA / Encuesta de población en relación con la actividad. PRA. 2/1988**, Euskal Estatistika-Erakundea, Gasteiz, 1988, 25,5 × 20,5 cm. 52 or.
- EUSKAL ESTADISTIKA-ERAKUNDEA: **Euskadiko K.A.ko 1986ko Biztanleen Udal-errolda. Biztanleriaren Egitura / Padrón Municipal de Habitantes 1986 de la C.A. de Euskadi**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 25,5 × 21 cm. 238 or.

- EUSKAL ESTATISTIKA-ERAKUNDEA: **Euskal Urtekari Estatistikoa / Anuario Estadístico Vasco. 1987**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 26 × 21 cm. 516 or.
- EUSKAL ESTATISTIKA-ERAKUNDEA: **Industri kontuak / Cuentas industriales. 1985. Oinarria / Base 85. Berrikustapena / Revisión 1984. Oinarria / Base 85**, Euskal Estatistika-Erakundea, Gasteiz, 1988, 25,5 × 21 cm. 189 or.
- EUSKAL ESTATISTIKA-ERAKUNDEA: **Irakaskuntzaren estatistika / Estadística de la enseñanza. 86-87**, E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 25,5 × 21 cm. 252 or.
- FRID-BOOTH, Diana L.: **Proiektugintza** (euskaratzailea: Larramendi, Usoa), HABE, Donostia, 1987, 21,5 × 15 cm. 100 or.
- GENUA, Enkarni "Txotxongilo": **Altxor bat patrikan**, Erein, Donostia, 1988, 30 × 21 cm. 23 or.
- HERGÉ: **Eguzkiaren tenplua** (euskaratzailea: Azurmendi, Joxemari), Elkar, Donostia, 1988, 30 × 22,5 cm. 62 or.
- IMAZ, Josu Jon; IRAZABALBEITIA, Inaki; IRIARTE, Marian: **Kimikaren oinarriak landuz. UBI**, Elkar, Donostia, 1987, 24 × 17 cm. 474 or.
- LEKUONA, Manuel: **Idaz-lan guztiak. 1. Aozko literatura**, Librería Técnica de Difusión, Tolosa, 1978, 20 × 15 cm. 624 or.
- LEKUONA, Manuel: **Idaz-lan guztiak. 2. Euskal etnografia**, Librería Técnica de Difusión, Tolosa, 1978, 20 × 15 cm. 582 or.
- LEKUONA, Manuel: **Idaz-lan guztiak. 3. Arte-izti**, Librería Técnica de Difusión, Tolosa, 1978, 20 × 15 cm. 398 or.
- LEKUONA, Manuel: **Idaz-lan guztiak. 4. Kondaira (A)**, Librería Técnica de Difusión, Tolosa, 1978, 20 × 15 cm. 420 or.
- LEKUONA, Manuel: **Idaz-lan guztiak. 5. Kondaira (B)**, Librería Técnica de Difusión, Tolosa, 1978, 20 × 15 cm. 434 or.
- LEKUONA, Manuel: **Idaz-lan guztiak. 6. Kondaira (D)**, Librería Técnica de Difusión, Tolosa, 1983, 20 × 15 cm. 546 or.
- LEKUONA, Manuel: **Idaz-lan guztiak. 7. Kondaira (E)**, Librería Técnica de Difusión, Tolosa, 1983, 20 × 15 cm. 546 or.

- LEKUONA, Manuel: **Idaz-lan guztiak. 8. Euskeralojia**, Librería Técnica de Difusión, Tolosa, 1984, 20 × 15 cm. 566 or.
- LEKUONA, Manuel: **Idaz-lan guztiak. 9. Literatur-sorkari**, Librería Técnica de Difusión, Tolosa, 1985, 20 × 15 cm. 304 or.
- LEKUONA, Manuel: **Idaz-lan guztiak. 10. Gabon eta eliz-kanta**, Librería Técnica de Difusión, Tolosa, 1985, 20 × 15 cm. 410 or.
- LEKUONA, Manuel: **Idaz-lan guztiak. 11. Azken-urratsak**, Librería Técnica de Difusión, Tolosa, 1987, 20 × 15 cm. 486 or.
- LEKUONA, Manuel eta beste: **Idaz-lan guztiak. 12. Geigarriak eta arkibideak**, Librería Técnica de Difusión, Tolosa, 1988, 20 × 15 cm. 472 or.
- LIZASO, Pili; ELHUYAR INFORMATIKA-TALDEA: **Pascal lengoaia egituratua**, Elkar, Donostia, 1987, 24 × 17 cm. 299 or.
- LIZEAGA, Mikel; ELHUYAR: **Fisika eta kimikazko ariketak. 7. Fisika. Selektibitate-ariketak**, Elkar, Donostia, 1988, 24 × 17 cm. 132 or.
- MENDIGUREN, Xabier: **Negu gorriko lagun berriak**, Erein, Donostia, 1988, 19 × 12,5 cm. 59 or.
- RETOLAZA, Jose Antonio: **Arrotz ipuinak 2**, Kili-Kili, Bilbo, 1987, 26,5 × 18,5 cm. 20 or.
- RUCK-PAUQUET, Gina: **Munduko haurrik xarmangarrienak** (euskaratzaileak: Carbonell, Arantxa; Sarasola, Joan Mari), Elkar, Donostia, 1988, 19 × 13 cm. 145 or.
- SASTRE, Pablo: **Lur**, Elkar, Donostia, 1988, 19 × 13 cm. 103 or.
- SCOTT, Walter: **Ivanhoe zalduna** (euskaratzaileak: Olaetxea, Belen eta beste), Kili-Kili, Bilbo, 1987, 26,5 × 18,5 cm. 20 or.
- STEINBECK, John: **Perla** (euskaratzailea: Ordorika, Ruper), Elkar, Donostia, 1988, 19 × 12 cm. 102 or.
- UZEI: **Aurrezki-kutxan**, UZEI, Donostia, 1987, 24 × 15 cm. 56 or.
- VALLS, Alvar: **Beltx. Zakur baten oroitzapenak** (euskaratzailea: Altuna, Margarita), Elkar, Donostia, 1988, 19 × 13 cm. 122 or.
- WILLIAMS, Eddie: **Irakurketa hizkuntz klasean** (euskaratzailea: Larremendi, Usoa), HABE, Donostia, 1988, 21,5 × 15 cm. 134 or.

ZABALA, Juan Luis: **Gertaerei begira**, Elkar, Donostia, 1988,  
19 × 12 cm. 177 or.

ZABALETA, Josu: **Ameriketako indioek kontatzen zuten**, Erein,  
Donostia, 1988, 19 × 12,5 cm. 98 or.

ZABALETA, Josu: **Baltikoko ipuinak**, Erein, Donostia, 1988,  
19 × 12,5 cm. 109 or.

ZALDUA, Imanol: **Barrezka**, Elkar, Donostia, 1988, 19 × 13 cm.  
91 or.

**JAKIN**

**Ategorrieta hiribidea, 23, 1. esk. – 20013 Donostia**  
**Tel.: (943) 27 17 13**

# JAKIN

1968-1988  
**EZKERRAREN HISTORIA**  
**Euskadi - Europa**

**Diglosia**  
**Dirua eta moneta-politika**  
**Egunen gurpilean**

Apirila  
Ekaina

**47**

1988